

EGAN



1-6

1991

**EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO
"BOLETIN"-AREN EUSKARAZKO GEHIGARRIA**

Idazkaritza: Euzko Adiskidetasunaren Elkarteak. Gipuzkoako Saila
992 Postakutxatila — DONOSTIA

EGAN



EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEKO
"BOLETIN"-AREN EUSKARAZKO GEHIGARRIA

Zuzendaritza: Iñaki Zumalde Romero

Idazkaritza: Euzkalerriaren Adiskideen Elkarte. Gipuzkoako Saila
992 Postakutxatila — DONOSTIA



*Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak
Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiari
EGAN argitaratzeko emandako laguntza
eskertez den die.*



EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAK
"BOLETIN"AREN EUSKARAZKO OEHIGARRIA

Zuzendaritza: Iñaki Zubeldi Rionero
Idazkaria: Euzko Jaurlaritzaren Adiskideen Elkarteak, Gipuzkoako Foru
907 Pasaia -- DONOSTIA

ISSN: 0422 - 7328. EGAN

Legezko Gordailua: S.S. 289/1958

Inprimategia: IZABERRI, S.A. - 36. Industri Poligonoa. - USURBIL

II Garria

AURKIBIDEA

SANTA (y) AGEDA (y) AGEDA. Bihar da Santa (y) Ageda Guillermo Etxeberria.....	5
“GAZTELU”-REN POESIAN ALDE FORMALAK Luis Mari Mujika	19
KONTU KONTARI	
IRAGANAK TINKO DIRAU	
Iñaki Zumalde	85
OLERKIAK	
JUAN LUIS PANERO-REN POEMA BAT. Saio estilistikoa Gerardo Markuleta	95
POETAREN GOIARGIA	
Luis Mari Mujika	105
ANTZERKIA	
“IPARRA” Iñazio Irizar	133

SANTA (y) AGEDA (y) AGEDA

Bihar da Santa (y) Ageda Otsailak 5

Guillermo Etxeberria

Santa Ageda. Bertsoak eta koplak

Aspaldiko ohitura da gure herrian Santa Ageda bezperako eskea. Ohitura hala izanik ere, harri eta zur geratu ginen duela zenbait urte, gure kopla zaharren entzutera hurbildu zitzaigun lagun baten galderari zer erantzun ez genekiela geratu ginelarik:

— Aizak, nor zen Santa Ageda eta noiztikako ohitura da errondan ibiltzea?

Geroztik hori ostera gerta ez zedin bildu genuen zenbait datu santa honi buruz, eta hemen doana, haren lapurpena duzu.

Nor zer Santa Ageda? Hara Udarregi bertsolariak (1829-1895) egindako bertsoetan erantzuna:

Santa Ageda dama eder bat
Sizilia'n zan jayua,
Catania'ko juezen mende
igaro martiriyua;
egin nai izan ziotelarik
gaiztoak enganiyua,
ez bait zioten muda-erazi
sekulan opiniyua.

Cataniako gobernadore
Kinziano zan orduna,
kristaldadia galerazi ta
bere emazte nai zuan;
Jesukristori bere bizitza
len agindua bai zuan,
erejiakin bat egitiaz
gustorik artzen ez zuan.

Zaharra da Euskalerrian santa honen debozioa. Santiago bidean joanetorri ibiltzen ziren erromesen eraginez sartua. Leienda, koplak eta bertsoz inguraturik aurkitzen dugu. Eta kalez kale kantari ibiltzeko ohitura hori, gutxienez, Erdi Aroan koka daiteke, XVI. gizaldian.

Zergatik, ordea, santa honen debozioa? Arrazoi guztiak biltzea, lan neketsua izanik ere, zenbait ideia bota ditzakegu. Tradizionalki euskal gizartean, emakume ezkonduen bizi soziala, ezer gutxitara eta egun jakinetara mugatzen zen: elizako jaieldietara, haur izan ondorengo egunetara eta ezer gutxiagotara. Ba ziren, halere, zenbait egun ohitura zorrotz hori hausten zirenak. Bata Santa Ageda eguna zen (otsailaren 5), "emakundea" edo emakumeen festa ospatzeko aukeratua.

Jakina da, bestalde, santa hau martirizatua hil zela, gaur egungo hitzetan torturatua esango genuke. Eta torturen artean bi izan ziren nagusi egin zizkietenak. Udarregin esango digu:

Kristal-puska ta "talavera"kin
galtzara eragin zuan,
larru gorrian soka lepotik
zeukala eraman zuan;
an arrastaka erabiltzeko
sententzia eman zuan,
oiak guztiak eginda ere
mudantzarikan etzuan.
Alde guztitik puska jario
Santaren gorputz ederra,
an ikusi ta ez lastimatzen
ereje biotz gogorrak

“Borondaterik ez badaduka
mundatuko du biarrak,
arma zorrotz bat ar zazute ta
ken zaizkatzute bularrak”.

Azken tortura hau, ongi kantatzen du Aresti zenak bere kopla eder
haietan:

Kantatu zuen oilarrak
argitzen dira belarrak,
Ageda gure martiriari,
moztu zizkaten bularrak.

Santa honek Euskalerrian zehar dituen zenbait ermitatan ere bula-
rrak bandexa batetan azaltzen zaizkigu. Eta hariari jarraituz, bularreko
haurren zaindaritzat ere jotzen da Santa Ageda.

Bestalde, suaren aurkako zaindari bezala ere agertzen da. Aspaldi-
ko ohitura izan behar du. XII eta XIV. gizaldietan etxe asko erretzen
zen gure herrian, egurrezkoak bait ziren. Gernika aldean, adibidez,
Kandelario egunean bedeinkatutako kandela eta argizariak pizten
omen dira Santa Ageda gau ilunabarean.

Santa Ageda bezperan eliz kanpaiak jotzeko ohitura izan da tradi-
zionalki. Kanpai jotze honek, haurdun dagoen emakumeak erditze on
bat izan dezan laguntzen omen du. Ondorioz, Santa Ageda bezperako
kanpai jotzearen arrazoia, hori izan daiteke Nafarroako Martin de Ar-
les kanonigoak 1559an esaten digunez. Gerora kanpai hotsa kantarien
buru egiten zuenak eramaten zuen txilin batez ordezkatu zen eta ez
zuen kantuan ari bitartean txilina jotzea utziko.

Suaren aurkako zaindaria ere badela esan dugu. Hain zuzen, Santa
Ageda bezperan, kanpandorretan, kanpaiak jotzeaz aparte sua ere piz-
ten zen. Agian, hau ez da segurua, errondan dabiltzan mutilek darama-
ten makilekin, azkenean sua pizten omen zuten.

Leiendaz inguraturik aurkitzen dala esan dugu santa honen izena
eta hara bat, Azkue jaunak Barkox-en bildua:

“Santa Ageda eguna izanik ere, etxekoandrea “labekada” ogia la-bean erretzen hasi zen. Katu batek, ordea, ore zati bat hartu eta jan egin zion: “Ken hadi, katu” oihukatzen zuen andereak. Eta katuak: “Ez naiz katu, Santa Ageda baizik, begira ezazu atzera”. Eta etxea sutan ikusi zuen. Horregatik, hain zuzen, egun horretan, ez da hemen lanik egiten eta ez labekada edo lixibarik ere”.

Santa Ageda eguna garrantzi haundikoa izan da gure herriko musika eta doinu alorretan. Bertso eta koplarik ederrenak Gabon Eguna eta Santa Ageda egunari eskainiko dizkio. Santa Agedako eske-bertso asko dugu, beraz, gure artean, Euskalerrian oso zabalduak. Gehienak kopla eratakoak dira, laburrak eta bizi biziak. Haietako zenbait aurki daiteke Azkueren *Cancionero Vasco* delakoan. Dena den, gaur egun kantatzen direnen artean, badira berriak ere. Nork ez du ezagutzen “zortziko haundi” hau?:

Zorion etxe ontako denoi,
oles egitera gatoz,
aterik ate ohitura zaharrak
aurten berritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz,
ezta ere oinetakoz.
Baina eztarriz sano gabiltza
ta kanta nai degu gozoz.

Eske bertsu hauetan, santaren eguna ospatzen zen eta ondoren jakia eta dirua eskatu otordu bat egiteko eta ginerantzekoa behartsuen artean banatzeko. Azkuek Astigarragan bildu zuen batek hala dio:

“orko izkila jotzaileentzat
limosna billa gabiltza”.

Satrustegi jaunak esaten digunez, berak ezagutu zuen festan, neska-mutilen arteko festa omen zen muina. Bikote berrien arteko harremanak publiko egiteko erabiltzen zen festa, batetik eta neska-mutilek elkarri deklarazioak egiteko, bestetik. Eskera joateak ez omen zuen

afaritarako zer jana biltzea beste helbururik. Mutilak bakarrik ibiltzen omen ziren, batik bat lukainka, arraultza eta jakiak biltzen. Neskek, gero afaritara piper opilak, intxaurrak etab... eramaten omen zituzten. Haseran Santa Agedari dagozkion bertsoak kantatzen ziren eta ondoren eskeko koplak. Hortarako, ordea, etxe aurrean jarri eta baimena eskatu ohi zuten":

Ene kristauak badakizute
noiz degun Santa Ageda,
gure arteko usuarioaz
kantuan gatoz atera.
Lizentzia gaur eskatzen diot
etxeko nagusi jaunari,
Santa Ageda'n martitirua
espalikatzeko berorri.

Edo beste bertso honetan azaltzen den bezala:

Santa (y) Ageda (y) Ageda,
bihar da Santa (y) Ageda,
bihar da Santa (y) Ageda eta
gaur haren bezpera gaua.
Libertadea eskatzen diot
etxeko printzipalari,
Santa (y) Agaedaren alabantzak
kantatutzera noa ni.

Edo honako agur hau:

U aizearen epelal
airean dabil orbela...
Etxe hontako jende lalelak,
gabon Jiankoak diela.

Ondorioz, zaldunen arteko tratua ematen zitzaion, bai nagusiari, etxekoandreaki, seme edo alabari:

Eder zeruan izarra,
errekaldean lizarra...
Etxe hontako nagusi jaunak
urre gorritz du bizarra.

Urre gorritzko bizarra eta
zilar labratuz espalda:
Erreal bikoze egina zeukak
Elizarako galtzada...
guri horretxek botako ziguk
behar deguna poltsara.

Beraz, losintxa guziaren ondorioz, eskea egiten zen inolako lotsarik gabe: intxaurreak edo irina, arraultzeak edo urdaiazpikoa, lukainka edo... dirua.

Nagusiaren ondoren etxekoandreakiaren txanda izaten zen:

Urre txintzarri kordena
Jaunak eman dit ordena,
Etxekoandreaki koplaturtzeko
nagusiaren urrena.

Etxekoandreakiaren ugaritasuna eta esku zabaltasuna adierazteko, honako hauek botatzen zituzten:

Zaldia dago silatzen,
lau oinetatik perratzen:
Etxe ontako etxekoandreaki
zaldiz da elizaratzen.

Txokolatea hartzea ere distintzio seinale zen, itxuraz:

Txokolata artu artian
ez dek andixek mogitzen;
txokolata artutakuan
kalera paseatuzten.

Ugaltasuna eta zabaltasun hori beste era hontara ere azaltzen da:

Etxe ontako etxeoandrea
giltza haundien jabea,
giltza haundiak hartu ezker
egizu limosenea.

Gero, etxeko nagusi gaztea agurtuko zuten:

Eder eperra lumatu....
Beti jainkoak amatu;
orain emendik bean genduke
Nausi gaztea koplatu.

Arantza beltzak ostrua txiki,
puntara zaigu loratu;
Orain emendik behar genuke
maiorazkua koplatu.

Etxeko alaba ere ez zuten koplak hauek ahaztuko. Ikus dezagun:

Eder usua lumatu
Beti birjina amatu;
Orain emendik bear genduke
dama gaztia koplatu.

Eder ortuan madari,
Udaberrian janari;
Libertatia eskatzen dizut

Alabagaitik amari.
Alabatik amari,
dotiagatik aitari;
Konformatutzen baldin bagera,
neronek artukoet ori.

Eskariak eginak izanik, janari edo dirua biltzen zen. Baina zenbait etxetan halakorik eman nahi ez batzuten, koplariak ez zioten etxe hari eta etxetarrei zurkeria barkatuko. Ikus ditzagun zenbait bertso.

Goazengoazen emendik,
emen eze zegok xingarrik,
etxe hontako gazitegian
xaguak umeak egin tik.

San Martin jaunak, Eibarren jasotako hau ere halakoxea da:

Kura parroko mondongo
ik ez dok asko emongo,
ik emondako limosnarekin
ez juagu asko edango.

Eta Lekuonak eskaintzen digun hau, Angiozarkoa:

Etxe ostian asuna,
etxeoandre lisuna;
eman biarrak egiten disu
estemanguko iluna.

Eta Antzuolako beste hau:

Mendi altuan gau ilunian,
pasiatzen du otzuak;
lepa-zorriak itoko al ditu,

etxe ontako atzuak.
Eder kakuan uztarri;
Gure astuak (p)uzkar bi:
bata etxeko Jaunarentzako,
bestia etxeko andrari;
Ostiantzeko txiki-aundiak
muin ipurdian elkarri.

Uste dugu gaur egun hainbeste bertsolari eskola Euskalerrian zehar hedatu den momentuan, une guztiz bikaina litzatekeela gure bertsolari gazte berriak plaza-praktikan aritzeko. Kopla, bestalde, laburra izanik, uste baitut bertso arrunt bat baino errazagoa dela osatzen. Hortan aritu nahi duenak, on luke kopla zaharren zenbait teknika, ahal duen neurrian behintzat errespetatzea. Ikus ditzagun xehetasun nabarrienak:

Hitzak errepikatzea:
Santa *Yageda Yageda*
bihar da *Santa Yageda*.

Aditzak errespetatu:

Emozu bada emozu
baldin *emozu baduzu*

Lerro osoen errepikak, “bihurkiak” alegia:

Santa (y)Ageda (y)Ageda
bihar da Santa (y)Ageda
Bihar da Santa (y)Ageda eta
gaur haren bezpera gaua.

Ondorioz, hitz ekonomia haundi batez osa daitezke sekulako kopla ederrak.

Ez luke koplari gazteak naturari buruzko gonbaraketa zaharra

ahaztu behar. Kopla zaharrari halako xarma bitxia ematen diona: hase-rako naturari buruzko aipamena eta bukaerako haren aplikapen ezrazionala, lojika baino areago geratzen den lotura sotil hori:

U aizearen epelal
aidean dabil orbela....
Etxe hontako jende leailak,
gabon jainkoak diela.

Ondoren, taldearen “estribiloaren” erantzuna legoke, ostera koplariak arnas hartu eta segitzeko:

Diostesable ongi etorri
gabon Jainkoak diela,
legearekin kunpli dezagun
Santa Agedabezpera.

Neurri alorra, aski ezaguna da: 8A/8A/10-/8A, zortzi silabakoak elkarren artean errimatzen dutelarik. Gehienetan errima erraza izaten da.

Uste dugu Santa Ageda egunak izan duen tradizioa gure artean bultzatzeak ez digula on besterik ekarriko. Tradizio zaharrak gogoratzetik aparte, gure kaleak bertsoz alai ditzakegu eta Amuritzak deitutako “hitzaren kirol nazionala” kaleratzeko bide guztiz egokia dela deritzogu. Gure lerro hauen helburu nagusienetako bat horixe da.

Santa Ageda-ko abestiak

Zorion etxe hontako denoi
agur egitera gatoz:
aterik ate ohitura zaharra
aurten berritzeko asmoz
Ez gaude oso aberats diruz
ezta ere oinetakoz
baina eztarriz sano gabiltza

ta kanta nahi dugu gogoz
Santa Ageda bezpera degu
Euskal Herriko eguna
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna.

Santa maitea gaur hartu degu
gure bideko laguna
haren laguntzaz bete gentzake
egun hontako jarduna

Mutil gazteak atean gera
nun da etxeko larrosa?
Atera bedi azkar leihora
begiak ditzagun goza.
Eguzki berak ikusi nahi du
horren arpegi panpoxa:
nere emazte izan nahi ba-lu,
betea nuke nik poza.

Aspaldi hontan ura garesti
dabil esne ta ardotan:
matsa gutxi izan arren, ardorik
ezta falta tabernetan
jesusek ura ardotu bazun
kanaango eztaietan
orain ikasle azkarraik sortu
zaizkio ordangeletan

Ura gustatzen zaigu eskuak
ta arpegia garbitzeko
baina napar beltza behar degu
eztarria buztitzeko
Txanpaina ere edango genuke
norbait balitz emateko
pattarra ezta gaizki etortzen

bizkarreko hotza kentzeko
Bihotzez agur, ongi etorri
Gabon Jainkoa diela
legearekin kunpli dezagun
Santa Ageda bezpera

Gaurko egunez, karerik kale
irten gerade kantari
Lehenen agur egin nahi diegu
etxe hontako denari

Bihotzez agur ...

Gaurko eguna ez dadila izan
inorentzako tristea
horregatikan kantari gatoz
Ikas-Bideko jendeak.

Bihotzez agur ...

Eskatzen degun txanpona hori
da gure Ikastolarako
Etzazula ba pentsatu danik
gure aparitarako

Bihotzez agur ...

Oraindikan ez degun bete
gure poltsaren erdia
zertarako zuk daukazu etxean
hainbeste diru gordez

Bihotzez agur ...

Zerbaiten eske daukazu jauna
hemen kantari dagona
hain emankorra zerade eta,
eman eiguzu txanpona

Bihotzez agur ...

Euskuakdunak izan oi dira
beti ematen gertsuak
bihotzez eskertuko dizute
laguntza hori behartsuak

Bihotzez agur ...

Karidadea egitekotan
hemen behar da dirurik
bestela ezin leike inolaz
irabazterik zerurik

Bihotzez agur ...

Santa (Y)Ageda

1 - Santa (Y)ageda (Y)ageda,
bihar da Santa (Y)ageda.
Bihar da Santa (Y)ageda eta
gaur haren bezpera gaua.
Bere baimena eskatzen
diot etxeko jaunari,
Santa (Y)agedaren ontasunak
erakustera noa ni.

2 - Zapata xuri paperez
euriak jota bat ere ez,
herrian damak badira baina
zeu bezelakorikan ez.
Oles ta oles etxekotxuak
jotzen ditut nik gaur ateak,
jotzen ditut nik ateak eta
kotsola bitez jentteak.

“GAZTELU”-REN POESIAN ALDE FORMALAK

Luis Maria MUJIKA

Sarrera

Joan Inazio Goikoetxea Olaondo-ren edo “Gaztelu”-ren olerki-gintza aztertzerakoan gerra osteko euskal poesiaren zutabetako baten obran sartzen garela ohardun izan behar dugu. Beraz, nahiz eta Gaztelu-ren poesigintza gerra aurrean (1932 aldera) hasi, bere produzioa gerraoste hurbilera (Hegoameriketara dagoelarik), eta, geroago, 1982 alde arte luzatzen da. Denok pentsatu behar dugu gerrateak eta ondorengo egoera politikoak, frankismoan, gure letretan suposatu zuen gainbehera eta giro latzean. Gaztelu-k erbesteak ematen duen herriminaz eta adoretz jarraitzen du poesia idazten; behin aberrira etorrira, jarrera bera, eta, batez ere, 1970-1971 urtealdian Irun-go sarien eztena lortzen duenean.

Gaztelu-ren poesian bi aro edo etapa atzeman daitezke formaren aldetik, bata haseratik, hots, 1932 aldetik *Jakintza* eta *Zeruko Argia*-n hasi eta Ameriketatik etorri-eta 1960 urte arte, gutxi gorabehera, hedatzen dena, eta bestea 1960 urtealdetik heriotzarte, nolabait, luzatua. Lehen etapaldian gerraurretiko Lizardi-ren eragina nabarmenena bera-engan. Orixe-rena, berriz, apalagoa dela uste dugu, nahiz eta poesia erlijioso eta mistikoetan haren kerak isladatu. Lehen etapaldi honetan Gaztelu-ren molde formaletan, Gaztelako ernazimenduan (eta harekin loturiko poesia mistikoan) nagusi diren gaiak narbamen, hots, nolabai-

teko bukolikotasuna, irudi klasikoen trataera (*oreinak, eraztunak, ez-teiak, ileadatsak*), metafora eta irudi orekatuen emaitzak, ia denak, tradizio arrazional (klasiko) baten andanatik. Aldi honetan, eta Lizardi-
ren poesiatik hurbil, *topiko* asko olerki bukolikoen (baserriaren gores-
tea, sagastia, natura arkadikoaren eta orbangabearen) trataeran. Biga-
rren etapaldian, berriz, Gaztelu olerkariarengan *etendura* nahiko
nabarmena atzematen dugu. Ia osorik uzten ditu aurretiko elemendu
bukoliko eta topikoak, iruditeria klasiko baten ildotik emanak; poesia
sozialera (eta, zuzenkiago, batzutan, *protesta-poesiara*) igarotzen da,
Vietnam-go gerratea, Euskal herriko egoera politiko zanpatua, iparra-
merikaren *Tío Sam-en harrokeria inperialista, gerra, giza-deskala-
bruak, etabar salatuz eta deitoratuz. Aldi berean, eta, behar bada,
iraupen eta tentu sakon handiagoaz, poesia "existenzial" tinko, barne-
koi eta garratza dagi ixilean. Jarrera existenzial hau gerraoste hurbileko
poesia batzutan ere azaltzen da, bainan 1960 ezkeroztik etengabea, he-
datua eta pertsonalagoa da.*

Bere gai *existenzialistetan* nagusienak aldia eta iragankortasuna
(transitividad), fedea eta dudak, jarrera agnostizista zenbait, euskararen
larridura, bizitzaren hari latza eta heriotza dira. Alde honetatik, bada,
Gaztelu poeta Salbadore Mitxelenaren parean ezar daiteke, Goikoe-
txea, agian, hura baino mingotsagoa delarik, oreka gutxiago duen do-
luzko hariatz. Hau dio deblauki:

"Zer historio/ ta zer misterio/ poesia lur jota dago.../ Nere historio
ezta histori/ egiak (lerro gainean *biziak* erasten du) indar ematen dio/
Poesia garbiak eztu ezertarako balio/ nere bizitzako terrazan eserita/
bakarrean gozatzeko baiño" (B. Karp. 182).

Izan ere, zerbait berezia nabari da Gaztelu-ren bigarren etapa ho-
netan. Poesia *formala* (poesia "garbia" dio berak) ezesten du, momento
batean, hutsezkoa eta alferrikakoa bezala. Gure ustetan, krisi personala
duen, eta zahartzarora doan gisan, nortasun animikoa aldatzen eta hala-
ko erlatibotasunez eta jarrera agnostikoaz giza-egitatea esperimenta-
tzen duen eran *beste* poesia-moeta egiten eta ontzen hasten da.
Formaren aldetik, bestalde, *poesia neurtua*, kasik, sistematikoki uzten
du, nahiz eta poesia librean ere erritmo eta puntu (hau gutxiagotan) on-
gi zainduak eskaini.

Gaztelu-k Aresti-ren euskara urria, mordoila eta elementala ar-

buiatzen du, bainan irekia dago “poesia sozialaren” mezura. Gainera, itzultzen du Gabriel Zelaia-ren poema zenbait, Otero ere, seguraski, ezaguna du. *Harria, Herria eta mailuaren trataerak (burdinarena ahanzi gabe)* hori bera adierazten du. Ala ere, kontutan eduki Arestiren poesia sozialetik Gaztelu-ren espresiora, hizkuntzaren eremuan, beraldiko aldea dagoela. Aresti-ren euskara elementala bada, Gastelurena sendo eta bipila da. Beraz, gure olerkariaren azpian gure hizkuntzak eman duen hiztegitik hobenetakoa eskutatzen da; beraz *Diccionario Auñamendi* (español-vasco) deiturikoa horren lekuko da. Gaztelu-k biziki ezagutzen zituen euskalkiak, gure lexiko tradizionalaren segetuak eta lokalismo solteenak ere, eta baliatu egin zen olerkietan errekurso lexikal paregabe horietaz. Ene ustetan, ezin daiteke konpara, adibidez, Lauaxeta edo Lizardi baten lexikoa Gaztelu-k duenarekin. Orixe-ren lexiko mendekizuna, noski, apartekoa litzateke.

Fondoaren eta tematikaren aldetik, bada (bai, gai *sozialetan*, eta bai, *existentzialistetan*), Gaztelu poeta *moderno*a dugu bigarren etapan, ez hainbeste, ordea, formaren aldetik. Guk atzeman dugunez, salbuespen batzuk kanpo utzita, Gaztelu-k ez du bereganatzen XX mendean gaztelaniaren eta frantzesaren alorrean nagusi den metafora sinbolista, surrealista, erdisurrealista eta “irrazionala”. Gaztelu-ren irudiak orekatsuak, klasikoak dira, funtsean, sorkuntza “irrazionalik” (hots, sentipenak arrazoimena itotzen duen olderik) isladatzen ez duelarik. Badakigu itzuli zituela *J. R. Jiménez, García Lorca, Hierro* eta beste gaztelaniar poeten poematxoak. Kasu bakan batzuk kenduta, Gaztelu-ren iruditeria ez da sartzen metafora “irrazionalaren” eremuan. Itxuraz, Gaztelu-ren formazioa kaputxinoetan (apaiztegietan bezala) “tradizionala” izan zen, eta, bestalde, Lizardi-ren ereduak ez ziren, noski, goian aipaturiko ildoetatik (adibidez, 27-ko belaunaldiaren andanatik) zihoaztenak.

Hau, nolabait, gure poesia guztiaren akatsa izanen da, ia, 1960-1970 arte. Izan ere, Mirande-ren iruditeria arte (eta oraindik ere aski apal) euskal poesia ez da sartzen biziki expresaera guztiz moderno baten esparruan. Lauaxeta-ren intentoa, gure ustetan, oraindik zalantzazkoa izan zen. Honetaz ikus gure *Mirande-ren poesigintza* obra (Edit. Haranburu, 1984, 2 aletan). Gure poetek anakromismoz, eta, maiz, solipsismoz, jarduten dute edergintzan, Lizardi-ren ildoak, noski, abiabide berdinekoa delarik.

ALDE FORMALAK

Gaztelu olerkariaren poesiaren alde *formal* zenbait aztertuko dugu, harakaketa honetan, bataz beste, hurrengo puntuak sartzen direlarik: *Lizardiren eraginak, elemendu mitologiko zenbait, irudi klasizistak, bukolikotasuna, naturaren sinboloak, errepikak, erritmo arinak, aha-paldiak eta puntua, konparaketa zenbait, kromatismoa, irudi sentsualak eta somatismoa, espazialismoa, urtearoak eta lexikogintzaren hedadura eta joerak.*

Azterketatik nabariago geldituko da Gaztelu-ren olerkigintzaren bi etapetan dagoen berezitasuna; lehenengoan alderdi formalen lanketa saiatuagoa (nahiz-eta ildo klasikoetatik, funtsean); bigarrenean, berriz, *haustura* formala, erritmoa, poesia librea eta perpausa solteen bitartez.

1.- Lizardi-ren haria

Esan dugunez, Gaztelu-ren olerkigintzan Lizardi-ren haria Orixe-rena baino bortitzagoa da. Horregatik, neolizardianismoan ere kokatuko genuke poeta gerraostean, Orixe-ren ukituak azalekoagoak dituelarik. Behar bada, itzulpengintzaren teknikan (sinkopaziozko eta gihardura formalezko baliabide batzutan) eta olerki mistikoetan hurbilagoa izanen da Orixe-ren eragina.

Hona Lizardi-ren hurbilekoa den testu zenbait:

“Arru-beetik
datozkit guri
ire amets zurien arribizi.
Barne egian
sor zait urbegi” (B Karpeta, 319)¹

Honek Lizardi-ren “Arru-beera itzulia nago” harakoa gogarazten digu. Goikoak ez dira “apunteak” baino, “Bamean iturburu” Lizardi-ri es-

(1) “Gaztelu”-ren olerkien aipamena egiterakoan *karp. A, B, C*, laburdurak edo abrebiaturak darabilzkigu, olerkariaren poesiak *karpeta* batzutan bilduta baitaude (gehienak olerki *argiratu-gabeak* direlarik). Karpeta horietako olerki-bildumak ez du halako ordena orokorrik, axalezkoa baino, maiz, kronologia bera ere errespetatzen ez delarik. Oraingo, bada, karpeta horien paginazio *probisionala* damagu.

kainitako poemaren sorkuntzarako eginak. Poema horretan Lizardi-ren arrastoak oraindik hurbilagoak dira, Lizardi bera aipatzen digularik:

“Aspaldian nai izan eta, orain zurean/ nago, Lizardi, mendigain galean. / Igo nauzu alda gora belazez/ zuk len bost bider egin gurdibidez” (A karp. 235).

Olerkian gurutzatu gabeko puntu binarioa darabil, *aa/bb/cc/dd* gisakoa. “Oi lur! oi lur! jaioterri nerea, / asaba zaarren bizitegi nerea” dioenean ere kontutan edukitzekoa Lizardi-ren “Oi lur, oi lur! Oi ene lur nerea!

Sagastia izan zen Lizardi-ren poesian baliakizun sugerigarrienetakoa. Hona sagastiaren ikuspen xorakorra udaberrian Gaztelu-ren lumatik:

“Aurrean
egurats egalean
i akusat, sagastia,
sagasti gazte, sagasti zuri
amets-loretegi irudi
bat-batez aideak geldia” (B Karp. 318)

Hau ere Lizardi-rengandik, nolabait, jaso, Lizardi-ren “sagasti berri, sagasti zuri/ inguma-atsegintokia iduri” ezaguna delarik.

Egamin (Zeruko Argia-n, 1934 urtean argitaratutakoan) ere lizardianismoaren zantzuak nabari: “Sutu zaidak, Eguzki, barrena: / ito da-kidan nere egamiña!” (A karp. 2); baita “Iluna darama gauak besoz, / t’argia ez agurtuko gogoz?”, “Mendiak gainduz odeien lagun, / nereztat litzake goi urdiña” (ibidem).

Itzala eta basoa gai nagusi dira Lizardi-ren poesia naturistikoa. Gaztelu basoaren “alaba” den *Itzalaz* mintzo zaigu:

“Kozkortzen ari zan Itzala,
baso zarraren alaba leyala,
begibeltx, otsan, apala”

Lizardi-k hau dio *Itzalaz*: “Itzal!, baso-ren ume yaukal, / xaloagorik ezin aal” (Baso itzal).

Hurbileko erreferentzia hauetaz gain, Gaztelu-ren lehen poesian euskal bukolikotasun zenbait Lizardi-ren urratsetatik doa, irudi klasiko batzuen kera eta topikotasuna kontutan izanik. “Zerura-bide” poema mistiko luzean iruditeria hori nabarmen (Orixe-ren ukitu zenbait garde-nagoa delarik, “Barne-Muinetan” poemaren ildotik).

Bi poema nagusien atzetik Espainia-ko ernazimenduko poesia eta mistika dago. Hona pasarte batzuk:

Ardi zuri ta beiak ere
—belardietan oi! edergarri— (A karp. 144)

Ekatzan eskua, Gogo!
ez ukigai dun soñña, sorgiñ-
beatzak egiña edo (Ibidem, 145)

Goiznabarra
urra baiño len,
bekar aoak elkarren musu-
lorea (Ibidem, 147)²

Maitea, giz-atsaren onu ori
bezagun artizar, begigu argi
illun-ezkillak deraunsano...! (Ibidem)³

Gaztelu-k, ala ere, pasarteak ez ditu hartu, nahitaez, Lizardi-ren-gandik bakarrik, bai, ordea, ernazimenduko joera bukolikoetatik.

Gaztelu-k, bestalde, “Il nadinean” poema garaian heriotza iragartze-rakoan “alako olerkari arloteak” lizardianoa gogoan du, dudarik gabe.

2.-Irudi klasizistak. Bukolikotasuna

Gaztelu-rengan atzeman daitezkeen eragin posibleetaz jardutean lehen etapaldiko irudi-mundua, funtsean, *klasizista* dela adieraz dezakegu. Etapaldi hori gerra aurrean hasten da, eta gerra ostean 1960 alde-

(2) Lizardi-k *aopekoak* (sekretuak) direla-eta hau dio: “Ta, ai, zein gozo gauden aopekotan!...”

(3) Lizardi-k txoriaz: “Ta zuek, nora, txoriok, saldoka / zoazte, iraduz urrundu-bearka?”
Eta *sagastiaz*: “Sagasti gazte, sagasti zuri.../elurte arian geldiak!”...

ra arte zabaltzen. Etapa horretan, gure ustetan, Lizardi du eredu bizi-
netako bat, eta, apalago Orixe. Orixe-ren ukitua, bereziki, poesia misti-
koetan (hala-nola “Zeru- bide” delakoan) atzeman daiteke; bestetan,
ordea, jarrera lizardianoa izadiarekiko (*sagarra, sagastia, basoa eta itza-
la, urtearoen islada*) aski bortitza da.

Irudietan, zehazkiago, sinbologia eta mintzo metaforikoa ernazen-
tista nabarmen. Gaztelu-k komentuan harturiko heziketa klasikoa zuen,
beste eliz-idazleek gisa; poesia espainiarrean puntako ziren autoreak
ezagun izanen zituen, hots, ernazimenduko poetak, Garcilaso, Fr. Luis
Leon-goia, Quevedo, Lope de Vega eta Grezia eta Erromako literatura-
rekin eta mitologiarekin erlazioa zuen iruditeria; eta arlo mistikoan
Joan Gurrutzekoa-ren olde literario berezia.

Gaztelu-ren iruditeria klasizistan *eraztunak, oreinak, basoa, itu-
rriak, ileadatsak, ardomatsak, urritzak, eztei- gurdia, txilintxak, eta-
bar*⁴. Eta bukoloismoaren eremuan *artzain* literatura, *larreak,*
ardi-abaroak, artzain- neskak (pastorelas) eta naturaren *bakea*. Ikus
ditzagun irudi batzuk. Lehenik irudi klasizistak, orokorki; gero bukoli-
tasunarekin loturikoak.

2.1. Irudi klasizistak

Klasizismo hitzak, hemen funtsa eta keraren edo formaren arteko
oreka adierazten du. Irudi klasikoetan —erromantizismoan ez bezala—
sentipena eta arrazoimena ongi lotuta azaltzen dira, kontraste handiak,
irudi “irrazionalak”, gehiegikeriak alboratuz. Irudi modernoan, aldiz,
sentimenaren oldea nagusitzen da, eta XIX mendeko erromantizismoa-
ren erreakzioetik sinbolismoaren, inpresionismoaren, eta, bereziki, su-
rrealismoaren bitartez, irudi ilogikoa, aldrebesa eta “irrazionala” edo
arrazoingabea lantzen etorriko da. Horrelako gutxi Gaztelu-ren lehen
etapaldian. Bigarren goan, aldiz, irudi *modernoek* badute agerpena, bai-
nan ez hainbeste poesia irrazionalaren andanan (euskal poesia moder-
noan, 1965 aldera, sinbolismo “irrazionala” autore bakan batzutan
presente zegoelarik). Gaztelu *protesta-poesia* edo *poesia sozialaren*

(4) Hona Garcilaso-ren irudi-zertzelada batzuk: “Y en tanto que el cabello... / por el her-
moso cuello blanco”, “cuyas ovejas al cantar sabroso / estaban muy atentas, los amores, / de pa-
cer olvidadas, escuchando...”.

Eta Fr. Luis Leongo-ak: “Una fontana pura / hasta llegar corriendo se apresura”, “El aire
del huerto orea”, “Tendido yo a la sombra esté cantando” (Canción a la vida solitaria).

besotik ibiliko da. Gaztelu, bada, ez da hain birtuosista bigarren etapa horretan, kontzeptualistagoa baino. Hau guztia kontutan edukirik, ikus ditzagun Gaztelu-ren irudi klasizista batzuk. Eremu honetan funtsezkoa gertatzen da bere *Zerura-bide* poema mistikoa (*Egan-en*, 1951 urtean, azaldua), kutsu ernazentista (eta lizardiano batez) atondua. Hona poema horretako irudi zenbait:

a) *Ardoa eta txanbil-hotsak:*

Noizdanik etenak ditun lagun galduen
txanbil-ots ta atsegiñ-ardo? (A Karp. 143)
Sagar ta mats-molkoz oparo
yai dezagun bada *maitago*(A Karp. 150)⁵

b) *Oreinak* (ciervos):

Burbutzika zebiltzan oreiñak
ur-ertzean urruma alaiez...

Ta oreiñari daragion urmiñak
Bizi-iturrira bultza gogor (A Karp. 144)

c) *Airea eta iparraren* (*cierzo*) *irudiak:*

Oi! iparraren mea
illunabarrean,
muñtzen bainau betartean.
Hosto-tartean haizeak
elkar-hizketa soñuak (B Karp. 112)

d) *Koroia:*

Gauzale-taldeak irrintzi-otsez
izarrak, koroï bat iduri.

e) *Eraztuna*

Neri gero erraztuna ezarriren,
ta maitara yarriki yan edanen (Ibidem, 149)

(5) Eta oraindik: "Yanen dugu orraze eztiaren, / edanen ardoa esnearekin" (Ibidem, 149), "malko beteak oriska mâstian / matsondo z nabartzen ari diranez..." (Ibidem. Eta Lizardi-k lehena-go: "Eskuan ditutela ardo-txanbillak" (Ondar gorri).

f) *Untza* (yedra)

Esne-aintzira aoak iduri
untz-orriz estalia ertzetan...

g) *Ezteiak* (bodas):

Gaur ezteiak. Poz gaiten
maitea!

Ta etxeruntz, apain, ots ezti-zoliez
eztei-gurdia, txilintxak otsez...(Ibidem, 149)⁶

h) *Muinak* (besos):

Bekar aoak elkarren musu-
lorea (A karp, 146).

Muñzen bainau betartean (Ibidem, 145)

Muiñ gozoak gero gure ezpañetan
loretu bitez maitasun-garretan (Ibidem, 149)

i) *Musika gozoa*:

Albotan, eder, zeruko yendea,
doñua yo-ta dantzari lotu... (Ibiden, 144)

Entzunen ire lelo betea (Ibidem, 46)

j) *Frutak eta loreak*:

Masail gorriak bi sagar umo (Ibidem, 145).
Lobedarrak galsoroan loredun (Ibidem, 149)

Naiz iratzarri, naiz loaro
maite-sagarra loreago (Ibidem, 149)

Sagar ta mats-molkoz oparo... (Ibidem, 150)

Mats-ale bi begiak
gerezi españi gorriak (B karp, 121)

(6) "Yesus lore dugu eztei-oea" (Ibidem, 149), "Eztei-ârai darikit egun / ain maite menaren lagun" (Ibidem, 147).

“Zerura-bide”-tik kanpo ere bada irudi klasikoan isladarik, han-
hemen:

Andere dugu Ele Ama
gandola eskuetan:
izar-dizdiza, lore usaina
ontzi-barean (B karp, 2)

Euskara *dama* gisa aurkeztea, eskuetan ontzi edo gandola (vaso),
“lore-usaina” eta “izar dizdiza” dituelarik, Garcilaso baten antzeko irudi-
teria eraikitzea da. Ondoren, gainera, “ezti dario aotik ao” (ibidem) dio.

Gaztelu poetak bere heriotza eta lurperaketaren koadroa *Larte*
mendian ezartzen digu (halako pozkario eta kristau optimismo goita-
rrez); dantzari ei dagie heriotza ospa dezaten, eta, ondoren, dio “Ta
par-algaraz ardo zagiak bear dira ustu” (B karp, 4). Gero, Lizardi-ren
hurbiletik, kilkerrak, gonbidatzen ditu hiletetara: “Kanta dezatela be-
lardietan kilkerrak, / alako olerkari arlote lurpetarrak” (Ibidem)⁷.

Uztaila presente, irudi ernazentista gisa:

Maite billa ote, ba? I neretzat / artizar, ta iretzat uztai eder ari naun
egiten (B karp, 39).

Baita urrezko ileadatsa (cabellera de oro) eta *hegal-ukitze* leunez-
ko (blando toque de ala) iruditeria:

Ille-adatsa du aberats,
erdi urre, erdi beltz
bekoki gainean harro... (B krap, 111).

Bi begi ñabar gaur nigana
hegal-ukitze leuna bezala! (Ibidem).

(7) Hona Lizardi-k damaigun antzeko koadroa: “Kilker olerkari arloteak / neurtitz ozenak
ditun boteak / lurrezko yauregi- atean?” (Sagar-lore, VII ahapaldia).

(8) Baita hurrengoan: “Zuri zor, ez besteri / honako zorapen gozo / hegal-ukitez sortua”
(Ibidem, 112). “Derramar la cabellera” irudia ere zaharra da, nahizeta poeta modernoek ere erabi-
li. Garcilaso-k *esparce* aditza dakar *haizearen* eragina aipatuz (“...el cabello.../por el hermoso
cuello blanco, enhiesto / el viento mueve, esparce y desordena” (Soneto XXIII). Gaztelu-k, berriz,
“Ilea beltzago / burutik dario / bi aldetara naro” (B karp. 181).

Susmurra (susurro) eta *izarrak* ere literatura ernazentista berean sartzen dira. Hona horien adierazpena:

Izarrez izar dabiltz asmoak
susmurrez geldiro... (B karp, 112).

Eguzki-jauregia (palacio del sol) irudia klasizista da, Lizardi-k ere bereganatua⁹. Hona Gazteluk:

“Emen duk euzkiaren jauregia,
ark emanen dik iraupen argia (B karp, 156).

2.2. Irudi bukolikoak:

Irudi bukolikoak, funtsean, artzantzarekin lotzen dira, iruditerian artzainak, artzain-neskak (pastorelak), ardiak, behiak, eta atsedean eta bakezko giro magikoa sortzen duten elementuak eskainiz. Literatura bukolikoa ere presente ernazimenduan, batez ere, Garcilaso-k Italia-tik ekarritako poesian; literatura hura Grezia eta Erromako Homero eta Virgilio-rekin lotzen da. Poesia mistikoa, noski, olerki bukolikoaz baliatuko da barne pasarte berezi zenbait eraikitzeko. Gaztelu-ren olerki-gintzan irudi bukolikoak goian aipaturiko poesiaz elkartzen dira, funtsean¹⁰.

Hona adibide zenbait:

Biotz-biguinkor ire gaueko janba xaur,
ardiak ausnarrean lo gozo daudelarik.

Ez al abilen pozik nere ardien artean?

Deika ote or, nunbait, artzaien bat koipetzu? (B karp, 39).

“Ene bildots emea” poema zeharo bukolikoa da. Irudien tramak menpetasun gehiegi dauka ernazimenduko ereduakiko XX mendean

(9) Eta Lizardi-k: “Leioak itxitako yauregia / basoak iduri...” (Baso itzal).

(10) *Eztia* (miel) ere irudi bukolikoetan sartzen da, eta bere adierazpena hurrengo testutan: “Ezpañak ezti laztantzean / aberaska (panal da miel) baidakar aoan (gero *barnean* hitza idazten du) (B karp. 121), “Yainko -ezti darion iturburuan / bazka al balitez...” (A karp. 147).

idatzia izateko. Seminarioetan apaizgai (eta kaputxino) gazteek hartzen zuten hezkuntza *klasizistak*, noski, badu honetan funtsezko zerikusia¹¹.

“Basoan” poematxoan *joare* (cencerro) hotsa bakearen kontzeptuaz lotzen du, literatura bukoliko baten joera nabariatzen:

Noizean bein urrundik joare-otsa dager,
oinkada luzeak orbelean ots egiten (B kiarp, 141).

Eta, gero, *alboka* musika-tresnaren irudia. Albokariak *artzain-neska* (pastorala)-rekin loturik azaltzen zaizkigu, batzutan:

Alboka-soñuaz elkar dantzai,
Ardi ta beiak albotara larre... (B karp, 155)
Artzain-mutilak albokari trebe,
ongi-etorria dagio lizarpe (A karp, 199)¹².

Eta ondoren *artzain-neskaren* aipua:

—Ots, ba! bere Artzain-neska ederra!
ene amets zuritan sorberria (B karp, 157)
Artzaineska baizait mendian ager;
inoiz ez ikus bera bezin eder (A karp, 198).

Baita *ardien* eta *bakearen* irudi funtsezkoak. “Bakea” *abaroaren* (refugio bajo una arboleda) delakoaz lotzen da, bereziki, euskal artzain-kulturaren. Horren inguruan hurrengoak:

(11) Lehen ahapaldian beste hau: “Nere artaldetako ene bildots- emea, ez joan besten larrertara, agon nerean, / iretzako duken beti belarrrik xamurrena, / iretzat negutean otalore biguñia (azken hau gero *bigunik* eta *gozorik* hitzez aldatzen du) (B karp. 157). Dena den, *otalore* irudiak Euskal Herriko ingurunetik harturikoa dirudi, eta ez, nahitaez, emazimenduko iturrietatik, lore hori nabarmena baita euskal malkar eta mendi-gunetan. *Lizardi-k* ere “otalorea goizko karraxika” irudi bizkorra damaigu.

(12) “Alboka-soñu” deituriko poema ere guztiz bukolikoa da; *larrea*, *abaroa*, eta *ardien bazka* gisakoak bertan. Hemengo Gaztelu poeta Espainia-n garaiko korrontetan idazten zen poesia erdisurrealista, sinbolista eta abangoardikoatik at dabil, euskal poesiaren ereduak oraindik aski tradizionalak zirelako; ondoren zetorken Jon Mirande. Oraindik dio: “Artzain- makilpean ardi guztiak / badu albanitza, beronek zaindu... Narraikan ardiak maiteki zaintzen, / larre gozoetan ditut bazkatzen” (Ibidem, 199).

Ardi zuri ta beiak ere
—belardietan oi! edergarri— (A karp, 144).

Ixil da Bake
bertan mirabe
atsegiñez yardunean... (Ibidem, 145)

Badoaz artalde larrera bidez,
txoriak badabiltz kabigai-lorrez... (Ibidem, 148)¹³.

3.-Elementu mitologikoak

Hemen hari garen elementu *mitologikoak* ez dira Grezia eta Erromakoak (erderazko literatura klasikoetan hainbeste azaltzen direnak), *Euskal herrikoak* baino; euskal mitologiak balioztapen eta atentzio berezia jaso du euskal artista batzuen sorkuntzan, hala-nola, Mendiburu, Oteiza, Txillida eta Sistiaga gisakoen obran. Maiz, indar telurikoen islada gure mitologiaren tradizioetik hurbil eman izan da.

Gaztelu-k ere maitezkoa du, noiz-noiz, gure mitologiaren iturria. Eta, batzutan, mitologia *ura*, *lurra*, eta *ostotsa* gisako lehen elementuen, hots, indar telurikoen, lagunkide da. *Intxixu*, *Akerbeltz*, *Idittu*, adibidez, elementu horien lagunkide azaltzen dira. Lehenik, izadi-indarrak aipatzen ditu:

Ur, lur, su...,
tximist, oztots,
haize, ekaitz,
intziri, oiheu...

Ondoren, poetak pertsonai mitologikoen izenak ahotsez eginiko *taillu* (corte) egokiaz ahozkatzea eskatzen du, eta izen horiek hurrengoak dira:

Idittu, *Intxixu*, *Ehiztari*, *Akerbeltz* (B karp, 225 or).

(13) *Bakearen* ikuspegia, berriro, alde bukoliko ukazinez: "Izar dago ortzia. Gaua nare... / An hemen, multzoka, belardian larre, / —artzaia nun ote? — ardi zuri, gorri" (A karp. 132). Hemen erastekoak lirerate Orixe-ren poesiako pasarte bukolikoak, bereziki, poesia mistikoetan atzematen direnak. Orixe eta Gaztelu-ren iturriak (eta, funtsean Lizardirenak ere) emazimenduan eta Gaztela-ko poesia klasikoan daude, antzinate greko-erromanoa bararekin lotuz. Ikus gure "Sinbolismoa eta eraginak" (Orixe-ren poesia lirikoetan), Donostiako Udako Ikastaroak E.H.U. (1990), 47-94 or.

Dena den, “Olerti” izeneko hamalaukoan edo sonetoan *Diana* greziar jainkosaren aipu garbia. Soneto hori keraz klasikoa da, *geziak*, *urreea*, *errautsak* eta *uztaiak* gisako irudiak ez baitira falta.

Diana-k esku-eragiz uztai alako,
izarren bidastean aztarren edo.

A/A/A/A/ puntu-eskema duen sonetoan egitura *formala* Grezia-ko mitologiaren andanan mamitzen da.

Hurrengoetan, berriro, Gaztelu-k bidaia euskal mitologiaren eskutik dagi, iruditeriak kutsu lizardiano ukaezina duelarik, beti, hari klasizista baten ildotik. “Auñamendi-n ots” izeneko poema klasizistan metaforizazioa eta sinbologia ernazimenduko bidetik dabil, “*argi-oyal*” (cendal de luz), *eguzki-jauregia*, “alboka-soñuaz” (sonido del albocue), “urrezko yauregi” eta antzekoak azaltzen direlarik.

Poema bereko “Aitor-en itune” zatian pasarte hau:

Eguzki-ren sarrera garai-mea.
Argi-oyalez gorri sarkaldea
Ots!, lagunok —giñion bata besteari—
Urrezko yauregi eder oetan noski
Eguzki-k sarrera ta egonaldi (A karp. 117).

Eguzki-k hemen pertsonifikaziozko erabilpena du, poetaren deikarrietan azalduz¹⁴.

Poema, nolabait, Lizardi-ren *Basoa-Itzal* poemaren hurbiletik, euskal mitologia (*Aitor*) aro klasikoko iruditeriarekin elkartuz (*jauregia*, *geriza*, *basauntza*, *atseden-eliza*, etabar...) ¹⁵.

(14) Lizardi-rentzat ere *Eguzki-k* gizaki baten trataera, *Euriak* giltzapetua baitago: “...Goien sar egin baitu / Euri-k Eguzki giltzapean” (Sagar-lore, ahapaldia).

(15) 11A/11A/11A/11A eskema duen ahapaldian adibide hau: “Ametsak amets, baserri-geriza / bai dan eder, atsedeen-eliza; / Endaren maiarri zar, atson-ontzi, / asaba zarren ondorio yori!” (Ibidem, 118). Bestalde, poeta guztietan bezala, izadia edo natura, gauzaki bat baino gehiago, *persona* da (eta Lizardi-ren olerkigintzan ere pertsonifikazioek funtsezko balioa dute), *ura*, *lurra*, *ibaia*, *ortzea* Gaztelu-ren poesian hizketakide, solaskide, deikari dira. Hona adibide bat: “—Ai! Ibai, ibai, / ibai-kondo gordea, / ilargi taloa (kontutan izan metafora honen *orijinaltasuna*) / barnean, zelan ezugu / hire hitz-ixila / jakin behar? (Oihu, 21).

Urtearoak ere mintzo klasiko-mitologiko berean burutzen ditu, poema osoaren airea (lehen etapakoa eta Villoslada-ren *Amaia* irakurri ondorengoa, ikus 122 or.) biziki *ernazentista* gertatzen delarik. Negua, beraz, *ileurdintsua* da, uda *galburuz* jantzia, urria (udazkena) *sagar umoz betea*. Eta denak (hemen, berriro, irudi *ernazentista*), "bare ziyoatzin atari-bidez / urte ta giroak besoz elkarki" (Ibidem, 118).

4.-Naturako sinboloak

Nahizeta poesian gehiena *naturaren* urtegi oparotik jaso poetak, sinbolo batzuk sakonagoak eta funtsezkoagoak dira. Lehendikotasun *teluriko* horrek egiten du, bada, ia poeta guztiak sinbolo berdinetara jotzea; auzia, ordea, sinboloen trataera estetikoan dago. Hemengo sinbolo zenbait (*ura*-rena, adibidez) tratatua izan da; besteek ere, ordea, hau da, *lurra, sua, airea, ilargia, itsasoa, izarrak, eguzkia* delakoek trataera berezia merezi dute. Gaztelu-k bigarren etapan badu tratamendu *teluriko* berezia, bainan teluria hori aski sotila, soingabea da, maiz, aipamen hutsetara (nahizeta emozio estetiko) mugatzen baita. Bere poesiaren alde hau esperatzekoa zen. Gu pasarte batzuen aipamen hutsan geldituko gara.

a) *Airea*:

—Oi! iparraren mea
Illunabarrean,
muñtzen bainau betartean... (A karp, 145)

b) *Haizea*

Hots-tartean haizeak:
Elkar-hizketa soñuak (A karp, 84)

Aize zakar, ots-egille...,
zuaitz-etxeak astinduz,
bazter orotan jabe (A karp, 94)

c) *Lurra*

Hemen
lur
hontan...
nago erroturik
giza-erroak
emanik... (Biziaren erroetan, 15).
Nagon geldi
adi
nere lurraren barna-taupadari,
barrendik
urrundik...
bete-betea datorren doiñuari (Ibidem, 21)¹⁶.

d) *Sua*:

Sua gauean
sua basoan
sua arkaitzetan (harritan)
sua gaiñetan
sua belarrean
sua bihotzetan
sua begietan
sua adatsetan...
Gaur sutan da, inguru dena dirdira:
iratzar (gaiten) mila eskuk bat egin dute begira!
(A karp, 356 b)

e) *Eguzkia*:

Mun egiozute ondartzari
eguzkiaren, ardo beroaren, goitar mezuaren
oiartzuna baitute bearbada... (B karp, 177 b):

Eta lehenago:

(16) Mezu berdinez beherago: "Naagon geldi / adi / arginabarrean / urra-berri den negarra-ri: / nere lurraren barne-taupadari..." (Ibidem).

Jauz buruak itsasoaren argiaren
zorion ikutugabearen osiñera,
eguzki kiskalgarriaren mezulari baitira (Ibidem, 177)

Gauak bere edertasuna
argiari zor, argirik gabe
latz eta beldurgarri litzake (B karp, 217)

f) *Euria*:

Gàroa, aritzak, lanbroa,
ez pentsatzearen
tristura goxoa...
Eta lanbro tartean ibilli,
ibilli, ta ibilli, bai ibilli... (A karp, 100)

g) *Ilargia*:

Ilargiaren trataera gehienak Gaztelu-ren poesian tradizionalak dira, hots, konstatapen fisiko hutsak, bainan, batzutan, Jon Mirande-ren poesian gisa, kera sugestibo eta originalagoaz azaltzen dira:

Ire pausoen neurrian
illargiari jarraian
gainkari...
illargiaren ibillian
jo zak soiñu
egik oi
irrintzi
lurbira-jiran... (C karp, 16)

Hurrengoak Jon Mirande-ren "Igelak" poematxoaren antza dauka, ilargia putzuan isladatzen delarik:

Ai! Illargi, Illargi,
erotu aizena dirudi,
gabez putzuetan
so oi dion buruari,
ibaiondoan igelak
karkaraz zaizkin ari...

ai! Illargi, Illargi,
erotu aizena dirudi,
amandre xar aizenak
obe din bularrak estali... (C karp, 17)

Hemen euskal etnografia (*Ilargi Amandrea* euskal mitologian presente dago) olde poetiko batekin lotzen du, ilargia *bularrak* agirian di-tuelarik azaltzen baita, harako Garcia Lorca-ren “la luna enseña... / sus senos de duro estaño” ere gogoan dugularik, nolabait.

Ondorengoan ere ilargiak trataera moderno eta sugerigarria du; “talo biribil” eta “ontzia” izan daiteke batetik (A karp, 147) “uretara” amildua azaltzen bestetik, uretako islada (reflejo) fisikoa mintzo poeti-koz jantziz:

Illargiak ba du ispillu
bai guri uraren balaku
igelen karaka uretan amil
parregarri zaie talo biribil (B karp, 169)

Ilargiaren trataera hau modernoa da¹⁷. Bestetan, ilargia “protesta-poesiaren” andanan sartzen da, astronautak bertara iritsiaz-gero ilargia-rekiko giza jarrerak aldatu baitira¹⁸.

Gerraoste hurbilean egiten duen “Illargitan” poematxoan Gaztelu-
k beste jarrera poetikoa azaltzen digu, hots, iruditeria klasikoan sartzen
den mintzoa: “Illargiak, odeietan, artzai-neska iduri (hemengo tindu
bukolikoa nabaria da), / izar-bideetan barna / larre artalde zuri” (A
karp, 16). *Artalde zuri* horiek, itxuraz, izar-multzoak dira¹⁹.

Eta *kopla-itxurako* pasarte naturistikoa:

(17) Hona Juan Mirande-ren pasarte berezia, igelak eta uretako (urmahелеko) islada dela-
eta: “Aintziko urerat / ilhargi-laurden bat erori zen, / zuri, jori, / gauko zitu zorhi: / igelek jan du-
te, igeltxo igeldariak” (*Igelak* poema): Cfr. *Luis Maria Mujika, Mirande-ren poesigintza, II alea*
Edit. Kriseilu.

(18) “Illargia? / Illargia ez dik jadan..., (hemen ez du euskal hitzik ematen, gerorako utziz) /
orain lurak illargiari zeramazkiok / esku-erakutsi / goseak illen artiko” (B karp. 197).

(19) Poemaren emaiieran ilargia *zilar-kolorez* eta *biluts* azaltzen da; sinbolizazio fisiko hau
ez da, nahitaez, modernoa: “Geldi dabil illargia, / zillar, billuzi; / goizaldeko bidetan lurrekoei
(gero *lurrentzat* idazten du) kantari” (Ibidem):

Abuztuko ilargi,
ilargi bete;
lotsa orritan dago
laiñotan gordea.
Zenbat ilargi bete
joanak alferrik!
Laiñotan datza lurra
ta urak gorririk... (A karp, 225-226)²⁰.

h) *Izarrak*:

Izarrak bezela multzoka ozkarbi narean... (C karp, 91).
Bare dago gaua, izar-ortzia.
Guziz aundi illargi-ontzia... (A karp, 147).

i) *Itsasoa*:

Barnea jabal, itxasoa
bezelatsu ekaitz ondoren (B karp, 137)

Ugiñak bezela ondarrera
diranean milizka, geldi (Ibidem).

Itsasoa

Itsasoa

zeru ta lurren ahoa

arrantzaleak igan du

gau ta egun lanaroa (B karp, 162 b)²¹.

5.-Irudi begetatiboak

Euskal lirika tradizionalen²² *zuhaitzen* eta *landareen* eremutik sor-
turiko irudi eta aipamen aunitz konstatatzen da, ia gure *flora* gehiena ber-

(20) Hurrengo kasuan *kopletara*, noiz-noiz, joateko duen ohitura nabarmen. "Klabeiñak bota orri daukaz / larrosatxoak amabi / zure berri duanak galdetu bezaia lumari (*daiogun alkarri* erasten du gainean) / gizonak gizonari darraio atzetik" (B karp. 203). Baita ondorengoa: "Zerun eder izarra / errekaldean lizarra / mundu ontako giza-jendeak / alperrik dauka bizarra" (B karp. 172).

(21) "Entzun itsas-olatueta lauazka datorren zaldiketa (-otsa) eta dirdira betizuen (?) begietan / ondardietako berde irintzilaria" (hemen poetak sinistesia egiten du kolore bat *irrintzika* ezarritz" (B karp. 177 b). Eta euskal herri- kanta ezagun baten pasartea profitatuz, irudi hau sortzen du: "Boga / boga / mariñela, / joan bear dugu / urrutira / bai / Indietara, / izarrak sortzen diran / errira" (A karp. 275).

(22) Ikus ere Luis M. Mujika *Euskal lirika tradizionala*, III alea, 513-532 or.

tan isladaturik dagoelarik. Gazteluren olerkietan ere irudi begetatiboek garadura bikaina du, nahizeta ez aipaturiko lirika zaharrea ematen den ugaltasunez. Beraz, *sagarra, intxaurra, frutak, hostoak, tantaiak, zuhaitzak, oteak, lertxunak*, etabar natura erderbera baten adierazpen dira.

Goikoetxea-ren natura hori, noski, Gaztelu herrixkan hasten da. Poetak, bereziki, jaiotetxeko *sagastia* du gogoan. Ikus ditzagun, bada, irudi begetatibo batzuk, olerki pasarteak ekarriz:

a) *Zuhaitzak (arbolak):*

Kantu bakar
herriaren bihotzean
tantaia bezala
basamortu galduan (Gaeuan oihu, 11)

Zugaitza bezela
herria
aziko zera
zugaitza bezela... (C. karp. 82).

Basoa lodi, adarrak zeru-sapaia estaltzen... (A. karp. 111).

Basoak, noski, itzalaren irudia dakar, zuhaitzarteak abaroa eta gordeleku freskoa adierazten baitu. "Zerura-bide" izeneko poema mistikoan ezin falta, bada, gerizaren edo itzalaren aipua:

Nola geldiro, noa gerizpe
ibarretik begiok zakusten
oyan-erdiko aterpera (A. karp. 145).

b) *Loreak eta hostoak:*

Hostoak (eta irudi begetatiboak, orokorki) bai poesia klasizistaren, eta bai poesia modernoaren edo berriztatuaren, edergai gerta daitezke. Gaztelu-k bi alditan darabilzki; natura, noski, aldarte animiko eta estetiko guztitara egokitzen da.

Goikoetxea-k halako sotiltasun filosofikoaz *lorea* (*harria*-ren antzera) ez dela hausten dasaigu, edertasuna bortiztasunari lehenetsiz:

Lorea ez da austen
baiña bai harria
gizaki guzientzat
bai ikasgarria (C. karp. 67)²³

Poematxo hau modernoa ez-ezik, findade sakonekoa da.

Hurrengoan larrosa-ren *tasunak* kantagai, kera soil eta elemental batez:

Halere
oraindik eder zara, larrosa,
zure irudiaren betetasunean
zure mamiaren guritasunean
zure usai onaren mozkortasunean
bai
oraindik eder zara, larrosa,
edertasun irudi panpoxa! (Biziaren erroetan, 38)²⁴

“Hostoa bezela” izeneko poeman hiru aldi aurkezten dizkigu hostoaren egitate naturaletik sorturikoak, *zainak, fruta-emaizak eta uzta*²⁵, haizea eta hotzaren aldartekin eta bizitzaren iturburuekin duen zerikusia nabarmenduz. “Hostoa bezela nahi nuke beldurgaitz izan...” dio poetak. Eta gero:

HOSTOA BEZELA

sortu hazi bizi
biziaren dohaiari ohar eta poztu...

Ibaiari begira nago, ibai-joanari
eta tanto bat naizela zait iduri
adarrean dilinda eskerrak biziari (Ibidem, 39-40)

(23) Kasik gauza bera dio “lorea ez da austen (baña bai arria) / gizonen joera / da larria” dioenean (B karp. 205).

(24) Poema honetan *larrosa*-ren egitatea atomo-bonbari kontraezartzen zaio, bizitza oro bonbak arriskuan ezartzen baitu.

(25) “Zainak luzatu / barrena hustu / naizen hau oro eskeini / bildu dudana oro eman / ezer ez gorde / deus ere ez ukan / eta udazkenean / urre-ondasun bildu”. Emaizta horren goratarrea egiten da, azken prozesuan *uztaren* bozkarioa nabarmenduz.

Hurregoan, berriz, "Bi begi ñabar" poeman ohizkoak ditun irudi-erakuntzak ernazentistak: "Ta betartea zurbil / zitoriz (azucena) egiña edo", "hosto tartean haizeak: / elkar-hizketa soñuak", "oro loretan, betiko Udaberri: / belardi heze, erle-hotsez beteak, giz-oiñek iñoiz malgutuezak" (B. karp. 111-112)

Mintzo klasizista beraz ondorengoak ere: "Txoriak badabiltz kabi-gai-lorrez... / Loretan duzu-sagasti berria! / Azaro yoana egun maitaro. / Gauden emen sagastian abaro" (Zerura-bide, A karp. 148). Mintzo hau mistikoa da, noski, ereduak ernazimendutik datozten oldea dutelarik. Eta gero: "Yesus lore eztei-oea, / sagasti berria iduri zuria... / naiz iratzarri, naiz loaro / maite-sagarra loreago" (Ibidem, 149)

Eta, berriro, poesi-ukipen sotil-modernoaz, galdera sakon baten kolpetxoak, bakea eta ekologia aldarrikatuz:

Zer errurik du loreak
usairik ez emateko?
zer errurik iturriak
kantuz ez egiteko (A karp. 267)

Gizarte anker-armamentistek, dagoeneko, loreak, iturriak eta semeak ematen dituzten ama-sabelak urratu eta desegin dituzte. Gaztelu-k, hemen, poesia "protesta" huts bihurtzen du.

c) *Frutak:*

Mila galburu dardara dira eguzkitara
begi bat
begi bi
bihotz
behatz
esna ta irrika
biziaren arietara... (C karp. 8)²⁶

"Herrian odola" poeman Gaztelu-k koplaz zaharren teknika darabil, batzutan, atari naturistikoari oin edo ondorio tematikoa erantsiz. Hona atari horietako bat:

(26) Hona poematxoari ezartzen dion itzulpen-zatia: "Mil espigas al sol (tiemblan), ("dardara" hitza falta da, gero erantsia) / un ojo / dos ojos / corazón / dedos / despiertos y anhelantes en los hilos de la vida..." (Ibidem).

Baratzeko larrosak
bost orri gorri;
bostak odoletan
zauriz hilgarri.

Hemen, irudi *begetatibo* batez baliaturik, nolabait, *herioa* sugeritzen du.

Arbola-frutadunetan *sagarra* du poetak maitagarriena, *jaiotetxeko* sagastia duelarik baitan. "Oroipen gozoa" izeneko poematxoan, erbestera doanean, etxeko sagastia du bizirik gogoan. Hona *hautzaroko* sagastiaren oroipena:

Etxe-bazterreko sagasti zar,
sagar gorritz beteá;
ire gerizpean nuen eder
igaro aurtzaroa... (A karp. 17)

6.-Hegaztiak eta animaliak

Aipamen huts gisa, bederen, komeni da aztertzea Gaztelu-k poesian darabilen hegazti eta animalia mundua. Hegaztietan lotura bat gure lirika zaharreko hegalariekin, halanola, *belea*, *usoa*, *basoilarra*, *enara*, *txoria*, *urretxindorra*-rekin (ez hainbeste, ordea, *garastarroarekin*, oro-péndola). Animalietan berriz, aipatuenak *ardiak*, *behiak*, *idiak*. Poesia bukolikoetan esperatzekoa zen ardien presentzia. Lehen etapaldian Gaztelu-rengan *bukolismoa* ukaezina da, eta topiko-keru bat ere dauka aurretiko ildoak aztertuz-gero.

a) Hegaztiak:

Beleak bele
usoak uso
eta nere herrian
itsu hainbat lauso (Gaeon oihu, 28)
Gose-egarri anima
aize-kaskoetan zintzilik
ez txorimalo
txatar (apeu)
paseko txoriei deika (C karp. 64)

Uso zuria bezin zailu,
bi egalez airean
itsasganka oan aiduru... (B karp. 125)

Orain, hegazti harrapalari-iguingarrienak aipakizun, gaitzaren adierazgarri:

Gizon bidetan pizti tzarren atzaparrak
jabetu dira
erroi, putre, bele zikiñak dute orain
betekada,
karraxiz, karrankaz betetzen dituzte
bazterrak...
erotu behar... salbabiderik ba al da? (B karp. 179).

Segovia gitar-jole sonatuaren soinua entzuterakoan musikak ur gaineko enararen irudia dakarkio: “Beti samur eta biguñ / artzen egoa; / ur-axalean ainara bezela / badoa iltzera ozen” (A karp. 41).

Eta Gaztelu-k egiten duen *lehenengoetako* olerki batean (eta kera guztiz *tradizional* batez) garaztarroaren (oropéndolaren) irudia:

Ibai —gañeko zumar— adarran
zintzilik jartzen du
garastarroak kabia (A karp. 1)²⁷

b) *Animaliak*:

Ardiak dira gehien azaltzen diren animali-abereak. Kera *bukolikoa* dutenetan derriorrezkoa egiten da haien aipua. Gaztelu-k Euskal Herriko baserri-giroa isladatzen digu, funtsean, *lehen* etapaldiko olerkietan. Mundu hori, noski, jaiotetxetik zekarrena zen, eta biziki errotua geldi-

(27) “Txoriek kantuz lillura dutena / bera eskerronez eman ohi da / den dena” (hemen *hosiota*-ren emaitzaz ari zaigu poeta) (C karp. 83). Eta orain *urretxindorra* eta *zozoa*: “*Erreka artean zozoari ala illargitan urretxindorrari / ikasi bezela / esanen...*” (B karp. 293). *Basoilarra* gero: “*Ta basoilarrak argi-xinta ezta / asi baño len, betegin- saria / bilduko dugu maitasunean*” (A karp. 147). Eta “*Txori illa*” poeman (kera lizardiano eta *tradizional* batez) dio: “*Zer dakuszu or aurrean / orixka iduria, / azpi gizenean eroria? / Txorino bat ilberria*” (A karp. 52). Hemen ere *itzala* “*baso zarraren alaba leyala*” da. (Lizardi-k diotenaren hurbiletik).

tuko da bere sorkuntza poetikoan. Badakigu, bestalde, maiz, artzain ere ibili zela aitonaarekin Larte mendian.

Hona animaliez adibide zenbait. "Orma Kontra" poema moder-
noan animaliak deituak dira jauzi eta sorgin-dantza egitera:

Jauzi adi
idi
zaldi
artz
otso
orkatz
asto
azti nauk
artean atzeman aut.... (C karp. 56)

Irun-go pintore baten koadroa ikusiaz, hau dio *zaldi* batez:

"ZALDI ankaluze / ibaiondoan duzute / bazkategi / ibaiondoan. /
Isatsa arro / belarrik tente / zuri ta arre / berdean berde / ibaiondoan la-
rre" (B karp. 296).

Orein-aren irudia, berriz, esperatzekoa zenez, ikuspegi ernazentis-
ta batean kokatzen du:

Egoak eten iraduz
ta oreiñari daragion urmiñak
bizi-iturrira bultza gogor (A karp. 144).

Esan dugunez, *ardia* da Goikoetxea-ren olerki-munduan oparoen
azaltzen den animalia. Ardia da bere barneko aldarte- mistiko eta bukoli-
koen lekuko; beraz, jaiotxetik zekarren mundu baketsuaren erdua:

Nere artaldeko ene bildotsemea,
ez joan besten larretara, egon nerean.
Iretzat duken beti belarrik xamurrena,
iretzat neguetan otalore biguñia (B karp. 39).

Eta oiartzun bukolikoa duen beste pasarte batean:

Ots, ba! nere Artzain-neska ederra!
ene amets zuritan sorberria.

Oan, gero! ta ik malgotu belarra
usaionez betor, bai, ugaria... (B karp. 157)²⁸.

“Herrian odola” poema (*kopla zaharren aireaz, nolabait, atonduan*) bildotsa otsoen hortzetan aurkeztuz *ekologiazko* errebindikazioa dagi, bitxiki:

Artaldeko bildotsak
otsoen hortzetan;
ur zikinduen kulpa
zuzenen kaltetan (Akarp. 225).

7.-Irudi sentsualak

Gaztelu-ren poesian irudi *sentsualek* badute gunea aparta, agian, espe-ro zitekeena baino joriagoa. Alde batetik, Orixe ta Lizardi-ren kerazkoa du, irudi klasiko eta arrazonaletan emana (poesia modernoaren muga, be-reziki, metafora *irrazionalaren* bortiztasunean baidatza). Aro horretako sentsualitatea hertsia, eta, nolabait, ezkutuko moralismo batez frenaturi-koa da. Emakumearen aipua enfatikoa izan daiteke, bainan inoiz ez biziki sentsuala. Orixe-rengan ere lotsa “moralizante” bera nabari.

Beste aro batean, ordea, Gaztelu-ren mintzoa libreagoa, solteagoa, naturalagoa egiten da. Adibidez, Argentina-n dagoen aldiko poesietako *Gladixe* anderekiaren aipamena.

Lehen aroko artzain-neska, noski, kutsu bukolikoa duen horieta-koa da. 1945 urtean eginikoan *ilargia* artzan- neskatzat hartzen du:

ILLARGIAK, odeietan,
artzai-neska iduri:
izar-zabaldian barna
larre artalde zuri (A karp. 16).

(28) Ildo berekoak, gaiari eta kerari dagokionez, hurrengoak: “Erdiragarri dun gauetz ire janba xamur, / ardiak ausnarrean lo gozo daudelarik. / Ez al abil pozik nere ardien artean?” (B karp. 271). “Artzaineska (pastorela) baizait mendian ager; / iñoiz ez ikusi bera bezain eder. / Be-gia du ñabar, xangoak gorri, / soñeko berde, gerruntza zuri” (A karp. 198).

Neskatxaren deskribapena ("Erriko Neska" poeman ere) iruditeria klasiko baten andanan koka daiteke: begiak *mahatsale* iduri, haizea neska *laztanka*, jantziak *basalilien* usainez, lepo *urrezkoa*. Dekorazio guzti hau *ernazentista* da, noski.

Mats ale bi iduri dute bi begiak,
begiraka gu mozkortzeko jarriak...

Ederrik jantzita sorleku kolorez,
illea naro lepo zurian urrez (A karp. 62 or.)

Gaztelu poeta, ordea, irudi *sentsual* hauetako batzuk eraikitzean Euskara-damaz (neskaz) ari zaigu (berriro transposizioa neskatxa zehatz baten deskriptiotik eginez). Elizgizon gisa, Gaztelu-k mugak eta hesiak zituen²⁹.

"Maitea beltxaran" poemak ere "Erriko Neska" olerkiaren tankera bera du. Iruditeria, funtsean, tradizio ernazentistakoa da. Hona irudi batzuk: "Gerezi ezpain gorriak", "illea beltzago / burutik dario", "bi uso bularretara lo" (Bibliak *Kantuen kanta* liburuan "tus senos dos cervatillos mellizos de gacela" dio), "españak ezti lantantzean / aberaska baidakar aoan". Galtzarbeak ere "kabiak" dira. Iruditeria hau ernazimenduan Europa-ko beste poesian ere atzemangarri. Gure ustez, Lizardi-k ere iturri berdinak zituen edangarri, neurri batean, amodiozko pasarte hornituenetan.

Yantzia urdiñ;
beso-zangoak billuzi;
gerria lirainñ.
bi uso bularretara lo;
kabi bi besatxoko (A karp. 92).

(29) "Iturrira Bide" olerkiak herri askotako tradizioan dagoen "iturriaren" tematikaz eginko amodiozko solasa eraikitzen du. Kasu honetan neskatxa Edurne da. Amodiozko olerki hau aski arrunta da (nahizeta sotilla izan), "Maritxu nora zoaz" kantua or dagoelarik. Ezaguna da koadroa ("Sulla buruan artuta, / iturrira bide, / biotzean pozkario, / dijoa Edurne" (A karp. 95). Vietnamgo gerratea oroituz, "Maitea billus" delakoa idazterakoan Gaztelu ez dabil koadro sentsual bat eraikitzen, sufrimenduzko konstatapen hutsa egiten baino (A karp. 266). 1971 urtean idatziriko poema batean, ordea, Venus eta Afrodita aipatzen ditu ("Semilla de héroes / de la tierra prometida / que mana leche y miel / Venus / y Afrodita" (A karp. 374).

Iruditeria hau ez da poesia modernoan ematen den bezain limuri eta morbosoa, irudiak aski igatuak, gastatuak daudelakoz. Azken finean, imajinek emakumearen somarekin lotura fisiko gehiegi dute, eta ez dira beste poeta modernoetan ematen diren bezain ausart eta suge-renteak.

Aldiz, hurrengo poeman aipamen somatikoak *sentsualagoak* dira, zuzenagoak gertatzen direlako:

(Zure) begiak
(zure) larrua
(zure) gona motzak
izter-mamiak
ederra dituzu
baina naiago dut
zure barne-antzen
berri jakin... (C karp. 94).

Poema hau ez da, propioki, erotikoa, deskribapen fisikotik haruntz beste zerbait (neskaren barne animikoa) hatzeman nahi duena baino; ala ere, mintzoa bera sentsuala bihurtzen da³⁰.

Poema esperientzia baten islada, ala amodiozko idealizazio hutsa, izan daiteke. Euskarazko olerkietan Gladys delakoa *maitale* eta *begiño* hitzez ordezkaturia dago. Gure ustetan, *Gladys* olerki originala *gatzelaniatzkoa* da, eta euskarazko haren egokidura "laburra" baino ez.

Bigarren etapaldiko poesietan aipamen sentsualak ez dira ugariak, baina bai zuzenak. Dena den, lehen etapan ere baditu halako keru solte eta freskoak, adibidez, *Illargia* neska gazte gisa (hitzeekin jokua eginez) tratatzean ("Ai! Illargi, Illargi... / erotu aizena dirudi. / Lenago bikini bi. / Orain bikini bat. / Lotsarik baldin baden / oa emendit at" (C karp. 17). Ez ahaz ilargia *emakume* gisa kontzeptuatzeara ohizkoa dela. García Lorca-k "La luna enseña, lúbrica y pura, sus senos de duro estaño" (Romancero gitano) zioen; Gatzelu-k, ilargiaren emetasun sinbolikoa profitatuz, pasarte sentsuala baino gehiago, poesi-joku bitxi eta irrazional bat egin nahi izan duela dirudi, puntu edo errima egokia bilatuz.

(30) Bizitzak, ideiatzerakoan, neska baten tankera damaio: "Izterrak zabal / ile ostrail ugarria bizkarrean / sabela guri / ezpainak gorri / betartea izarrez argi" (B karp. 220).

Hurrengoan, ordea, maitalearen mintzoa, xarmanta, arina bihurtzen da. "Dantza-Dei" izeneko poema xorakorra da. Poema ez da hain sentsuala, baina bai sotila eta txundigarria, eta erritmo arinezkoa musikalitatearen aldetik. 6/5/5a, 6/5/5a formulazko egitura dauka, puntu bigarren bost-silabakoan ematen delarik. Lehen erredakzioan Gaztelu-k "Zurekin, Gladixe" dio; hurrengo bi erredakzioetan, berriz, *Gladixe* izena borratu eta "begiño (80 orrian) "maitale" (82 or.) eta epitetoak idazten ditu. Olerkariak emakume horren izena ezkutatu nahi izan ote digu? Poema guztia -ari puntu gozoaz harilkatzen da:

Zurekin Gladixe,
dantzan nai nuke
ari ta ari,
besoak gerrira,
bira ta bira,
oñak jauzkari,
doñuz bilduta,
biotz-taupada
alkar usnari,
besterik ez gura
ez ere ardura,
irribarrari,
ilargi-diztira
gure begira
kliska dirdari,
gau ixilean
aize begian
biotza kantari... (A karp. 79).

Zein eder, apal eta sugerikorra "besterik ez gura / ez ere ardura" delako hori, amodiozko poesia mistiko-sentsulen andanan³¹.

(31) Gaztelaniaz *Gladys* deituriko emaztekiari eskaintzen dion poeman pasarte sugerigarri eta sentsual hauek: "... Y era el parque solitario / do nos besamos por primera vez, / y era la noche tibia de otoño en tu lecho perfumado de pasión / bajo el signo de una estrella / aquella / que nuestro amor alumbra... Y hoy es el T.A.V. y la señal muda de niveo papel / entre las rejas en penumbra. / En nuestro amor, Gladis, / eterno y cambiante como bruñido diamante / que el sol tornasola... / y son tus ojos negros / de hondo mirar / bajo tu pelo de azabache, / es tu boca que sabe a miel / y tu lengua que al besar / conmueve todo mi ser, /eres tú, Gladys, a toda hora, a cada instante, en la aurora / a los sonos de la campana / o cuando Venus rutila / en el cielo del atardecer / testigo de nuestro querer" (azken hau erdi-borratua dauka) (B karp. 108-109).

8.-Somatikoak

Deskribapen somatikoak, noski, goiko irudi sentsualekin erlazioan daude. Guk sail honetan ez dugu aipamen somatiko batzuen aurkezpen soila baino eginen. Gehienetan, somatismo hau iruditeria klasiko baten mendean dago, bigarren etapako poema soltetan ezik. Aipaturiko “Bi begi ñabar” poeman isladatzen den somatismoa, nolabait, ernazimendukoa da. Begia *ukipen* edo “tacto” leun gisa interpretatzea, beraz, klasikoa da:

Bi begi ñabar gaur nigana
hegal ukitze leuna bezela! (B karp. 111).

Gero ile-adats *urrezkoaz* (cabello de oro) ari da, eta, baita, betarte zitorizkoaz (de lirio) mintzo. Biak irudi klasikoak dira.

Ille-adatsa du aberats
erdi urre, erdi beltz,
bekoki gainean harro,
ta betartea zurbil
zitoriz egiña-edo (Ibidem).

Iduriteria somatiko ñabar eta ernazentista bera ezpainak “aberas-ka” (panal de miel) gisa eskaintzean, eta betartea “loretegi” antzo. Begiak ere *izarrak* (estrellas) dira. Hortzak, aldiz, “artaburu aletan” (como panojas desgranadas) gisa ideiatzean hurbileko jauzia egin du, ausaz, euskal baserri giroko irudi bitxi bat emanaz.

Betar-tean (bereziki)
(irribarrez) loretegi,
illetartean argidiri.
Begiak itxi ezker,
izarrak itzaltzen oro (B karp.121).

“Iturrira bide” poemak iruditeria apalagoa du. Deskribapen soti-lean gelditzen da:

Ain eder ditu besoak,
gerria ain mee;
ain arin zango gorriak
oiñ biak ain xee! (A karp. 95).

Gaztelu-k eskaintzen digun somatismoa, bada, tenore zaharrekoa da, gehienbat, eta, noiz-noiz, halako tentu mistiko batez ukituta; XVI mendeko mintzoa ere isladagarri:

Aberaska, beterik, zure ziria,
ardojario gozoaz mozkor.
Gauden hemen, ene kutun hori,
laztan bero batez loturik (A karp. 85).

Mintzo poetiko hau poeta mistikoen amodiozko irakurketa batetik sorturikoa dela ezin ukatu.

9.-Urtearoak

Urtearoen trataera euskal poesia kultuan aski *bizia* da, eta, bereziki, XX mendean gerraurrean emaniko olerkigintzan. Lizardi dugu eredurik nabarientatekoa.

Gaztelu-ren poesigintzan trataera hori, batez ere, lehen etapaldikoa da, gerora poeta ezkor, hurbil eta arazo existentzialetara (eta, noiz-noiz filosofiko eta intelektualetara) makurtuagoa azaltzen delarik. Espazialismoa ikusterakoan "Udazken" poema biñeta huts gisa azaltzen zaigu, bertsoen atonketa espazial bereziaz. Biñeta hori, formaz eta funtsez, modernoa da. Hurrengoak ez, ordea. Hona irudi klasizistetan bildutako urtearoen koadroa:

Bare ziyoatzin atari-bidez
urte ta giroak besoz elkarki:
ile-urdirin Negu, Udaberri lorez,
galburuz Uda, sagar umoa Urri (A karp. 118).

Urtearo bakoitzak bere zehaztapen naturistikoa du, eta ez, derriorez, ernazimendukoa (jaioterrian gure poetak sentituriko urtesasoinak ere antzekoak zirelako). Ahapaldia, ordea, irudi klasikoz eta ernazentistaz hornitzen da, eta poema osoak aire klasizista du, dudarik gabe.

"Zerura bide" olerki mistikoan ere iruditeria klasiko bera (bukolisismoa ahaztu gabe). Bertan udaberria, uda eta urriaren (udazkenaren) aipua:

Urrun dugu, bide udaberria
ta eguzki-galdatan gorrien gatza (A karp. 149).

Maitea! zigor ontaz ¿noiz aterpe?
Betor usu Urriaro-betea
igali gozoz beterik etxea (Ibidem).

Poema horretan azaltzen den urtearoen koadroa *eraztun, ezteigardia, matsondo, alboka-soinu* eta *ardo-esne* elementuez nahastekaturik agertzen da.

Lizardi-k ere ondotik profiritatu zituen urtearoen irudiak. Bestalde, urtesasoen deskribapen fisiko bera:

Ura dario emaro,
(eta) txoriek ari dut
txinta eztia garbirik (A karp. 84)³².

“Bi begi ñabar” poemak *ille adatsa, hegal-ukitze* leuna, aizearen “elkar-hizketa soñuak”, “aberaska (panal) beterik gure zoria” dakartza. Iruditeria hau, klasikoa ez-zezik, *lizardianoa* da.

Urtearoen koadrorik sintetiko eta ederrena, agian, “Il nadinean” poema garaia, olerkariak bere heriotzaren oroitapenetan eginikoa dugu; *Larte* mendiaren magalean ehortzita (lurperatuta) Joan Inazio Goikoe-txea-k bere gorpua urtearoen lagunkide izatea eskatzen du. Hona testua sinbolismo klasiko baten iruditeriaz:

Jai dagitela arro eta gazte ondoan inguru
ta par —algaraz ardo— zagiak bear dira ustu...

Aldiro aldiro belar onduaren usai naro:
berean bere, udeberri, udagoi, urriaro... (A karp. 4).

Gure poeta existentzialistak heriotze-ondokoaren koadrorik gozo eta alaitsuenatakoa (sorpresiboenetakoa) eskaintzen digu hemen.

(32) Eta aurretiko ahapaldian udaberriaren estampa: “Oro lore an betiko Udaberri: / belardi heze, erle-hotsez beteak, / giz-oiñek oñioiz malgutuezak...” (Ibidem).

Esan beharrik ez dago poeta batentzat naturan ematen den aldaketarik nagusienetakoa urtearoen *zikloa* dela, eta hori da, zehazki, gure olerkariak isladatzen diguna.

10.-Iturria, Ura, jarioa

Iturria, ura eta *jarioaren* inguruko irudiak eta motibu literarioak ere maiz azaltzen dira, batez ere, Gaztelu- ren lehen olerkigintzan. *Ura*, bestalde, lurra eta eguzkiarekin batera, elementu *teluriko* gisa abordatzen da, batez ere, poesi kontzeptualetan.

Iturria aski erabilia izan da, euskeraren eremutik aparte ere, bai literatura klasikoan eta bai modernoan. Garcilaso-ren iturriaren edo uraren trataerak eta A. Machado-renak, noski, ez dira berdinak. Garcilaso-ren iruditeria motibazio mitologikoz horniturik egon daiteke; Machado-rena, aldiz, egoera *animiko* sotil baten testigu da. Gaztelurengan bi moietako trataerak dauzkagu, lehen tipologiakoak, dena den, nagusi direlarik. Ikus ditzagun testu batzuk.

a) *Ura (ibaia, erreka).*

Ura-ren irudipean bai *ibaia*, eta bai *erreka* doaz, sarritan. “Zerura bide” poema mistikoan *ibaiaren* tratamendu zuzena, literatura klasikoan edo ernazentistan duen trataeraz.

Ta basotik at, ibar-urrunean,
eguzkitara dizdiz zegin
ur-yauzi gardena nabari.
Oi! ikusmenaren zoragarri! (A karp. 144).

Hemen Garcilaso-gandik hedatzen den poesi-moeta amodiozkoa, gerora, mistikaren arloan, San Joan Gurutzekoa-k biziki eta sotilki harrotu duena. Orixe-k ere antzeko trataera ematen dio urari poesia mistikoetan³³.

(33) Hona Orixe-ren pasarte batzuk. “Alboan ur-txurrustari ematen diot giltza” (Getsemani, 5-gn zatia, II, 1), “Ez xurrustaren soñua baratzen bezain legun” (Getsemani, 2-gn. zatia, VIII 2), “Orexain erreka / xurru xurru beian” (Itz eta mintzo, X, 3-4).

Larte mendiko haitzuloa oroitzen duen poeman *erreka*-k trataera sotila.

Gaztelu-n sorkizunak oroitu nahi ditu. Urak eta lurak baitara ekariz “sortu nintzan beraietan / azi / bizi / beraien urina / edoski” dio; *erreka* da, nolabait, egitate horren lekuko.

Ez galde nola
ez dio axola
aizeak ba daki
erreka bazterretan zozoak
dio kantari
eta urak ibilian
esan ohi dio belarrira
gauari... (A karp. 260).

Poema berean, gainera, aitonari entzuniko euskal esaera zahar bat jasotzen digu: “Ohar akio / biziari / badukek haatik / zer ikasi”. “*Bizi-ale*” deituriko poematxoa, bada, olerkariaren autobiografi ataltxo bat da.

“Nere naia” poeman (1932 urtean eginikoan), berriro, ura eta ibaiaren trataera klasikoa, poemaren iruditerian, ibaia ez-ezik, *garastar-roa* (oropéndola), *haize* kulunkaria, *habiak*, *enarak* eta *zumarrak* azaltzen baitira:

Ibai-ertzez-ertz nabillen bitartean
doakizu gaur nere nai bizia:
enarak artzen dun ur tantoa,
ipar-aizeak urrun daraman
zuaizt-ostoa.

“Berde ur” deituriko poematxoan oihartzun arin eta modernoagoak, bertan erritmoa (eta espazialismoa ere), nolabait, zaintzen delarik, *ur/lur/susmur/samur/zintzur/bihur* gisakoekin puntu gozoa mamituz, nahizeta neurririk ez gorde. Olerkiak existentziaren *ixurkortasuna* adierazi bide du erritmoaren aldetik, behintzat.

Ez jakin ur
ala lur
zaidan bihur
burua
dena susmur
eta samur
gelditu zait zintzur
lotua... (C karp. 6).

b) *Erion jarioa*

Erion aditzaz sorturiko irudi asko gure olerkariarengan. Testu-
guru literalean eta sinbolikoan egon daiteke aditza, baina ez, nahi-
taez, trataera klasiko batez, olerki modernoetan ere erraz topa
baidaiteke. Existentiaren aldaratee loturiko poematxo batean (“Ur...
Ibai...”) “Larru xulo orotatik bizia jario” diotsa, eta, hainbestetan be-
zala, gaztelaniar itzulpena ematerakoan “manándome la vida por to-
dos los poros” erasten du, eta gero: “Alkar-izanaz blai / huts betegiña
(gero “hala bete” hitzez aldatzen du) / argiz / illunez / durundiz / ixi-
llez”. Eta gaztelaniaz: “Embebido de mutua realidad / vacío lleno / de
luz de sombra / de ecos de silencios” (bai euskaraz, eta bai gaztela-
niaz, mintzo zuzenagoa egitearren *koma* guztiak kentzen ditu). Honela
amaitzen da olerki existenzial hau:

Mundu bat naiz
antz-mundu bizi bat
betiko ausnarrean
nigan darion
ur aldakor
ur...
ibai... (C karp. 51)³⁴.

Baita “Goizaldea zan / iturriari / ur jarioa / zerion...” (C karp. 80).
Berdin hurrengoan: “Ur-jarioaren susmur ixuria barnera iragaziz” (C

(34) Itzulpenean honela dator: “Soy un mundo / un mundo de formas vivo, / en perenne ru-
mia / onda cambiante / que fluye en mí / onda... río...” (Ibidem).

karp. 100)³⁵. Eta, oraindik, “Ura dario emaro” (A karp. 84), “Sumurjario iturri, durundiz ibai” (A karp. 132). Lizardi olerkaria gogoratuz, antzeko trataera hurrengoan:

Zurean berriro —luzaroz ixil egona—
erne zait urbegi oparo dariona.
Etzan ez agor, nerenek oar ez oar,
aopean ari zan goiz ala iñular (A karp. 235).

Bai polita uraren edo urbegiaren (manantial) irudiaz “aopean ari zan goiz ala iñular” delakoa. Hemen *poesiaz* ari da, noski, poesia *damaz*. Lehenago “zure neurtitz zaarren arribizi / eder zaio ederrak minber naun oni” esan du. Baita —espresaera lizardianoz— “amets egin dut nigan iturburu / dariola argidirian leñuru” (Ibidem).

Antzeko iruditeria klasizistaz “Ele ama” poema sendoan (hots, euskara amari eginikoan) irudi eder hau:

Aur-etik ilobiraino
ezti dario aotik ao (B karp. 2).

Euskara da, beraz, olerkariarentzat hizkuntzarik *gozoena*, bizi osoan zehar³⁶. Berdin “poz-jariozko urbegi Aberrian” (manatial de alegría manante de la patria) dionean.

Segovia gitarra-jotzaile famatuari eskainitako olerkian *erion* aditzak hain ohizkoa ez duen erabilpen literario sotila jasotzen du. Gitarraren musika-haria, *likidoa* antzo eskaintzen zaigu. Olerkariak, lehenetan, *daragio* (lo mueve, lo actúa) aditza idazten du, gerora, ordea, *badario* aldatzen du (eta Gaztelu poemen etengabeko zuzentzaile eta aldatzailea zen!). Poema biziki polita gertatzen da sotiltasun arinez:

(35) “*Erriko neska*” poeman (literaturan sartu ohi diren topikoez *euskara* goresten duelarik) “illea naro lepo zurian urrez” irudi ernazentista damaigu; hemen “dario” aditza (*se derrama su cabellera de oro* gaztelerez edukirik) esperatzekoa zen literatura-moeta horretan.

(36) Poeman zehar Gaztelu-k erabiltzen duen *lexiko* aberastasunaren adierazgarri *gandola* (vaso), *urbegi* (manantial), *gantzulari* (embalsamador) hitzak azaltzen dira. Poetak, badaezpada, itzulpenak ematen ditu orri-ohinetan, maiz.

Entzun dizut, Segovia,
gitarra-soñu latz-guria.
Zillar-urrezko ari mêtetan or,
sorgin-betaz ukitzez sor,
eta biotzak ar bozkario.
arin edo geldi badario
naiz argi naiz illun,
beti samur eta biguñ
artzen egoa... (A karp. 41).

c) *Iturria*

Iturria-ren trataerak ere hedadura handia du, bai esanahi fisikoan, eta bai esanahi sinbolikoan. Irudietan kera klasikoa dutenak nagusi, noiz-noiz, *ura*-rekin batera, iturria *iragankortasunaren* sinbolo izan daitekeelarik. Horietako bat genduke hurrengoa, nolabait, keru *machadianoa* duen poema. Itsasoa, beraz, ur isurkorraren *bilgoa* da.

Ura badoa
arin edo geldi pausoa
joan da joan
an du bilgoa
eziñ egona den itsasoa
biribil;
seaska hortan har baleza loa... (C karp. 9).

Poema eder-existentziala, bizitzaren ez-tinkotasunari, urduritasunari (*iturria* eta *uraren* pean sinbolizaturik) deskantsua edo atsedena (itsasoaren irudia *sehaska* bailitzan) bilatu nahiaz.

Gaztelu-k Azpe-ko iturriaren aipua egiten digu, nolabait, autobiografikoa delarik. *Bertsolarien* teknikaz, eta zortziko txikian (7/6a/7/6a), eginiko "Nire meza berrian amari" olerkian damaigu.

Azpe-ko iturria
beti dariolari,
ur preskua eskeintzen
egarri danari (A karp. 130).

Iturri zehatz-fisiko horretatik “Zerura bide” poema luzean beste iturri *sinbolizatu* batera igarotzen da, literatura ernazentista eta mistikoan bilduriko iturrira:

Egoak eten iraduz,
ta oraiñari daragion urmiñak
Bizi-iturrira bultza gogor (A karp. 144)

Oraindik beste bi aipamen poema berean: “Yainko-ezti darion iturburuan / bazka al balidez...” (Ibidem 145), “Enegan bai baitut errial-iturri / barne urbegiaren gañezkari” (Ibidem 148).

Beste jarrera existentzial eta ekologista batez, iturriak ez kantatzeko zein *erru* duen galdetzen du. Olerkariak galdera horren bitartez *protesta*, egin nahi du (poesia *sozialaren* andanatik) ekologia-eza salatuz. Loreak eta errekek inbokatzen ditu:

Zer errurik du loreak
usairik ez emateko
zer errurik iturriak
kantuz ez egiteko? (A karp. 267).

Lehen *Azpeko* iturria oroitzen bazuen, orain jaiotetxekoa dakar gogora. *Bordatxuri* jaiotetxeko sagastia eta iturria birgogoratzen ditu poetak. Iturria, orain, agorturik dago: “Bidegin dut errira / jaitetxe-atarira / baserri ondoko / sagastira. / An len zerion iturrira / egarri / ur billa / bañan, ai! agor, / illa / zegon iturria” (A karp. 269). Lehendabiziko inpresio mingots honen ondoren, ordea, itxaropen-zirritzu gisa, Gaztelu *Bordatxuri*-ko iturriak oraindik “ur-xirripatxo” bat dariola ohartzen da: “Baña berriro / ur-xirripa-ari (gero *berri* hitzaz aldatzen du) / nere aora / eztarrira / zerion garbi” (Ibidem)³⁷. Horrela, *etsipena* eta *itxaropenaren* arteko dialektika eraikatzen du, bizitzaren aldarte oposatuak etengabeko gertakizun bezala aurkeztuz.

(37) *Iturria, noski, maitaleen bilgune edo ikuspuntu da, beste literaturetan ere ezaguna denez. “Iturrira bide” deituriko poeman, bada, “Maritxu nora zoaz” kantaren argudio bera. Horren ispilu da lehen ahapaldia (zortziko txikian, 8/6a/8/6a eskemaz): “Sulla buruan artuta / iturrira bide, / biotzen pozkario, / dijoa Edurne” (A karp. 124). Euskal aberria atzerrian (Argentina- n) gogoan duelarik ere “biotza sorburu” eta “begiak iturri” dio (lehenago “ibaika darorkit begitik negarra ibai antzo sor zait abesmiña” adieraziz (A karp. 19).*

11.-Konparaketak

Konparaketak ohizko baliabidea dira literaturan, eta, normalean, metaforak baino ulergarriagoak, erkatutako muturrak *bezala*, *antzo*, *antzeko*, *gisako* elementuez loturik aurkitzen baitira. Gaztelu-ren obran konparaketak ugariak dira, bai lehen etapaldian, eta bai bigarren-goan. Ondoren adibide zenbait.

Lehen etapaldian:

Jesus: lore dugu eztei-oea
sagasti berria iduri zuria (Zerura bide, A karp. 149).
Illazkina yarri-ta basoa,
itxaso bat iduri zillarrezkoa (Ibidem, 147).

Bietan *iduri* (*irudi*-ren formula metatesiduna) Lizardi-k hainbestetan erabilia; hemen bi konparaketak kutsu eta iruditeria klasizista batean ahokatuta. Lehenengoan, gainera, "sagastiberri *iduri*" delakoak kutsu lizardianoa du³⁸.

Bigarren etapaldian konparaketaren muturretan elementu solte eta originalagoak; honela, "herriaren bihotza" tantai batekin, gizon noraga-beak "ontziarekin", eta hostoaren irudia giza existentziaren egiarekin erkatzen ditu.

*Gae*an *oihu* poeman, *ontziaren* irudia profitatuz, dio:

Otanik gabe
gabilza gizonok...,
norakorik gabe
ontzia bezala
jitoan (Ibidem, 21)

Hostoaren irudia hiru edo lau egoera existentzialei atxikia aurkezten zaigu:

Hostoa bezela
sortu hazi bizi
biziaren dohaiari ohar eta poztu...

(38) Hona Lizardi-ren pasarte batzuk: "Ertz-ezin zauria / odolezko iduri", "Odol eri batek ezetua iduri", "Nekazari gizandi bat iduri", "Zerraldo-olen artetik / (negu-gaua iduri)" Cfr. Luis M. Mujika. Lizardiren lirika bideak, II, 111 ond.

Hostoak bezala
haize-erantsiak astindu arren
beroak kiskali...

Hostoak bezala nahi nuke beldurgaitz izan
haizetan ardura gabe... (Biziaren erroetan, 39).

Zuhaitza du, bestalde, *Gaztelu*-k irudi erosoan herriaren hazkuntza (*jan-edan, ase, jeikitze* beharretan) adierazteko konparaketa-muturra:

Zugaitza bezala
herria
aziko zera
zugaitza bezela
azkurria
eguzkia
aizea
euria
gozatuko duzu ("Zugaitza bezala" C karp., 82)

Letrak ere poetaren irudimenean hosto eta izarren gisako dira, ugaltasun ez-zertuan. Gero, izkien zehaztapenak, margo-aipamenak eta antitesiak eskaintzen dizkigu ("ebakiera latz ala biguñez, gogor ala beratzez"). Hona konparaketa:

Izarrak bezala multzoka ozkarbi narean
barrendik zorna ezea dabilkie bizigarri
axal mehe guria dizdiz gaindik ("Letrak" C karp., 91).

Hemen konparaketa, poetikoki, ingurune botaniko baten pasartean sartzen da, hain hotz eta informal diren letrek "zornea" (savia) bailuteen barrendik.

Globalki hartuta, poesia bukolikoetan konparaketen hariak iruditeria klasikoarekin lotzen dira, *ortze* (firmamento), *eguzki*, *zugatz*, gisako elemenduen bitartez; bigarren etapaldian, ordea, nahizeta, batzutan, antzeko iruditeriaz baliatu, egoera animiko *existentzialagoak* isladatzeko eta ispilutzeko erabiliko ditu.

12.-Errepikak

Errepiken eginkizuna, teknika nemoteknikoaz aparte, multzo poetikoari halako bortiztasun edo intentsitate emozionala eta kontzeptuala erastea izan ohi da. Lirika zaharrea oso ohizkoa da baliapide literario hau. Euskal lirika zaharrea ezagunak dira erromantzetako errepikak.

Hona bi *Neskatxa ontziratua*-ren erromantzetik:

Aire bat entzun nuen itsasoko aldetik;
itsasoko aldetik untzian kantaturik.

Gurekin afaitera, eta deskantsatzera,
hortxet deskantsatzera, salaren ikustera³⁹.

Gaztelu ere errepiketaz baliatzen da, han-hemen, eta, behar bada, lehia ohartuagoaz bigarren etapaldian. “Bi uso ziran” izeneko poematxoan izenburu berdineko estribiloa *zazpi* aldiz errepikatzen da. Olerkariak ortzean, geroz eta hurrunago, eta gorago, hegaka urtzen doan *usoaren* irudia dakargu, hegaztiaren urtze estilizatua *errepikaren* bidez mamituz. Hona poematxoaren zati bat:

Bi uso ziran
hegalez aidean
bi uso ziran
t'inor etziran
mendiari buruz
joan da joan
bi uso ziran
(t'inor etziran)
bide illunez
egada luzean
bi uso ziran
(t'inor etziran)... (C karp., 71).

(39) Cfr. *Luis M. Mujika*, Euskal lirika tradizionala, II, 291. Oraindik badira beste adibide sugerigarriak gure lirikan. Hona batzuk: “Izar eder bat ateratzen da / urtean egun batean, / urtean egun batean eta / hura San Juan-goizean”; “Oxinaren azpian / perejilla jαιο, / jαιο bada jαιο da, / bera dago sendo”; “Entzunik ba-duzula lili bat xarmanta, / entzunik ba- duzula lili bat xarmanta, / lili bat xarmanta eta bihotz bat net”. Cfr. *Luis M. Mujika*, op. c. IV, 547-55 2 or.

“Begi bat....” poeman, perpausa osoan ordez, errepika hitz *soltetan* ematen da, zuhurki atonduriko hitz eta puntuen saredura eufonikoan. Ala ere, multzo bat *hirutan* ematen da poeman zehar. Bertako errepika biziki polita da. Hona lehen ahapaldia:

Begi bat eta begi bi
begi putzura erori
erori bazan erori
ezta geroztik ageri.
Begi urdin-urdiña
ene begi on-ona
begi urdiñ-onona (B karp., 242).

“Sugearen pare” izeneko olerkian, poemaren egitura estilizatua, oraindik, sotilagoa bilakatzen da, existentzian gizonaren nora-eza eta argigabezia isladatu nahi delarik. “Sugarren pare” errepika *zortzi* aldiz ematen da:

Lurpean barna
sugearen pare
igeri narraz
sugearen pare
argi gaberik
sugearen pare
nora ezik
sugearen pare (A karp. 311)⁴⁰.

1971 urteko martxoaren (?) 22-a data duen poema batean olerkariak errepika *hotz/hotz* hitzaz dagi. Gaztelu-k zerbait gaitza edo izugarria adierazi nahi digu bertan (alegia, amodioaren hari hautsiak, dardara duten harriak, oihu zartatuak, etabar). Inpresio guzti horiek *errepika-bidez* damaizkigu:

(40) Vietnam-go gerratea dela-eta, herriaren gorazarrea egiterakoan, Gaztelu-k ahapaldiak, lehen bertsoan, “Ohore zuri, Vietnam herri Hori” errepika nagusiaz garatzen ditu. Guztira hamar errepika nagusi. “Ohore zuri, Vietnam herri hori! / Sapelatzen atzaparretan erortzetik / begira zataizaion herri hori” (A karp. 330).

Hotz

hotz

hotz egiten du...

altzairuzko txistuk zilatzen dute zero harritua

hotz

hotz

hotz egiten du...

hostoak belarrak harriak dardara dira erroetan

hotz

hotz

hotz egiten du... (A karp. 365)⁴¹.

Tipologia honetako olerkia Gaztelu-k, bereziki, *protesta-poesian* sartzen du; poesia horretan, olerkariak erritmo erregularra eta neurriaren katea albora utziz, gehienbat, mezu zuzena eskaini nahi du.

13.-Kromatismoa

Gerra aurreko olerkarietan Lizardi⁴² dugu, dudarik gabe, kromatismoa lantzen eta garatzen nagusiena. Orixerengan aipu kromatikoak askoz orekatu eta banakagoak dira.

Gaztelu-ren gan aipamen kromatikoak ez dira falta. Eta lehen etapako leku zenbaitetan Lizardi-ren arrastoa nabari. Bestalde, kolore fisikoetatik adierazpen animikoetara bada jauzirik, han-hemen. Baita karakterizaziorik ere. Dena den, 30-eko gure olerkari nagusien obra gehiengan kromatismoak ez du tratamendu "irrazionalik" (sinestesi-joku nagusirik, adibidez); gure ustetan, ez Lizardi, ez Lauaxeta, eta are gutxiago Orixe, ezta Gaztelu ez daude ukituak metafora "irrazionalez", kasu isolatuetan ezik. Gaztelu-ren margoak, bada, gehienetan, lauak, fisikoak, andana klasizistakoak dira. Besteak, ala ere, kontsideragarriak dira. Trataera modernoagoz agertzen da, ala ere, batzutan, joera *exis-*

(41) Hona beste ahapaldi batzuen ohin-ondokoak: "Eztarri urratuen oihuak zartzaten dira mila otsetan", "Nonnahi begiak ondorik gabeko ezerezean josirik", "Amodioaren ari hauskorra eten dira behin betirako" (Ibidem)

(42) Ondoren Lizardi-ren aipamen batzuk: "Ire goi urdiñaren / urre lañotsupean", "Egur ezearen kea / goiak du kolore", "Arako urrezko zauria / izanik iturri", "Urre gorritzko bide goean". Cfr. *Luis M. Mujika*, Lizardi-ren lirika bideak, II, 118- 133 or.

tentziala duten olerkietan, eta Juan Ramón Jiménez baten andanan nolabait eginikoetan.

Hona kutsu *lizardianoa* duen Gaztelu-ren pasarte kromatiko zenbait:

Aspaldi nai izan eta, orain zurean

nago, Lizardi, mendigain egalean.

Igoa nauzu aldapa gora belazez

zuk bost bider egin gurdibidez:

loreak lagun, urdin, more, orixka,

aize me-leunaz bidean neri agurka (A karp. 235).

Gaztelu-k, Ameriketatik itzulita, Lizardi-ren Tolosa-ko olerki parajetara eginiko txango baten ondoren atonduriko “Barnean iturburu” poeman daude pasarteak. Bertan Lizardi-ren motibazio poetikoak nabarmen: “Otalore ezinegona, sagasti gazte, / kilker olerkari, irusta-talde; / urrezko itxaso, baso itzal-ontzi, / eta bide goenean ondar bat gori” (A karp. 235).

Koloreak, batzutan, antitesi gisa azaltzen dira: “Aberats, txiro, zuri, beltxeran, / ori ta gorri, mintzoz ezberdin” (A karp. 314). Bestetan, aipamen bezala: “Urdin dentz ala nabarxko, / noiz illun, noiz argi ta samurbera” (A karp. 239), “Argi? margo? gezi? ala ego? / eta mintzoan oiartzun betirako” (A karp. 234), “Beltz zuri gorri edo beste edozein margoz (letrak)” (C karp. 91), “Berdea oro laino urdiñetan bilbil emanik” (C karp. 100 or).

Kromatismoa eraikuntza sinboliko ernazentista eta bukolikoetan kokatuta azaltzen da poesia zaharrenetan. Gerora, bereziki 1971 aldera, nagusi den poesia *sozialaren* esparruan aipamen kromatikoak kontzeptuzko joku huts dira, batzutan. Ikus ditzagun, lehenik, keru klasikoagoa duten pasarteak:

Zingira berde, lore su,

urrumaka legunki

igan dabilta izarrak

artalde otxan zuri!

Geldi dabil illargia,

soñu zillar, billuzi (A karp. 16).

Ilargiaren koadro hau ez da, Garcia Lorca batena bezala, modernoa, bukolikoa baino, “artzai-neska”, “larre artalde zuri”, “artalde otxan-zuri” delakoen topikotasuna delarik nagusi⁴³.

Koadro ernazentista bera “Izar” izeneko sonetoan edo hamalaukoan.

Bertan azaltzen diren margo metalikoak (*zillar*, adibidez) kontestu bukolikoan ematen dira, ardi, belardi eta larren ikuspegiari. “An emen multzoka belardian larre”, “-artzaiak nun ote? -ardi”. Gaztelu ez da desitsasten iruditeria klasizista eta lazardianotik, propioki, poesia *existentzialista* (eta bizikiago *soziala*) egiten asten den arte. Lehendiko Gaztelu hori Lizardi-ren urratsetan (eta gaztelaniar klasikoan menpekotasunean) dabilen poeta dugu; bigarrena, aldiz, original eta sakonagoa da existetziaren andana mingotsean, Euskal Herri sufritu baten erritmoan eta garaiko gertakizun gaitzetan (gerraren, Vietnam, eta Tio sam-en kontrakarrean) ontzen dabilena.

Kromatismo modernoa ere bigarren etapan atzeman daiteke, baina ez kromatismo “irrazional” edo “surrealista” gisa, surrealismoak urri ukitzen baitu gure olerkaria. Simbolismo “irrazionala”, surrealismoa eta erdi-surrealismoa euskal poesian gerotzikoak dira, hau da, Gaztelu-ren belaunaldia hezi zenetik kanpotikoa. Hona pasarte moderno zenbait:

Berdean berde

berdean zuri

berdean gorri

eta berdean ñabar

lurraren aurpegi (A karp. 389).

Kolore hauek, kasik, *hitz-joku* hutsak dira. Transmisio kontzeptuala pasartean urria da. Hurrengoan aipamen kromatikoak. Juan R. Jiménez-ek itsasoari eginiko poema baten irakurketatik sorturikoak. Oso fresko eta sotilak dira; ia aipu hutsak (1971 urteko ekainaren 2-an eginiko poematxo batetik): “Beti berde / eta nare / argi / ur karesaz / iñoiz

(43) “Zerura bide” poema ezagunean, berriro, kromatismoak kerantza ernazentistaz eta bukolikoaz: “Nagitsu idiak, asneke...”, “Itzuli dator gari-gurdia / kulunka, intziriz, astun, geldia”. Hona margoak: “Molko beteak oriska mästian”, “Yantziak edur...”, “Ta eguzki-galdatan gorrien gatza” (A karp. 149).

ezin ase / eta kolore litsaz / aberats noiz nahi / laiño grisaz / lur estalia...!". Koadro piktorikoa zertzelada sotiletan gelditzen da, lizardianismoaren urratsetatik urrunago. Hauek trazo eta kera hutsak dira.

Aipamen biluts berbera hurrengoan (espazialismoaren teknikaz eta guzti testu originalean):

Urak handi doaz

amilka

multzuka

beltz

gorri

gorri

beltz

munduaren zolatik dator

garrasi gor betea (B karp. 10).

Gaua karakterizatzean koloreak egozten zaizkio: "Kantu bat zor diot goragarri / kantu bat gauari / soin-urdin / beltzeran / begi-beltx / dizdizari / gure loaren begirari" (A karp. 13).

Gero, kolorea diskurtsu existentzial batean biltzen du. Margoa, dena den, azalekoa da, eta desitsas daiteke itxuratik: "Zuriz jantzi nintzan / beltzez jantzi nintzan / gorritz jantzi nintzan / eta eninduten ezagun ahal. / Eta esan nuen ene baitan: obe ukek margorik ez izan / ba zitekek orrelan / ire buruari norbaitek antzeman" (B karp. 192b)⁴⁴.

Eta, berriro, koloreak hitz-jokuzko aitzaki gisa; poesia modernoan, batez ere, *kolore-jokuak* ohizkoak dira, besterik gabe, estetika-gai soil gisa. Hurrengo pasarteak tenore hori du: "Kolore-jantzi kikirriki / noiz hori ala gorri / hori-urdin / berde / more / more gorri" (B karp. 352b).

Antzeko andanan dago, nolabait, ondorengoa ere, koloreak, adierazpen fisiko eta deskriptibo gain, *ludikoak* ere izan baiditezke aldiko inpresioen arabera:

(44) 1977 urteko poema batean *arima*-ren estalkiaz jarduten du (existentzialki), eta dio: - "Arima ez dago inoiz bilutsik / beti dago jantzirik / edo belarren eta hostoen berdez / eta loreen eta hodeien kolorez / edo uraren edo zuruaren (sic) urdiñez / arima ez dago iñoiz bilusik" (A karp. 231 or.). Aldarte existentzial antzekoaz hurrengoa ere: "Bidea argi ta garbi ikusten duzu, ilunbetan eta / lainopetan ageri zena / orain bat batetan garbi nabari zaizu" (A karp. 342).

“Berdea eta urdiña eta moregorria gris aulduan

[nahasten diranean,

Ur garbien -ai! orain zikiñen -susmur otsetan igesian
geldi, mehe, ixil-ostuka belarrira”⁴⁵.

14.-Neurria eta puntua

Jakina denez, *Muxika-ixilla* itzulpen-liburuaren sarreran Gaztelu-k poesi neurgintzazko ildo berezia erakusten digu, silabismoari ordez, *erritmoari* atxikia.

Erritmoa de Gaztelu-rentzat neurgintzaren oinarria. *Ictus*-a da bere giltza, mugimenduak euspina edo apoioa ictus horretan duelarik. Guri ez dagokigu hemen Gaztelu- ren tesia argitzea, ezta ere zertzeladak ematea.

Goikoak, nolabait, kontutan edukirik, bere sorkuntza poetikoan azaltzen den bertso-moeta eta puntu zenbait konstatatuko dugu; go-goan izan Gaztelu-k poesia neurtua, batez ere, lehen etapan egiten duela, eta bigarrenean bakanago. Sinalefetan Gaztelu-k egokien zaion bidea isladatzen digu, erregulartasunik gabe.

Zalantzarik ez dago, 30-eko olerkarien gisa, Gaztelu poeta *kultua* dela *puntuari* dagokionez, Gaztelu olerkari (eta ez bertsolari) bezala kontsideratua izan behar dela. Goikoetxea-ren puntua ongi zaindua, heteromorfoloikoa eta aberatsa da, kasu urri batzutan, soilik, bertsolaritzara, eta honen ohizko puntu txiroetara, labaintzen delarik.

Hona, bada, Gaztelu-ren ahapaldi eta puntu-moeta zenbait. Lehenik, esan behar dugu, poesia neurtua ez dagienean ere, aski maiz jotzen duela puntura, nahiz-eta ez toki jakin edo erregular batean. Honela, “Gauaren errota” poeman (Biziaren erroetan, 24-25) -oa puntua dabil jokuan (“*loa / gogoa / artoa / doa / gozoa / ahoa*”). Gisa honetan amaitzen da poema:

Indar berrituz

gaztaroa

zahartzaroa

izan dezan naroa

eta igaroa

eta geroa

bere betekoa... (Ibidem)

(45) Pasartea Gaztelu-k, ordena aldatuz, “urdiña ta berdea ta ubela” gisa uzten du (*moregorria* hitza ordez *ubela* tartekatuz).

Berdin "Ba doa" delakoaz hasten den poeman. Lehen zatian puntua -oa-z egiten du ("Ba doa / nere gogoa / ezin har loa / luze du ehoa / eta zangoa...") (C karp. 96). Bigarren zatian, berriz, -il amaieraz du puntua: "Ba nabil / ibil / ezin hil / eta usuk / iskanbil / burua aril / munduaren ardatzean / gurpil..." (Ibidem)⁴⁶.

A.-Molde nagusikoak

Hor diote naizela zuhurra	10 A
Luzea dudala sudurra;	10 A
emagun hori egia dela,	10 —
bai hertsu ere ipur-txuntxurra	10 A
Ibaiak darorkit begitik negarra	12 A
Zauria bai baitut biotzean	10 B
atzerria-arantzez yosia.	9 C
Nork zauritu biotz-lilia?	9 C
Aranzdun dalarik yakiñean	10 B
nork dagit biotz-ertsipen ain gogorra?	12 A

Eskema bera errepikatzen da bost ahapalditan, eta olerkia Gaztelu atzerrira (1935 urtean) joan zenekoa da.

"Auñamendiko lorea" deituriko poema luzean molde neurtuak eta erregularrak azaltzen dira, eta puntu binarioz, askotan (*sagarra/kilkerria, burulonu, lenera/erakarpina*). *Badira, bestalde, 12/12/12/12/12 11A/11B/11A/11B eta 11A/11A gisakoak.*

Beera-bearrak ditun erriak,	11A
erio baitun orotan nagusi.	11B
Nik bada iretzat Auñamendiak	11A
betirak iraun ezanan berezi	11B

Sonetoetan edo *hamalaukoetan* hurrengoak, hiru bertsozko hiru ahapaldi eta bi bertsozko bestea dituztelarik. Puntuak hurrengo eskema "Irudimena" izeneko poeman:

(46) "Esan-eziña" olerkian *pilpill/emanik/murgil/amil* gisakoak; baina kasu honetan erri-moak sorturiko neurria ere eskaitzen da.

“Zortzikote” izenburua daramaten hamalaukoek (Olerti-n, 1962 urtean, I, II zenbakietan argitaratutakoak) goiko puntu-eskema gurutzatua daramate, *Olertitza* poema kasuan ezik. Honen eskema hau da: A/B/B/A C/D/D/C E/E/E/F/F. Puntuak aberatsak dira. Adibidez: arin / osin / egamin, / ego / betirako / alako / edo, / ispillu / dizdizu / subizgu / sukatillu, eskutan / sutan (azken bi hauetan, ala ere, *inexiboa* errepikatzen da).

Hona *Aldegain* deritzan hamalaukoa:

LEIO borobil, aurrean oargille,	A
ortzadarrean oi dute bataioa.	B
Nork esan begien jai ñabar, bete,	A
ainbat litsaz ager danean margoa?	B
Leiora da anima, argirudiz murgil,	C
egotzat ditula begiak aldakari;	D
inguma bailitz, arat-onat urbil,	C
egalak kirriki, jantzi-erantzi.	D
Gauak oro begitan dute azpegi,	E
bestela ez antzik ez margorik ere;	F
garbi ala gandu, begiak ugeldi,	E
barnegiro denak oetan dagertze.	F
Ene begiok, zeitezte (sic) aratz, ez lizun	G
zuen bidez baita den oro ikuskizun ⁴⁷ .	G

“Il nadinean” olerkian hileta pertsonala irgartzten den poema ederrean, puntua A/A binarioa da (*inguru/ustu, ibildari/kantari, zolil/iguzki*). Neurritan 12/12, 15/15, 16/16 gisakoak, eta beste batzuk irregularrak:

(47) *Irudimen, Naimen, Adimen* izeneko sonetoetan Gazteluk giza ahalmenen gogarte filosofikoa dagigu, euskara trinko eta gihartsu batean (Olerti, 1962, 12, 13 or.). Bestalde, “Begiak” izeneko poema luzean *zentzunetaz* gogartea (A karp. 86).

Aldiro aldiro belar onduaren usai naro:	16 A
nerean bere, udaberri, udagoi, urriaro...	16 A
“Abillen, leloa!” olerkian hurrengo egitura:	
Jeiki ta abillen, leloa!	9 A
Euskalerrira bide	7—
arro-arro ar zan hegoa!	9 A

Eta, oraindik, besteok:

Goizero dadat jainko ontzitik,	10 A
Jainkoz betetzen duen edaritik.	10 A
Euri, azkurri,	5 B
bildots-iturri,	5 B
gogo-baratzaren asegarri.	10 B

“Bizitza” deituriko poemak sarrera 6A/4A/4(5)A/6A eskemako du. Gerora, molde luzezko ahapaldiak datoz, puntua A/A binarioa duelarik, bigarren ahapaldian ezik (A/A/A/A).

Eta besteok:

Nere artaldeko ene bildots-emea,	14
ez joan besten larretara, agon nerean,	14
iretzat duken beti belarrrik xamurrena,	14
iretzat negutean otalore goxorik	14
Kartak utzirik eta tantoak	10 A
an zituzten an gero saltoak	10 A
Bakarrik iruen aurka, zer egiñen du Mari Martin gaixoak?	20 A
Azkar izanarren zango-besoak,	10 A
artu ditu, artu ditu oloak.	10 A
Begian argi, biotzean su:	10 —
(artega) nabil nere bidean,	10 A
Nork lituzke arrano-egoak	10 —
ibiltzearren ega luzean!	10 A

Zelai, baso ta mendiak,	8 A
ibai, itsaso, iturriak,	8 A
txoriek ere abesle,	8 B
aur galdua emen ikusirik,	10 —
on-etorria diote.	8 B
Makilla eskuan eta zorroa bizkarrean,	15 A
atez ate eskaleak ots egiten eskean.	15 A

“Atez-ate” izeneko olerki hau, gero 8/7A/8/7A eskemez ere idazten du, etenak kontutan edukirik (A karp.44).

Hurrengoia zortziko handian (eta bertsoaritzazko keran) egina dago, olerkarien ildo utziz:

Milla bederatziaireun da	10 —
berrogei ta lauean,	8 A
Garai jaunak jasotako	10 —
Uri aundi ederretan	8 A
“Euskaltzaleak” batzarre	10 —
degu Laurak bat'ean.	8 A
Agur, jaunak! diotsuet	10 —
jarririk aintziñean.	8 A

“Nere meza berrian amari” (*Gure herria*, 19 9, 330-331) txikian (7/5a/7/6a) egina dago, bainan keraz, garbiro, bertso arruntarena da, eta ez olerki tankerakoa.

Hona beste moldea:

Lagun onak, bai, zuek abeslari bikaiñ	13 A
erriz-erri aspergabe zabilzatenok,	13 B
urretxindor antzean kantari beti aiñ	13 A
trebe, sutsu, gero ta ereszalegoak	13 B
Jaiki ta abillen, leloa!	9 A
Euskalerrira bide	7 —
arro-arro ar zan egoa	9 A

A Bederatzi ahapalditan luzatzen da olerkia, azkenekoa lehenengoaren errepika delarik (A karp. 96).

“Auñamendi-an ots” izeneko poema luzea iruditeriaren eta formaren aldetik klasizista da, eta lehen etapaldiko poesigitzan sartzen da, neurriak molde nagusikoak eta ahapaldien egikera aniztua delarik. Bertan tipologia honetako ahapaldiak: 11 A / 11 A / 11 B, 11 A / 11 A / 2 b / 2 b / 6 B / 6 B.

Ametsak amets, baserri-geriza	11 A
bai dan eder, atsedeen-eliza;	11 A
Endaren maiarri zar, atson-ontzi,	11 B
asaba zarren ondorio yori! (A karp. 118)	11 B

Zerura-bide poema mistikoan puntu eta neurri aunitz, etenduren eta oinen eredia kanpotik hartua dela isladatzen delarik. Doinuaren orde, erritmoa bilatzen du olerkariak, eta olerkian azpiko neurria zein den, batzutan, gaitza gertatzen da jakitea. Hona neurri eta puntu zenbait: 10 A / 10 A / 10 B / 10 / 12 -, 8 A / 7 A / 6 A / 8 A / 5 B / 5 B / 8 A, 11 A / 11 A / 11 B / 11 B, 11 A / 11 B / 11 A / 11 B / 11 A / 11 B.

Baratz bat egiñik dakart arima,	11 A
loreak erruz yarinez urriñez,	11 A
Enegan bai baitut ernal-iturri	11 B
barne-urbegiaren gañezkari.	11 B

B.-Molde txikikoak:

Noiz, nun, nola dario	7 —
herrian odola?	6 A
Urak gorritu dira	7 —
orain ez Urola ⁽⁴⁸⁾ .	6 A
(Ikus ere B karp. 160, 216)	

“Nire meza berrian amari” poesia *zortziko txikian* (7 / 6A / 7 / 6A) egina dago, baina kera eta erritmo *bertsolarizante batez* (karp. A, 130).

(48) Olerki honek kopia “zaharretako” teknika formal darabil ahapaldi batzutan, hau da, lehenengo bi bertsoetan *atari naturistikoa* (“baratzeko larrosak / bost orri gorri; / bostak odoletan / zauriz hilgarri” (4-garren ahapaldia).

Hona beste molde bat (*txikia* eta *handia* nahastuz):

Lan lagun bat apala	7 A
eta zuen eskua	7 B
hostoa bezala zabala	9 A
eta izpiritua	7 B
argia bezain argala	9 A
here begien sua	7 B
argitan ditzira bezala	9 A
bere hitzen doinua	7 B

Zortziko txiki molde *klasikozko* diren ahapaldiak askotan ematen ditu Gaztelu-k (ikus B karp. 169, 186, 187 eta A karp. 94).

Hurrengo olerkia hamalu bertsotan luzetzen da, pareak heterometrikoak direlarik.

Bi uso ziran	5
hegalez bidean	6
bi uso ziran	5
t'iñor etziran	5
mendiari buruz	6
joan da joan	5
bi uso ziran	5
bide illunez	5
egada luzean...	6
Goizaldea zan	5
iturriari	5
ur jarioa	5
zerion	3 B
bazterrak ixil	5
oilaritea	5
eten berria	5
aixtion	3

“Argi-Ezkila” izeneko poema beste bertso askotan luzatzen da, 5/5/5/3 eskema duelarik, laugarrenean puntu desberdina azalduz.

Eta, oraindik, hurrengoak:

Sulla buruan artuta	8 —
iturrira bide,	6 A
biotzen pozkario	8 —
dijoa Edurne	6 A
Il da. Zuri-begi	6 A
il-kutxan arpegi.	6 A
Adaxka zan, lorez	6 B
pin-pin goi-izpiez:	6 B
aize-osiñak orain	6 —
—goiz-goiz oxkirriez—	6 B
soil utzi bat-batez	6 B
Kantu bat ahoan eta	8 —
gogoa herrian	6 A
isildu gudaria	8 —
puztu lohieran barrena?	8 A
Begi urdiñ-urdiña	7
ene begi on-ona	7
begi urdiñ-onona	7
Bego ohardun ixilla,	8 —
bego ixil oharmena,	8 A
esatera noalako,	8 —
lagun badut oharmena,	8 A
nere kontakizun honek	8 —
onenik eskas zuena.	8 A

15.-Erritmo arinak

Gaztelu-ren olerkigintza irakurtzerakoan berehala konturatzen da bat poemaren trataera formalean erritmoak duen garrantziaz; bestalde, olerkariak bigarren etapan (bereziki, 1970 urtea ezkerotzik) maiz bilatzen ditu kera labainkor, labur eta arinak. 1932-etik 1960 urtealde arte poesi-multzo nagusi bat molde luze, astitsu eta tradizionalagoetan egina dauka. Hamalaukoetz edo sonetoez gain, ez ahaz 10/8 eta 13/8 egitura luzezko poemak badituela.

1960 urtealdea ezkeroztik erritmo bizi eta arinagozko bertsoak bi-
latzen ditu, eta, bereziki, *protesta-poesia* edo poesia "*soziala*" eta poe-
sia *existentzialista* sistematikokiago egiten hasten denean. Hurrun
gaude, bada, "Añamendin ots!" gisako poema astitsu eta luzeetatik.
Hona *Gauean oihu* (1972 urtea) liburuko erritmo arin zenbait:

Zaldiz
oinez
aldiaren otsetan:
arnaska
tintinka
aizearen ortzetan... (19 Or.)

Hemen aldiaren "iragankortasuna" bertso bisilabadunez atontzen
du; lehen bertsoetan binakakoak, eta laugarren eta boskarrenean hiru-
nakoak azaltzen dira.

Oihu bat izeneko olerkian erritmo arina *espazialismo bereziaz*
hornitzen da, lerroa korrituz eskuinera.

Oihu bat entzun da
oihu beltz
oihu ori
oihu zuri
oihu gorri
neri
zuri
guri
mintzatzen zaiguna (Ibidem, 37)⁴⁹.

Errimoa biziki estilizatzen du, poemak barnetik hartzen duen haria
jarraituz ("Norenen baitan / malko / pozkario / ibilera / izerdi / galera /
bizi / erio") "Argi-ekzilletatik". C karp. 46). Hemen barne-erreakzioen
izendegia ematen da, zerbait abstraktu eta zehatza, zerbait sotil eta
aratza lortuz, poemak antitesietan nabarmendura biziago bat dezan.

(49) Poema-liburu berean oraindik: "Maitea bilus kantatzen dut / maitea bilus / soil / tipil / bi-
pil..." (Ibidem, 43). Monosilabikoak eta bisilabikoak ere erabiltzen ditu, oraindik, azken bertsoetan.

Biziaren erroetan (1972 urtea) liburuan ere joera bera. “Hemen” izeneko poeman, adibidez, monosilabikoak eta bisilabikoak herrenkan tartekatzen dira, amaiera aldean 1/1/1/2/2/3/3/3 eskema bizkorra eskaintzen digularik. Bertsoak, kasik, aipamen huts dira? “On / poz / min // gozo / nigar / hasperen, / gizaki / guztien...” (*Biziaren erroetan*, 16). “Izan-gura” poeman ere dialogo existenziala mamidura azkarreko bertso hitzetan garatzen da, erritmo laburrak funtsa berezia bailukeen:

Ausnar

irazi

eho

nahasi

jan

egoisi...,

aldiaren iraganean

zerbait ikasi...

Existenziaren zertzeladak fase bakoitzean ardura gehiago jasotzen duela dirudi, bertsoa egotaldi bereziaren marka bailitzan⁵⁰.

Ia liburu osoan aurkitzen ditugu erritmo sotil, solte eta iheskorak Gaztelu-k, itxuraz, aurretiko poesiarekin etendura alde formal honetatik ere egin nahi du. Bestalde, olerkariak erritmo eta neurri olerkietan, askotan, puntuaren *hoskidetasun* informala bilatzen du, seguraski, neurgintzara hain makurtua zegoen poetaren marka gisa. Goiko “Izan-gura” poeman bertso-paretako aditzak puntukide dira (*irazi / egoisi / ikasi*).

Oteiza-ri eskaintzen dion “Egonean” poeman (eta poema hau 1963 urtekoa da) Gaztelu-k ihes egiten digu zeharo molde tradizionaletatik, neurri librea ez-erik, erritmo guztiz estilizatu erabiliz. Bertan bisilabikoak eta hirusilabikoak azaltzen dira, haseran batez ere:

(50) *Ez egon* poema existenzialistan ere *bizitzaren* zirkulua, kasik, sententzialki isladatzen digu aditz bakanen bitartez: “Horrela da osatzen / bizi-arloa: / sortu / bizitu / hil / osatuz / bizi-obeia” (Ibidem, 25) “Aitorra” poema ere tipologia berekoa da, bertso bisilabikoak oso ugariak direlarik.

Arrimokor biribil:

tartean
lekune bizigarri
aldean:
ez il
bizi
aldiaren erraietan:
ez larri
geldi
aziaren begietan:
argi
nare
sabel izar illunean:
egonean.

Gerora ere poemak (bere edukin existentzial eta tenporalistan) erritmo bizkor eta azkarrari eusten dio, noiz-noiz, gogartealdi astitsuagoetara etorriz, adibidez, poemaren lehen zatiko azken ahapaldietan. Poetak antitesi erritmikoak profitatzen ditu, barne-hari gogartetsu bat saretzeko.

Izen bururik azaltzen ez den poematxo batean monosilabiko diren bertsoak beste luzeago batzuekin tartekatzen ditu, puntua bilatuz:

Gorrian gorri eguzki

ale garau azi
gorrian gorri zuzi
gar
gar
par
algara irri
ter
ter
zer
an ler
emen tirri... (B karp. 167)⁵¹.

(51) Poematxoaren jarraian, ia aipu huts diren, aditz, adberbio eta izenorde pertsonalak azaltzen dira: "Illargi-itzalean / zu ta ni / gu / zor / egon / izan / azi / ari / or emen / an / noiznai / edonun..." (Ibidem, 168). Joku bera zenbakiekin hurrengoan: "Ez bat / ez bi / bost / hamaika / hots, milaka / oihanean hostoak bezala / pilaka / argiak, haizeak, urak / ikara / dardara..." (B karp. 193). Poemaren *estilizazioa* lortzeko Gaztelu-k kakotxak alboratu zituen, hitzen segida abstraktuagoa eta tenkagoa dadin. Antzeko erritmo zalua zenbakiez hurrengoan ere: "Azi bat / bi azi / bost / amaika / eren eta gainka / milla galburu eguzkitara / begi bat / bi begi / biotz / beatz / esna eta irrika..." (B karp. 202).

Poematxo honetan erritmo arina *hitz-jokuaz* nahasten da.

Zuhaitzari buruz gogarketa (*filosofia* dio) dagienean ere erritmo zalu bera artzen du. Bertso laburrean hitzari kondentsazio gehiago atxiki nahi dio:

Hazi
bizi
argia, euria goza
haizea jasan
urari joaiten utzi
ez egin
egon (A karp. 215).

Ohar zaitetz, irakurle, estilizazio baten eta gihardura abstraktuago bila poetak *kakotxak* ere kanpora uzten dituela olerkiak materializazio gutxiago dezan. Aditzak, gainera, laguntzailerik gabe, zeharo biluts, hotz gelditzen dira (aditzak *temporalizazioaz* “berotu” egin ohi baitu perpausa)⁵². Bestalde, poema guztian ez da juntagailu bat ere azaltzen. Dena hotz, zurrun, sententzial da.

Hurrengoan ere olerkariaren asmoa zalutasuna puntuarekin nahastea da, besterik gabe, olerki formal bat bilatuz. Estilo hau gaztelaniaren eremuan, batez ere, Jorge Guillén-ena da, hain poesia intelektual eta gihartsua darabilenena. Olerkia, kasik, hitzak aipatzera mugatzen da:

Haizkibel
gibel
harbel
ubel
uhel
hel! hel! hel! (B karp. 221^b)⁵³.

(52) “Urarena” poematxoan aditzak bata bestearen ondoan doaz, baina, *kakotxaz* berezita, behintzat: “Jario, ixuri, / joan, busti eta ikuzi” (Ibidem).

(53) Ondorengo poema, aldiz, “beroagoa” da, aditz-laguntzaileak eta juntagailuak (*eta...*) azaltzen baitira, noiz-noiz: “Eta zure eskuak / indarrez / antzez / jantziko (hormituko) dira / eta zure eskuetatik / (izakari) sorkari berri bat / neurritz / taiuz / sortuko da / haziko da / osatuko da / bi-ziaren / eta herriaren arabera / eta beteko” (B karp. 230^b). Hemen, ala ere, *kakotxak* falta dira.

“Bilbeak” (urdimbres) izeneko olerkia ere egitura zaluzko beste poema da. Bertan margoek, izen-puntukide eta adberbioek joku bitxia egiten dute. “Bodega” eta “Artailu” (Ibidem, 256) ere antzeko tipologiazkoak dira, baina bertsoek gorpuztura zabalagoa dute batzutan. “Bilbeak” poema, espazialismo bitxiz, aipu hutsezko entsegua da. Horrelako asko Gaztelu-k lehen esaniko denboraldian:

Argi
 ilun
 urdin
 beltz
 adar
 nabar
 ur-dardara
 lur-ikara
 ibilbide
 huts artean
 ibilbide (B karp. 257).

Dudarik gabe, gure poetaren poesian alde formal hain estilizatu eta hieratikoa erreflexiozko jarrera duten olerkiekin lotzen da. Gazteluren poesiak badu, bada, batzutan halako keru intelektuala, jarrera *existentzialistari*, *protesta*-poesiari baino gehiago, atxikia egonik nahizeta azken honetan ere erritmo zalu eta arinetara jo, bereziki, poesia sozialean emaniko *sententzialismo* arestiano batera (mot *d'ordre* delakoa) jotzen duenean⁵⁴.

17.-Espazialismoa

Espazialismoa da Gaztelu-ren poesia modernoan beste baliabide bitxienetakoa. Nahizta Gaztelu-ren haserak lizardianismoaren ortodoxia formalean garatu, poesia existentziala eta intelektuala, eta, bereziki, protestazkoa irtenbide espazial ezformal eta bitxiagotara lerratzen da. Espazialismoaren kabriolak eginak zituen gaztelaniaren eremuan ul-

(54) Oraindik ikustekoak dira hurrengo poematxo hauek: “Bakar” (B karp. 328), “Norena mintzo” (B karp. 367), “Gero bai” (B karp. 261). Azken honetan: “Gero bai / gizona libratzen dudanean / egingo dugu zurruta... / baña ez didate giltzik eman / eta / malluka / bai / malluka egin behar lana...” (Ibidem). Poema hau, noski, olerki “sozialetan” sartzen da.

traismoak eta Guillermo de la Torre-ren poesiak, adibidez, mende honen hasera aldean, bainan ez, noski, euskararen alorrean. Dena den, teknika honek, nahizeta berri-itxura eman, ez du kritiko batzuek eman izan dioten garrantziarik. Gaztelu-k baino gehiago, Artze poetak maitatu du gurean poesi-moeta hau.

Ikus ditzagun, laburki, espazialismoaren adibide batzuk.

“Basoan” deituriko poeman, esaten baterako, hitz bakaneko bertso lerroa eskuinera deslekturik kokatzen da. Gero, ezkerreko muturrera eramaten du, ezkerretik eskuinera berriro ekartzeko. Azkenean, parean ezarririko bi bertso eskaintzen ditu. Hona eskema espaziala:

Bideska

mee

luzea

zugaitz

artean

galtzen...

Basoa lodi, adarrak zero-sapaia estaltzen:

argi-izpi

tarteka

belarrean

gezi...

Noizean bein urrundik ioare-otsa dator;

oinkada luzeak orbelean ots eragiten...

“Udazken” poemak ere formalismo bera, bainan kera informalago batez, ezkerretik-eskuineko lerrakuntza berezia falta baita:

An

or

suak ar ostoaik,

ibaia gorritzta...

orri bat

aizean

zurrunbil:

urean

daror,

ur-azala

barano-an.

Azkeneko “baranoan” tartea apropros eraikitzen da, hitza astitsua-go goza dadin⁵⁵.

Garbi dago espazialismo honen bitartez Gaztelu-k poesiaren edukiari gunearen *geometria* erantsi nahi izan diola, aspaldiko, euskal poesiaren zurruntasunetik ihes eginez. Lizardi eta Orixe-engan, noski, ez da ematen honelako entsegu espazialarik; bai, ordea, beste olerkari gazteagotan.

18.-Lexiko zabal, garbizale eta kultua

Gaztelu-ren lehen etapaldiko poesia irakurriz, berehala, konturatzen gara zenbaiterainoko eragina izan zuen gerraurrean, bereziki, euskal poesigintzan (Orixe-ren kasuan, noski, apalago) *garbizalekeria* lexikalak. Lizardi-k, Lauxeta-k (honek bortitzago), Loramendi-k, eta kasu honetan Gaztelu-k, jarrera sabiniano horren islada dute. Lizardi-engan aurki daitezkeen *aditz-sintetikoak* (hala-nola *bekusat*, *babesadan*, *damesgun*, *bebil*, *letsiken*) Gaztelu-ren kasuan ere presente, eta, agian, ugariago. Joera hori, noski, biziki apaltzen da Goikoetxea-ren azken poesietan.

Bestalde, Gaztelu-k euskal lexiko zabalaren ezagupen sendoa isladatzen digu. Lehen ere esan dugunez, etzen alferrik izan *Auñamendi Hiztegiaren* (*Diccionario Auñamendi, español-vasco* delakoaren) antolatzaile eta laguntzailerik nagusia; Gaztelu-k sakonki ezagutzen zituen euskalkietan zetzan lexiko ñabar, hedatu eta zehatza. Edozein mementutan Gaztelu-k sorpresak eskaintzen dizkigu lexikoaren aldetik. Hurrun gaude, bada, *Bordatxuri*-ko sukaldean ikasi zuen tolosaldeko euskara sotil eta gozo hartatik. Gure poetak han ikasiriko euskara oraindik hedatzen etorriko da, ikuspegi eta garadura berria lortuz. Bere poesigintza guztia hizkuntzaren menderapen zabal horren testigutza da. Esana dugu nolatan auzitan ezartzen duen G. Aresti-ren euskara eskaxa. Gaitzetsi egiten du hizkera- moeta elemental hori.

a) Aditz-sintetikoak eta neologismo zenbait.

Aditz sintetikoetan batzuk ezagunak dira, besteak erdifosileztatuak (ihartuak) daude, baina beste asko zeharo ezhoizkoak, lehia neologiztaz sorturikoak dira. Aipa ditzagun kasu batzuk. “Zerura Bide” poeman, soi-

(55) Agian, denetan kalkulatuena “Joan zinenean” poematxo (1979 urtekoa) da; bertan lerro horizontala ezkerretik eskuinera lerratzen da beste gain-beherakoarekin saretzen delarik; gero eskema horizontala aurkezten da, ondoren ezkerretik eskuinerako gain-behera, eta, amaieran, hiru bertso labur, kasik, parean, baina etenda (Cfr. B karp. 144).

lik, hurrengoak aurki daitezke: *Darraiko* (A karp. 143), *zegin* (144), *ze-kusten* (145) *dagerren* (147), *begigu* (147), *bebil* (149), *begit* (150). Bes-tetan, berriz: *Bailemaio* (A karp. 198), *narraizkan* (Ibidem,199), *baletsa* (Ibidem, 236), *balesate* (Ibidem, 237), *dagertzi* (Ibidem, 389), *darorkit* (B karp. 17), *darikit* (B karp. 18), *dadat* (B karp. 139).

b) Lexiko zabala

Ondoren eskaintzen dugun lexikoak Gaztelu-k menderatzen zuen hiztegi hedatu, zehatz eta kultua isladatzen digu. Euskalkien edo dialektoen mugak ez dira oztopo poemak eskatzen duen epifettoa, aditza edo izen egokia erabiltzeko. Hona lexiko-adierazpen bat: *Auteman* (B karp. 162), *urrin* (B karp. 253), *ferekatuz* (B karp. 343), *histu* (B karp. 306), *aztamu* (B karp. 264), *balaku* (B karp. 169), *txastallu* (B karp. 186), *higatu* (B karp. 306), *ederretsi* (B karp. 228), *birrin* (B karp. 162), *azkazi* (A karp. 377), *xede* (A karp. 377), *bipil* (A karp. 266), *aratz* (A karp. 16).

Hemen aipatu dugun hitz aunitz iparraldeko euskalkien eremukoa da. Gure ustetan, Gaztelu-k euskararen duen ezagupen lexikala Lizardi edo Lauaxeta-rena baino zabalagoa da. Orixe-ren kasuan, aldiz, nekezago baitets daiteke bestainbeste.

19.-Epitetoak

Joan Inazio Goikoetxea-ren idazkietan gure hizkuntza literarioaren ezagupen lexikal zabala dago. Gaztelu-ren epiteto ugaritasuna bipila da. Jakina denez, epitetoen trataera joriak hizkuntzaren aberastasuna adierazten du. Euskalki batetik bestera jauzia egin ahal izateak poetari erraztasun lexikal handiak eskaintzen dizkio. Dударik gabe, Gaztelu-k, jaioterriko *Bordatxuri* eta *Zapatari* baserrietako sukaldean entzunikoaz gain, beste epiteto aunitz ezagutzen du. Ikus ditzagun adibide batzuk.

Denak eskuko nai dugu izan,
baña, nor buru, ta nor menpeko?
Altsua biotz-beltz, aunitz erbal
itxian goibel irtera eske (A karp. 315).

Hemen, lau bertsoen gune urrian *zazpi* epiteko eskaintzen dizkigu, gutxienez. Perpausa karakterizazioz beterik hornitua gelditzen da.

Unamuno-ri eskainiriko “Gure amandre ederra” poeman hurrengoak atzeman daitezke:

Gure amandre ederra
ederra baña meyarra
ura bezain argal, auskorra
eztabil nere ta zure diru-zun (A karp. 296).

Bertan bost epiteto; *diru-zun* delakoa, behintzat, gipuzkera dialektoaren kanpotikoa dugu. 1965 urteko poeman *ederra/meyerra* epitetoen errepika, behin-eta berriz.

Vietnam-go gerratea, berriro, gogoratuz, maitale bilutsa dakar poetak oroimenera, eta maitale horri *lau* epiteto egotzen dizkio, hau da, *bilus*, *soil*, *tipil* eta *bipil*. Lau epiteto horietatik, kasik, hiru beste euskeretatik ikasirikoak ditu Goikoetxeak⁵⁶.

“Barnean iturburu” olerkian, berriz, Gaztelu-k lizardianismoarekin dituen hariak nabarmen. Poema Lizardi-ri eskainia dago, eta bertako molde zenbait (*oi, lur, oi, lur* delakoa gogoratuz) adierazgarri. Poemak 12/12-ko neurria du, gehienez, eta A/A puntua. Poemaren erdigunean *ur* hitza lau epiteto hornituta azaltzen da, eta laurak halako kera *espa-zial-lerrokatu batez*:

Gaurdanik, ene lur mami oni adizur,
barne-egian urbegi ixuri-dixur:
ur bizi
ur-apal
ur-jori
ur jaukal...
Amets egin dut nigan iturburu
dariola ardirian leñuru (A karp. 235).

Hemengo epiteto-ugaritasuna, berriro, Goikoetxea-ren euskalkiezagumenari zor zaio, ezen-eta jaukal (Lizardi-k ere erabilia), *adizur* eta, agian, *jori* gisakoak ez baitira Gaztelu-ren jaioterrikoak; ezta *argidirian* (egunsentian) eta *leñuru* sustantiboak ere.

(56) “Maitea billus kantatzen dut, /maitea billus, / soil, / tipil, / bipil... / hostoa bezain has, / galburua bezain has...” (A karp. 266).

Oteiza eskultoreari eskainiriko *Erreberentzia* poema sendoan ere “sen aundiko, tipil, bipil” epitetoen oihartzuna. Eta poemaren atarian “ez ao-bero / patenik gabe / esku-azpian / zabal / gartsu / eta nere eukaristiaren gorputza billus...” dio (A karp. 236)⁵⁷.

20.-Errefrauak

Gaztelu-k gure hizkuntzaren ezagupen sakon hedatua zuen. Hori, esan dugunez, bere *hiztegegintza* lanetan nabaria da. Gure poetak ongi ezagutzen zituen euskal hizkuntza zaharraren baitan eta tradizioan zeuden altxorrak. Hori dela-eta, sorpresaz ikusten ditugu, noiz-noiz, gure tradizioko errefrau edo esakun batzuk. Aitonari hartuak dira. Hona, laburki, horietako zenbait.

Entzuna diot aitonari:

“Ohar akio
biziari,
ba dukek haatik
zer ikasi” (Biziaren erroetan, 14)

Bai! or bean larrez
urde-taldea dabil uxarrean:
(urde goseak ezkur amets) (A karp. 145).

BERRIAK!... Betikoak:
zaharrak berri (B karp. 229).

Len ala, orain ola,
gaur ez jakin nola (B karp. 47)

(57) Ze malgutasun lexikala eta kontzeptuala duen poemak, oraindik, *lekar*o, *obo*, *neurkin* eta gisakoen bitartez. Euskararen ezagupen lexikalak, noski, mesede handia egin zion gure olerkariari. “Orra or zu / bakarti / lekaroan oyu-egille / neurkiña eskuan eta obo bat / kromletx-utsa / soil / garbi / iskutuz pilpil / dena sentikor / bakarrik IZATASUN...” (Ibidem).

“Ai, Illargi, ai! illargi” olerkian puntua, ia, bertso ez irregular guztitan azaltzen da (A/B, / A/B formulak gurutzatuz) (C karp. 17). Egitura bera “Atera ziren maitaleak” olerkian (C karp. 31-32).

IRAGANAK TINKO DIRAU

Irati Zabalza

KONTU KONTARI

Eguzkia erdi irekitako leiho batek sartzen zen, pabaturiko soluzan argiaren errotabide bat murratu eta geta erdi ihunduari argi izpi bat zartzen zuelarik. Ohe estuan etzanda, eskuak garondo azpian, leik noiz hartuko zain, Pedrok begira eta noraezean ziharduena izortzean, Aldameneko ohean lagun bat zurrunka ari zen; aurrekoan beste dñakare bat erretzen. Bi ormen luzeran simetrikoki leintutako hogeitamar oheetan beste hainbeste aiso-agure zeizan, siestan, etxeko ordenantzak hori agintzen bait zuen.

"Hainabi i'erdia, bazkaria; ordu bat i'erdia, siestaz, laurak, ostentxo bat; zazpiak, errosarioa eta afaria... eta hurreia eguna joan eta eguna etorri; hila joan eta hila etorri; urtez urte beriotzaren zain, ezer egin gabe misericordia ofizialari esker jan, edan eta le eginez".

Ohartabeki begiak erdi batura behatzen muen reiboidetaren angelu bat aldameneko ohearen anka bajara heldu zen. Gaisoaren zurringak isildu egin ziren; ametsetan hitzen batzuk zereldu zituen isiltan.

"Josetxo hau zoriontsu da. Bere bizitzan ez du jana, edana eta loa baino gehiago amestu! Edana! Bizitzan edan baino ez du egin. Bere ondasunak edan zituen, aurrekoek urteren ahaleginez, lusuiz eta neke handiz utri zizkioten ondasunak; bere izerdia edan zuen. Eta dena edan ondoren ona etorri zen. Berrogi urte edan; berrogi urte ba-soerri batekin ametsetan..."

Oteiza eskultoreari eskainiriko *Errebarentzia* poema sendoa "sen aundiko, tipik, bipil" epitetoen oihartzuna. Eta poemaren atari: "ez ar-bero / patenik gabe / esku-azpian / zabal / gartsu / eta nore erri-ristiaren gorpuzta billux..." dio (A karp. 236)⁵⁷

20. Errefrauek

Gaztelu-k gure hizkuntzaren ezagutzen sakon hedatua zuen. Hori esan dugunez, bere *hiztegituzta* lanetan nabaria da. Gure poetak orain ezagutzen zituen euskal hizkuntza zaharren baitan eta tradizioan zirenen altxorrak. Hori dela-eta, sorpetar hitzen ditugu, noiz-noiz, gure tradizioko errefrau edo esakun batzuk. Antzari hartuak dira. Hona, burki, horietako zenbait.

Entzuna diot **IRATNOX UTNOX**
KONTU KONTU

"Ohar akio

biziari,

bu dukok baatik

zer ikasi" (Biziaren erroetan, 14)

Bail or bean larrez

urde-taldea dabai ukarreen;

(urde goseak ezkir amets) (A karp. 145).

BERRIAK!... Betikoak:

zaharrak berri (B karp. 229).

Len ala, orain ola,

gaur ez jakin nola (B karp. 47)

(57) Ze maldutasun lexikala eta kontrapositu oinarrikoak, arandik, *lefaru, obo, neska* eta gisakoak bitartez. Euskararen ezagutzen lexikala, *nodak* atsedetue handie egin zion gure antzari. "Orra or Zu / bakari / lekarren oye-egile / neurkiba oortan eta obo bai / krimletx-oso soil / garbi / iskusio pabil / dena sentikor / bakarik IZATASUN..." (Ibidem).

"Ai, ilargi, ai, ilargi" olerkiak puntua, ia, berbio ez itregilar gutxian atalaren da (A/B, formak gutxituz) (C karp. 17). Egitaro berri "Atera ziren maitasun" olerkiak (C karp. 31-32).

IRAGANAK TINKO DIRAU

Iñaki Zumalde

Eguzkia erdi irekitako leiho batetik sartzen zen, pabaturiko zoluan argizko erronboide bat marraztu eta gela erdi ilunduan argi izpi bat zabalitzen zuelarik. Ohe estuan etzanda, eskuak garondo azpian, loak noiz hartuko zain, Pedrok begira eta noraezean ziharduen lozorroan. Aldameneko ohean lagun bat zurrunka ari zen; aurrekoan beste dohakabe bat erretzen. Bi ormen luzeran simetrikoki lerratutako hogeitamar ohetan beste hainbeste atso-agure zetzan, siestan, etxeko ordenantzak hori agintzen bait zuen.

“Hamabi t’erdiak, bazkaria; ordu bat t’erdia, siesta; laurak, osteratxo bat; zazpiak, errosarioa eta afaria... eta horrela eguna joan eta eguna etorri; hila joan eta hila etorri; urtez urte heriotzaren zain, ezer egin gabe miserikordia ofizialari esker jan, edan eta lo eginetz”.

Oharkabeki begiak erdi batuta behatzen nuen ronboidearen angelu bat aldameneko ohearen anka batera heldu zen. Gaisoaren zurrungak isildu egin ziren; ametsetan hitzen batzuk zezeldu zituen isilean.

“Josetxo hau zoriontsu da. Bere bizitzan ez du jana, edana eta loa baino gehiago amestu! Edana! Bizitzan edan baino ez du egin. Bere ondasunak edan zituen, aurrekoek urteren ahaleginez, ilusioz eta neke haundiz utzi zizkieten ondasunak; bere izerdia edan zuen. Eta dena edan ondoren ona etorri zen. Berrogei urte edaten; berrogei urte ba-soerdi batekin ametsetan...”

—Pedro, baduzu zigarrorik?

—Ez.

Aurreko ohekoak destainezko madarikazio bat bota zion. Manta barruan sartu eta lotarako gertatu zen.

“Eta beste hori? Hori munduan zehar ibili ondoren etorri zen ona. Enarak bezala alferkerian ibili zen, eguraldi onaren soinura. Honen bitzita leku berean ez egotea zen, paradisia bera izanda ere. Eta hona hemen preso; kalera ere ezin atera, hainbeste ibili ondoren oinek ez diote laguntzen. Erre eta erre, erregai den oro erre. Eske, beti eske, zigarroak, zigarrokinak...”

Exagonoaren alde bat ankatik gora zihoan. Kamioi bat igaro zen, ibili ezinda. Kanpandorreko erlijuak ordu bat jo zuen... zurrunka jarraitzen zuen...

...Jekitzeko ordua da!

Serora txaloka igaro zen. Zuri, beltz eta errosario kunder hotsa. Norbaitek ozenki urruma egin zuen; beste batek marmar egin zuen. Leihotik haur jolastien zaratak entzuten ziren. Gorputz zaharrak ez zuen jeiki nahi.

—Hori beti onenean dator...

—Hori da bere egin beharra... Ja, ja! Zer uste duzu zuk?

“Bah...! Gaur ez naiz aterako. Hobe da nere esne txarra usteltzea, pertsonak eta gauzak ikusita garrastu baino. Haurrak... garbitasuna, errugabetasuna; gazteak... mardultasuna eta ilusioak. Ilusioak...! eta ondo jan eta hobeto jazten diren horiek, Jainkoak daki zeren atzetik dabilten; autoak eta irriparreak; limosnatxoren bat emango balute lez agurtzen dute aspaldiko adiskideak. Eta... bah! Zertarako!”

Oinetan, haundiegi datorkion jaka; ehun ona, baina, bera bezala gastatuta, jubilatzean.

“Norena izan ote da zera...”

—Gero arte.

—Nora zoaz?

—Gaur On Nikolasen urteguna da; gaur goizean zorionak eman dizkiot eta bere kontura tragu bat harteko esan dit. Argi ibili behar da!

On Joakin igaro zen eztulka, lazki eta meheki; bere ziluetan mehea, erropaz jantzitako eskeletoa, atletik desagertu zen.

“Gizagaxoa! Horrek bai errukitzen bauela. Hogei urte eta bizitza ondatuta. Laister biriki gabe geratuko da. Ez dakit zernolako mamorrok jaten ari zaizkio. Adin horretan ni zoriontsu nintzen; bizitza irentsi egiten nuen, aurrera eta atzera begiratu gabe. Egun bakoitza zertzen zen promesa bat zen...”

Apurtxo bat zuzendu eta jaka hartu zuen. Sakelak arakatu eta tabako solte apur bat atera zuen. Nekez bildu zuen.

—Zigarrorik ez duzula esango duzu gero...

—Ez dut...

Eztukaldi batek ito zuen bere erantzuna haserre bizian jarri zuelarik. Madarikatu egin zuen, baina erretzen jarraitu zuen, aurrekoaren hitzei jaramonik egin gabe.

“Ah ze morroi gogaikarria! Denok eman behar diogu berari eta berak ez dio inori ezer ematen...! Mekauen!”

Gelaren bestaldean, bi agure balkoian euskarrituta eguraldiari buruz ari ziren, ea uztarako ona ala txarra zen eztabaidan. Ez dakit zein urtetan eguraldi berdintsuarekin arto uzta ona izan zela eta babarrun uzta hobea. Besta haretan, berriz, uzta eskasa izan zela honegatik edo horregatik...“Deabruak eraman ditzala baserritarrak eta uztak! Doazela kalera eztabaidatzera. Guri jaten eman diezaigutela eta bakean utzi. Nahiko lan egin dugu bizitzan!”

Felix isil-isilik sartu zen eta Pedoren ohe ertzean eseri zen. Bere konfidantzagizona zen, edozein gauzetaz hitz egin zezakeen bakarra. txikia eta potoloa, espresiorik gabeko aurpegiari ontasun itxura ematen zioten betaurreko itzelak zituen. Bizitzak gogor hartu zuen arren, ez zuen inoiz galdu berezko ontasuna. Langile nekegaitza, bere emaztearen erruz ultramarino negozio txikiak jasan zuen porrotaren lekuko izan zen. Emazte dipsomana porrokatuak hilobira eraman bait zituen ondasun guztiak, alargun eta hartzekodunen haserrearen oinordeko utzi zuelarik.

—Tabakorik?

—Oraitxe erre dut azken zigarroa.

—Tori.

Zenbait zigarrokin batuta zeukan paper zati bat zabaldu zuen.

—Nondik atera dituzu hainbeste?

—Gaur Resustaren etxean bankete bat izan dute, eta, atera direnean, jangelara sartzen utzi didate.

—Baina... eta zuretzat?

—Ah! Asko gelditzen zaizkit oraindik...

Zigarrokinei zerien usai garratzak kilikatu egin zuen.

—Felix, eta neretzat ez al duzu, ala?

—Bai mutil, horixe behar genian.

Bere ohera urbildu eta beste pakete bat eman zion, txikiagoa. Isil-isilik alde egin zuen. Zigarrokinak nahaskildu zituen. Ia osorik zegoen zigarro bat hartu eta begira begira jarri zitzaion ahora eraman aurretik. Zigarro puntta karminez zikinduta zegoen. Birau bat jaurti zuen muturra kentzen ziolarik, eta bat batean ezpainak garbitu zituen besoarekin.

“Urde harek alkandora zikindu zidan. Ah zernolako nahigabeak eman zizkidan! Horrela sartu nintzen bizitzaren misterioan. Hainbeste denpora ametsetan lehen baino okerrago geratzeko” —zigarroa isutu zuen— “Bah... hori ez da ezer! Aberats horiek ez dakite zertan dirua bota... Rosa ez zen horrelakoa; ez zuen era horretako potinjeak erabiltzen. Zenbat ilusio ezkondu haurretik... Bera ona izan zen, baina... gizagaisoak ez zuen gauza onik egiten. Juanitok eta Rikarditok lur jota utzi zuten. Nere ahalegin guztiak ezin izan zituen miseriatik atera. Berrogeitamar urte labe madarikatu haren aurrean, eta On Luis zikoitzak gosez ez hiltzeko beste ematen zidan. On Luis! Denek On Luis deitzen zioten negargarri bat izan arren. Dirudun zelako losintxaz betetzen genuen, tenazarekin jotea merezi arren. ”Gauzak gaizki dabilta; honek ezin du irau, egunetik egunera okerrago. Zergak, ba al dakizue zenbat kentzen didaten? Hemen denak xurgatzera datoz; horrela ezin dugu aurrera egin, ez ezin dugu... —eta zerbait desatsegina esan behar zigu-nean (hori bait zen bere eginbeharra) betaurrekoak egokitzen zituen— ez, ezin leike; ezin dizuet soldata jaso. Bizitzeko besterik ez dut irabazten eta!” *Gizagaixoak* bizitza osoa hortan eman zuen, doi-doi bizitzeko

adina irabazten, beti larri, baina milioak egin zituen, gu berriz harri ta mutil lanean..."

—Aizu, baduzu paperik?

—Tori.

—Ekatzu, mesedez, ikusten duzu...

Hitz zakar batzu jaurti zituen. Mahaitxotik zigarro papera hartu eta jaurkitzen ahalegindu zen. Gorputzak ezin izan zuen halako nekerik egin. Begiz zulatu zuen. Estaltzen zion oheazala alde batera bota eta neke haundiz jeiki zen. "Ah...! Tira hori ni baino okerrago dago..." Okertuta urbildu zitzaion eta paper batzu eman zizkion.

—Joe! Ea noiz erosten duzun papera, beti besteen kontura ibili barik.

—Zuk duzun erretiroa banu...

—Kaka zaharra!

Ohera itzuli eta etzan aurretik gaumahaitik ardo boteila bat hartu eta trago bat edan zuen. Ezpainak miatzkatzen etzan zen.

"Zuk duzun erretiroa banu..." Ja! erretiroa! Bost pezeta miserable, doi-doi ardo pixka bat edateko eta ez egunero. Berrogei urte lanean, ugazaba aberasten, eta orain hemen preso; hobe nuen horrek bezala bizitzaz gozatu. Horrek bizitza osoa parrandan eman zuen; ni, berriz, eguna joan eguna etorri, berrogeitamar urtez goizeko zortzietan edo lehenago infernura sartzen nintzen, dantzara. Eta orain biok hemen. Nik bost pezeta jasotzen ditudala eta horrek ezer ez, horixe desberdintsun bakarra. Bost pezeta ordaintzen zidan On Luisek orain hogeitamar urte eta horrekin bizi ginen ahal genuen bezala. Rosa laster joan zen; ezin izan zuen gure miseria eraman eta nere haurtxoekin geratu nintzen. Juanito azkar hasi zen eta ni gazte nintzenean zirikatu zizkidaten ideiak bururatu zitzaizkion; baina ni baino ausartagoa izan zen. Ahal izan zuenean Ameriketara joan zen diru egitera... Gizarajoa! Ez da nitaz gogoratu. Lotsatu egingo da, ze, aita zuhur eta berekoi lez esan niona egi bihurtu da. Ameriketari aberastu zen Errotako Rufinok zera esan zidan igaz, lanean ziharduela, behartsu, leku guztietako behartsuen erara. Rikardito bere ama bezalakoa zen. "Aita, nik lagunekin jolas egitera joan nahi dut". Joñas egin... kuittauak ezin zuen jolas egin. Hamahiru urte zituela joan zen... hilerrira eraman zuten.

Hamabi, hamar, zortzi ordu itoten zuen labe haren aurrean. Noizean behin On Luis igarotzen zen, egunetik egunera zaharrago, okertuago, betaurrekoak sudurretik erortzen zitzaizkiola. Berak ez zuen jasan behar labeko sua baina bazirudien osasuna ez zihoakiola hobeto; xurgatzen zigun odola kaltegarri gertatzen zitzaion nonbait. Gogoan dut labe ondotik igaro zen egun hura, betiko leloa errepikatuz: “pozik egon zaitezket, orain lau ordu gutxiago egiten duzue eta bi bider gehiago irabazten duzue...” Ja! ja!, bere azken *karitate* lana izan zen. Deabruak eraman zuen... edo, dena delakoek! Bere semeak...”

Kanpai hotsa entzun zen. Eguzkiak azken izpiak jaurtitzen zituen, indage, leiho irekitik sartuz, alboko ohearen zati bat zahuritzen zutelarik. Metereologo bikotea eguraldiaz eta iztaz eztabaidan igaro zen; Anton atzetik, karkaisa lurrera bota eta zapalduz. Jeiki egin zen; ardo trago bat edan eta euren atzetik joan zen makilaren laguntzaz.

Mojak Ave Mariak errezatzen zituen eta atso-agureek mekanikoki eta isilean erantzuten zioten. Azken aulkian eserita, begirada galduta eta ezpainak estututa, Pedro bere ideietan murgilduta zegoen. Eskubitan kapera menperatuz, pulpitoa hutsik.

“Igandetan apaizak gauza asko esaten ditu; orratzari ere punta ateratzen dio; oso ondo azaltzen du dena...; dena dago argi, baina... berarentzat! Berak bezala atera ahal banu hemen barruan dudana...; odola nastatzen didan hau. Horrek ez ditu bizi izan nere berrogeitamar urteak labe baten aurrean...; horrek ez ditu jasotzen nik bezala nere izerdien errentak... “Pazientzia... Jesusek gugaitik jasan zuen...” Eta nik eraman dudana On Luisen semeak kotxean eta parrandan ibil daitezen, eta orain bost pezeta zikin jasotzeko. “Mundu hau ez da zuzena... zorrak bestean ordainduko dira”. Bestean!”

Mojak otoitzean ziharduen, begiak batuta, errosarioaren kunderrak zenbatuz, atso-agureak erantzuten.

“Egun honetako ogia emaguzu gaur...”

“Zergatik ezin ote dut horretan sinistu beste hauek bezala? Horrela dena argi legoke, abadeak domeketan dionez. Baina... ezin dut! Ia eraman ezin dudan gorputz honek, berrogeitamar urtez odoleztaturiko gorputz honek hitzak baino zerbait gehiago behar du: berotasuna, mai-

tasuna, kapritxoak... Ez nituzke ezertarako baina. Joanak joan eta ez du konponbiderik.

Orduan zer? Nahi nuke... ez dakit, ez dakit. Hemen barruak dudan hau hautsi; iraganari baietza eman; lasaitu. Baina hemen dudan odol usteldu hau... "Aita, pelota bat nahi dut; zergatik ez didazu erosten?" "Hau arintzeko sendagai berri bat behar da. baina... ez dakit, garestia da, oso garestia... "Itxaron ezazu egun batzuk, mesedez; aurrerapen bat eskatuko dut eta ordainduko dizut..." "Berehala ordaintzen ez badidazu, beste etxebizitza bat bilatu beharko duzu". Zer dela eta eraman behar izan dut Hainbeste! On Luisen semeak ordea... 300.000 pezeta ordaindu omen dute". 300.000 pezeta! Horietatik zenbat ote dira ne-reak? Ez, ez, ezin liteke! Ez, ez...!"

—Aizu, ba alduzu ogirik afaltzeko?

—...

—Pedro! Ez alduzu entzuten?

—Hoa txakurraren salara!

—Joe! eman nahi ez duzunean...

—Utz eidak bakean!

Eskumako atso zaharrak zizikatzen hasi ziren destainezko begiradak jaurtikitzen zizkiotelarik.

—*Refugium peccatorum.*

—*Ora pro nobis.*

—*Consolatrix afflictorum.*

—*Ora pro nobis.*

Juan Luis Panero-ren poema bat,
Saio estilistikoa

Gerardo Markuleta

OLERKIAK

Y de pronto anochece

*Ed é subito sera
(S. Quasimodo)*

Vivir es ver morir, envejecer es eso,
empalagoso, terco olor a muerte,
esentras repites, inútilmente, unas palabras,
cascaras secas, cristal quebrado.
Ver morir a los otros, a aquéllos,
severa, que de verdad quisiste,
darrugados, deshechos, como el final de este cigarrillo,
resaca y gestos, imágenes quemadas, arrugado papel.
Y verte morir a ti también,
removiendo frías cenizas, borrados perfumes,
distintos sueños, turbia memoria.
Vivir es ver morir y es frágil la materia
y todo se sabía y no había engaño,
pero carne y sangre, misterioso fluir,
querena perseverar, afirmar lo imposible.

OLERKIAK

Juan Luis Panero-ren poema bat.

Saio estilistikoa

Gerardo Markuleta

Y de pronto anochece

Ed é subito sera
(S. Quasimodo)

Vivir es ver morir, envejecer es eso,
empalagoso, terco olor a muerte,
mientras repites, inútilmente, unas palabras,
cáscaras secas, cristal quebrado.

Ver morir a los otros, a aquéllos,
pocos, que de verdad quisiste,
derrumbados, deshechos, como el final de este cigarrillo,
rostros y gestos, imágenes quemadas, arrugado papel.

Y verte morir a ti también,
removiendo frías cenizas, borrados perfiles,
disformes sueños, turbia memoria.

Vivir es ver morir y es frágil la materia
y todo se sabía y no había engaño,
pero carne y sangre, misterioso fluir,
quieren perseverar, afirmar lo imposible.

Copa vacía, tembloroso pulso, cenicero sucio,
en la luz nublada del atardecer.

Vivir es ver morir, nada se aprende,
todo es un despiadado sentimiento,
años, palabras, pieles, desgarrada ternura,
calor helado de la muerte.

Vivir es ver morir, nada nos protege,
nada tuvo su ayer, nada su mañana,
y de pronto anochece.

Juan Luis Panero

Antes que llegue la noche,
Península, Bartzelona, 1985.

Eta bapatean gaua

Ed é subito sera

Salvatore Quasimodo

Bizitza hiltzen ikustea da, horixe da zahartzea,
herio usain likatsu, tematia,
zenbait hitz —alperrik— errepikatuaz batera,
oskol lehortuak, beira kraskatuak.
Besteak hiltzen ikusi, benetan
maite izan dituzun bakanak,
birrindurik, deseginak, zigarro honen bukaeraren antzera,
aurpegi eta keinuak, irudi erraustuak, paper ximurtua.
Eta zeure burua ere hiltzen ikusi,
errauts hoztuei, xilueta ezabatuei,
amets formagabeei eraginez, memoria zikindua.

Bizitza hiltzen ikustea da eta materia hauskorra
eta bagenekien dena eta ez zen engainurik,
baina haragi eta odolak, jario misteriotsua,
iraun guran dabilta, ezinezkoa baieztatuz.

Kopa hustua, dardarka pultsua, zikin hautsontzia
iluntzearen argi lausotuan.

Bizitza, hiltzen ikustea, ez da ezer ikasten,
dena errukigabeko sentimendua,
urteak, hitzak, azalak, samurtasun pitzatua,
herioaren bero jelatua.

Bizitza da hiltzen ikustea, ez gaitu ezerk babesten,
ez du ezerk atzokorik izan, ezerk biharamonik ez,
eta bapatean gaua.

Juan Luis Panero

Y de pronto anochece,

Península,artzelona, 1985.

—I—

Poema inguratzen duten erlazio paratestualen deskribapena testua-
rekiko lehen hurbilketa egokia izan daiteke, kasu zehatz honetan tes-
tuaren bilbapen semantikoaren analisirako lehen pausu emankor bezala
agertzen bait zaigu.

Poema liburuak *Antes que llegue la noche* daroa izenburu. Liburuak
eta poemaren izenburuen artean gertatzen den paralelismo bikoitzak
(denbora erreferentziak, gauaren aitaketa) agerian uzten du bien arteko
esanahi-konfluentzia.

Liburuak, bestalde, bost ataletan dago banaturik, hauetako bakoi-
tzak bere izenburuak daroalarik. Irakurketa osoak errez ematen digu
aditzera bost unitate horiek bi atal nagusitan elkar daitezkeela: lehen

hirurek izenburu orokorrarekin lotura estuagoa duen eta alde zurreratik eskema eraikitzaile bati erantzuten dion atal bakarra osatzen dute. Izan ere, atal hauxe *da* liburua. Azken bi unitateak atal nagusiarekiko gehigarriak dira: okasiozko poemez (omenaldiak, birkreazioak) daude osaturik, eta ez dute asmo eraikitzaile agertzen, pilaketa asmoa baizik. Guzti hau gure poemaren kokapenak duen balio signifikatiboa azpimarratzera dator: III unitatearen *azken* lekuan *doa*, hau da, funtsean liburua den atal nagusia ixten. Honela, *Antes que llegue la noche* liburuaren azken poemak “Y de pronto anochece” du izenburu. Poemak hersten duen III unitateak, gainera, “Todavía la vida” du izena. Berriz ere denbora erreferentzia, baina kasu honetan *permanentzia* azpimarratzen du aurrekoen *inminentzia* zentzuari kontrajarriz: “Antes que” eta “de pronto”. Kontraposizio hau bizitza/gaua bikotera ere hedatu daiteke, zeinean lehen elementua erabat denotatiboa den eta bigarrena heriotzaren begibistako metafora. Honela, “Todavía la vida” izeneko unitatea “Y de pronto anochece” (eta bapatean *heriotza*) poemarekin ixten da.

Azkenik, poemaren buruan doan epigrafea poemaren izenburua bera da —itzulia—, baita azken bertsolerro bera ere. Ez dakigu jatorrizkoan deskribapen balio soila ote zuen, baina garbi da testuinguru honetan zentzu transzendentea hartzen duela.

Nolabaiteko kontraesan edo desajustea soma daiteke “de pronto” denbora sintagmak adierazten duen bapatekotasuna eta errepikapen hirukoitzaren artean (poemaren hasieratik ere bitan iragarrita). Poema baten azken bertsolerroa izenburu jartzea baliabide arrunta da poesia garaikidean, baina kasu honetan testu osoaren zentzuarekiko kontraesana bide da. Poetikoki eraginkorragoa gertatuko litzaiteke, agian, informazio hori poemaren bukaerara arte gordetzea, esanahia eta forma-egituraren arteko paralelismoa sortuz. Poetak informazioa aurrez iragartzeko eta ezusteari uko egiteko dituen arrazoiak argi adierazten dira 13. bertsolerroan: “y todo se sabía y no había engaño”.

Erlazio paratestualen azterketa soilak bideratu egiten gaitu, beraz, gaiaren xedean: heriotza bapateko —baina alde zurreratik iragarritako— gertaera bezala deskribatzen da, berau gauarekin lotzen duen metafora baten bidez.

—II—

Testuan ez dago ahapaldi zatiketa grafikorik. Baina lerro hutsen eta “sangria” delakoaren orde, pausa sintaktiko luzeek betetzen dute haien funtzio egituratzailea.

Honela, bi egitura paralelok osatzen dute poema: lau bertsolerrotako bi multzo eta hiru bertsolerrotako bat jarraian (1-4, 5-8, 9-11). Egitura hau errepikatu egiten da gero, baina lau bertsolerrotako multzo bien artean bi bertsolerrotako bat txertatzen da, neurri honetako bakarra poema osoan eta, ikusiko dugunez, oso bestelakoa deskribapen funtzioa duelako (12-15, 18-21, 22-24; eta 16-17 eskema errepikatutik kanpo geratzen direnak).

Aipagarria da 24. bertsolerroa: “y de pronto anochece”, errepikapena eta kokapen bereziarengatik garrantzi handikoa, ez dela egitura orokatu honetatik desmarkaturik agertzen, espero genazakeen modura, bertan ongi txertaturik baino: berriro ere “y todo se sabía...” (13)-n adierazitakoaren oihartzuna, maila formalean oraingoa.

I atala	— A multzoa	(1-4)
	— B ”	(5-8)
	— C ”	(9-11)
II atala	— A multzoa	(12-15)
	— B ”	(18-21)
	— C ”	(22-24)
		X multzoa (16-17)

—III—

I atala (1-11 bertsolerroak) hiru multzoetan (A, B eta C) ematen den “ver morir” hitzen errepikapenaren bidez egituratzen da. (Hasiara bapatekoa da, gaia zuzenean adieraziz, inolako sarrera moduko barik, izenburuan eta epigrafean aitatutako gauaren balio metaforikoa hasieratik garbi uzteko edo, eta “todo se sabía”-ri oihartzun berri bat emanez).

A taldearen hasieran egiten den baieztapena: “Vivir es ver morir”, zehaztu egingo da gero B-n: “Ver morir a los otros” eta C-n: “Y verte morir a ti también” (preposizio kopulatiboak egiaztatu egiten du atal honen batasuna).

Infinitiboen erabilpenean isladatzen den tonu diskurtsiboari 2. pertsona autorreflexiboarena gehitzen zaio, hiru multzoetan: “repiten”, “quisiste”, “verte... a ti”.

Dramatikotasun handiago edota hil-erresi tonuaren ezak, berriro ere, “todo se sabía”-rekin du zerikusia; eta negatibotasunaren adierazpena (denotazioaz gain) beste baliabide foniko eta sintaktikoei atxekitzen zaie. Lehenengoan artean:

—/r/ hotsaren aliterazioa, infinitiboen azken kontsonantea aprobetxatuz, berauen oihartzuna jasotzen du, posizio inplosiboan jarriz, gainera: “terco olor de muerte”.

—/k/ hotsaren errepikapena, laugarren bertsolerroan: “cáscaras secas, cristal quebrado”.

Samur eman diezaiekegu aliterazio biei *zakartasun*, *haustura*, *hondamen* zentzua, eta esanahi honek indar handiagoa hartzen du sintaxi-puskaketaren bidez: bertsolerroaren barne-pausa ugariak; “olor” izenaren aurreko bi izenondoan komaren bidezko banaketa; “unas palabras/cáscaras secas/cristal quebrado” sintagmen arteko kopularik eza; hirugarren bertsolerroan, aditza etaa objektuaren artean, “inútilmente” aditzondoaren txertaketa, honela pausa bikoitzaren beharra sortuz.

Gorago zerrendaturiko zentzuak denotatiboki ere adierazten dira: “morir”, “envejecer”, “muerte”, “secas”, “quebrado”. Eta “inútilmente” aditzondoaren bidez azpimarratu egiten da. Funtzio berbera dute “palabras” terminoa hutsalkeria, ezdeuskeria, galkorkeria eta hauskorkeriarekin lotzen duten metafora itsusgarriek: “cáscaras secas”, “cristal quebrado” bigarren terminoek (bien erreferenteak barrenean zerbait gordetzeko sortu eta honez gero horretarako baliorik gabeak izanik) azalkeria eta huskeriatzat jotzen duten poeta beraren zeregina: “repetir unas palabras”.

Lehen aitatu dugun sintaxi-zatiketa poema osoan barrena hedatzen da, gailurrik nabariena testuan barreiaturik —baina batez ere multzo bukaeretan— agertzen diren enumerazioetan duelarik. Kopularik gabe

eta pausen bitartez bereizitako *izenondoa+izena* multzo pilaketak dira (gero izenondoen leku-jokua izango da, izenaren aurre eta ostekoak tartekatuz) eta *izena+"y"+izena*, kasuren batean:

- “cáscaras secas, cristal quebrado” (4)
- “rostros y gestos, imágenes quemadas, arrugado papel” (8)
- “frías cenizas, borrados perfiles,
disformes sueños, turbia memoria” (10 eta 11)
- “Copa vacía, tembloroso pulso, cenicero sucio” (16)
- “años, palabras, pieles, desgarrada ternura,
calor helado” (20 eta 21)

Enumerazio asindetiko hauek, sintaxi-zatiketa orokorra bera bezalaxe, lehen adierazitako balio ezezkoiei eransten zaizkie, eta multzo bukaeran agertzeko preferentziak ere *heriotz* zentzua sakon dezake.

Zentzu hau, A multzoan baieztapen orokorra zena, B eta C-n zehaztu egiten da, “muerte de los otros” eta “tu muerte” (poeta berarena) esaterakoan. Honela gizakiaren figura sartzen da poeman, hala ere tonu diskurtsibo eta abstraktoari utzi gabe; poetak benetan maite izan zituenak aipatzen ditu, baina oso era orokor eta ez bereizgarrian: “los otros”, “aquéllos”. “Pocos” izenondoaren zangalatraba eta pausen arteko kokapena ere sintaxi- zatiketaren beste agerpen bat da.

“La muerte de los otros” eta “el final de este cigarrillo” lotzen dituen konparaketan —*bukaera, hondamena* amankomuneko semak harturik— agertoki zehatz batean kokatzen digu poema; eskenatokia, bestalde, adierazpenekiko aldiberekoa da: “este”, mailarik hurbileneko deiktikoa. Agertoki hau osotuz joango da poema osoan zehar (16 eta 17. bertsolerroetan, batez ere) eta *heriotz* maila metaforikoari dagokion maila erreala osatuko du.

Honez gain, arlo semantiko berri bat zabaltzen du, gero iraupen luzea izango duena: “quemadas”, “cenizas”, “cenicero sucio” eta aurre egingo dio, eguneroko objektu zehatz horien aitamenarekin, tonu orokorri —diskurtsibo eta abstraktoa—.

I B multzo hau ixten duen enumerazioa konparaketaren oihartzuna da eta, nahiko era nahasian, tartekatuz egiten ditu elementu errealak

("rostros y gestos", "papel" —erreala zigarroari dagokionean, baina balizko *hauskor* balio metaforikoarekin—) eta metaforikoak ("imágenes quemadas", "arrugado"); giza-elementuak ("rostros y gestos"), besteren heriotzarekin loturik, eta inanimatuak ("arrugado papel"), zigarroaren bukaerarekin lotuak.

I atalaren C multzoan, bizitza nork bere heriotzaren begiraldi bezala ulertze hori aberastu egiten da poetaren iharduna aipatzerakoan (3. b.) eta /r/ hotsaren beste aliterazio batekin (azken enumerazio osoan mantentzen dena):

“frías cenizas, borrados perfiles,
disformes sueños, turbia memoria”

—IV—

II atalaren hasieran 1. bertsolerroko baieztapena errepikatzen da, bertako infinitiboek, “frágil materia” sintagmaz batera, aliterazioa iraun eraziz. Bi baliabide hauek nolabaiteko lotura ematen diete atal bici. “Vivir es ver morir”- en errepikapenak berrindartze itxura ematen die lehen bertsolerroei, itxura hori diskurtsoari abiadura handiago eta ia biolentzia ematen dizkion polisindetonaren bidez sendoagotzen delarik: “Y es frágil la materia/ y todo se sabía y no había engaño”. Gogora dezagun azken bertsolerro honek adierazten duen ideiak garrantzi handia duela poemaren egituraketan. Bigarren atal honetan ez da giza-elementurik agertzen (aparteko multzoa osatzen duten 16 eta 17. bertsolerroetatik at) eta hirugarren pertsona da nagusi, honela adierazpenaren jite abstraktoa indartuz: “materia”, “carne y sangre”, “fluir”, “perseverar”, “afirmar”, “imposible”.

II atal honetako A multzoan bi ideien arteko kontrajartzea: *jakinaren gaineko gertaera* eta *etsipen eza*, eta honekin batera, sintaxi aurkakotasuna (polisindetonaren ostean, erabateko sintaxi zatiketara itzultzen da: 14 eta 15. b.) dira azpimagarriena.

Honi aditz-denboren kontrastea gehitu behar zaio: inperfektoak, al-

de batetik: “se sabía”, “no había”; eta, berriro ere, infinitiboak; “fluir”, “perseverar”, “afirmar” eta orainaldikoak: “quieren”. Ni poetikoaren adierazitakoarekiko hoztasun eta abstrakzioa, 13 eta 14. bertsolerroen oldartasuna zela medio apur bat apaldurik, inposatu egiten da berriro ere eta haruntzago doa, poeta “carne y sangre” soilarekin identifikatuz.

Baina, atal hau abstraktoena izanik ere, honetantxe agertzen zaigu une deskriptibo bakarra: 16 eta 17. b. Baina deskribapena inguruko abstrakzio tonuaz kutsatzen da eta sintaxi-zatituzko enumerazio soilean gelditzen da. Pasarte deskriptibo honek arestian agerturiko elementuak biltzen ditu: “cáscaras secas”, “cristal quebrado”, “final de este cigarrillo”, “imágenes quemadas, arrugado papel”, “frías cenizas”. *Izena-izenondoa* eta *izenondoa-izena* egituren tartekatze jokuak jarraitu egiten du. Eta iluntzearen aipameak gorpuztu egiten du, azkenean, poemari izenburu ematen dion maila metaforikoa, bukaerara arte berriz agertuko ez delarik.

“Vivir es ver morir” baieztapenaren multzo hasierako errepikapenak sendotu egiten du bigarren atalaren (12-15; 18-24 b.) batasuna.

II ataleko B multzoan isladatzen diren ideiak ez datoz bat, itxuraz behintzat, lehen adierazitakoarekin: gorago “todo se sabía” esaten bada ere, orain, berriz, “nada se aprende”. Eta poemaren jite hausnarkor eta diskurtsiboaren aldean “todo es... sentimiento” baieztatzen da. Kontraste hauei aurrejartze lexikoa: “nada/todo” (18 eta 19) eta lehengoak baino zatituagoa den enumerazioa gehitzen zaizkie: *Izena+izena+izena+izenondoa+izena+izena+izenondoa+izen laguna*. Bukatzeko, “calor/helado” aurrejartze lexiko antitetikoa.

Guzti honek jakinaren ginekotasuna eta etsipen ezaren arteko tirabiren islada dirudi, hau da, Arrazoa eta Pasioaren artekoak, azken hau bizi-grina bezala ulerturik.

19 eta 20. bertsolerroetako enumerazioa ez da kaotikoa; izen baikoitza bizitzaren oinarritzko arlo bati dagokio: “años” = *denboraren iragaitea*; “palabras” = *poesigintza*; “pieles” = *elkarbizitza, maitasuna*. “Ternura” izenak aurrekoaren ideia errepikatzen du, berau hedatuz eta enumerazioari egitura gehikorra emanez: hiru *izen* huts, *izena+izenondoa*, *izena+izenondoa+izenlaguna*. Egitura esanguratsua, heriotzari ematen bait zaio azken tokia eta gorputz sintaktikorik zabalena.

Hainbat kontrastetan isladatzen den Arrazoaia eta Pasioaren arteko burrukak, bere bizkortasun eta mugimenduarekin, sarrera ematen dio ekintza guztien bapateko etenari: poemaren bukaera, gaua, heriotza. C multzoko “nada” hitzaren errepikapen hirukoitzak ere bukaera iragar-tzen du.

Bi datu aipagarri: alde batetik, pluraleko lehen pertsonaren ezusteko agerpena, orokortasuna bilatuz, agian. Eta bestalde, denbora-aitamen pilaketaren aurrean: “ayer, mañana, de pronto, anochece”, denborak berak erreferentzia edo euskarri gisa duen balio eza aldarrikatzen da.

Azken bertsoleroaren funtzioak hitz egin da lehenago.

—V—

Poemaren azterketa metriko eta erritmikoak esandakoari ezer gutxi gehi diezaiokeelakoan gaude. Moeta honetako baliabideen urria (zangalatraba bakar bat, neurri irregularra, erritmo irregularra eta zenbait momentutan malkartsua) komentatu ditugun beste batzuen erabilerak kitatzen du: erlazio paratestualak, materia poetikoaren egituraketa; errepikapen foniko, lexiko, sintaktiko eta semantikoak; enumerazioak, metafora zehatzak eta osoko metaforizazioa.

Finean, giza biziari buruzko hausnarketa da, bizia —jakinaren gai-neko heriotzaren ideia buru izanik— zahartze prozesu etengabe bezala ulerturik; hausnarketa, ilunabarraren deskripaben batean enmarkatzen da, harekin metaforikoki erlazionatuz eta indarra bai gauaren bai he-riotzaren bapateko etorreran jarriz.

Poetaren goiargia

Luis Mari Mujika

Hainbestean, hainbestean
nintzen goialdera joan
—hatsak gorantza eroan—
uso itzul nintzela airean,
eta gailurretan egan
hegada nagi-harroan
(ah, ze gozamen neregan!)
gelditu maila goikoan.

Ene poesi otzana,
—hau hartu eta hura utzita—
goi-gailurretan barna
egin genun elkar-zita,
halako hitz, halako bista
gaindiezina zen dana
pisurik ez duen zama
gisa airean eskegita.

Poesia-damari

Itxi nitun atetillak,
laga albora hainbat arazo
(gezurtia al naiz, akaso?),
bildu ere lehiatilak,
lehendiko olermen hila
zitzaidan garretan jaso,
ahaztu guztiz iskanbilak,
senti musaren eraso.

Han gelditu nintzen lotan
hitz ezti-nagian gentzan,
ohe bigunean etzan
ene damaren ondoan,
bere berba nun eroan
(nik ez nion ezer esan)
molde oso isilekoan
bihotzak dena ausnar zezan.

Altzifrearen itzala

Altzifrearen itzala
itzal gaitz-serioa,
altzifreak atzamarka
landaren aspergoa
(utz nazazu landarekin
bihurtzen minago!),
berde mikatzak hozkatzen
pinuen arrastoa,
ortzemugan hilobiak
iresten ilun noa,
isilgunea lagunmin
(ah, nahikoa, nahikoa!)
kanpusantua ausnarturik
ironia geldoaz
(utz nazazute, mesedez,
biltzen *barneagoa*),
altzifre berde-hotzetan
ahitzen ene leloa,
Goltzurko ote makurretan
ihes zentzu zoroa...

Azaroa makaletan

Azaroa makaletan,
gozo, kuttun, hori,
olibadi ta mahastiak
arratsaren zoriz
(zergatik ote da, esan,
hitza ene hilobi?),
pentsa ondoren pentsatuz,
koan ta etorri
udazkenak gauza berak
dizkida egotzi,
Arga-ren ertzetan mahatsa
aletzen, zozo bi
zumarren lo epelean,
ah, ze malenkoni...!

Gizon etsia

Sartu nintzen behin izuti
bere begi leihotara,
begi haietan enara
bat zegoen urkaturik,
puial baten hortzak zutik
barre zegiten gogara,
arima dardar, biluzi,
ah, ezin nintzen atara...!

Gaztelak bidetan urre,
Euskal Herriak gaitz luze.

Laban beltza sabelean
zaida krudel etzan,
labana gelditu aih, aih,
zutik alajainan
(—“ez, ez nazazu ni zula,
hilagun baitzaituda!”),
laban hotza bat-batean
hasi zait galdetan,
—“duzun odol oro eman
mendeko zaitean”,
sabela, esteak, bihotz
husturik ta hilotz,
laban beltza sabelean
zaida krudel etzan...

Gaztelak bideak luze... (Gerardo Diego-ri, 10-VII-1987)

Gaztelak bidetan urre,
Euskal Herriak gaitz luze,
Gaztelaren luzamena
bihotz etsiaren pena,
gaztelania burugoi,
euskara, berriz, izukoi,
euskararen bizimendu
gaztelaniak jaten du,
hamar hagin hozka lurra
(ah, gaztelani lapurra!)
mintzairaren asperenaz
bailitzan mintzo-eihera,
inguruan euskal hitzak
(bihotz, bihotz, entzun itzak!)
kexu ixila barreiatzen
dabilta gaur gailen,
Gaztelak bidetan urre,
Euskal Herriak gaitz luze.

Ne guz, udaz, udazkeneko...
hots oztinen errotan
ura doa etsipenez
noiz izango itsasoan.

—“Arren, etzaite urrunera
Euskal Herri-tik joan,
gera zaitetz, hemen gera,
hizketa maitezkoan...”

Ene isiltasunaz...

Ene isiltasunaz eta
bakardadeaz ase
gauaren ontzi ilunean
(beltzgorik daiteke?)
itotzen naiz, ezkututzen
izu gaitzaren jabe,
ene eneari (nolatan?)
bakanki natza galde,
galderak eta susmoak
bat-bestearen atze
(ausaz, jainkoak ene hitzaz
kezkatu ote daude?),
itzal nagusien gisa
galderak eragabe,
“naiz”, “ez naiz”, “zertarako naiz”,
“aih, ez izan naiteke”,
ene susmoen gorpila
malda behera herabe,
barneko ibarretan kezkek
etengabeko larre...

Urederra ibaia

(Gerardo Diego-ri, 10-VII-1987)

Uraren ispiluetan
galtsoroen urrea,
ur hotzaren besoetan
nagi, isil paisajea.

Urbasa-oinetan zehatz
ur garbizko zauria
kristaletan irekia,
aih, ze egarria dedan!

Urederra goitik-behera
Amezkoetan zehar,
arrats nagiak asperra
ur freskotan hiltzear.

—“Ah, niretzako zure urak
“ur eder”, osin berde,
zuregan ito nindeke
“hutsa”lortzeko guraz”.

Neguz, udaz, udazkenez
hots oztinen errotan
ura doa etsipenez
noiz izango itsasoan.

—“Arren, etzaite urrunera
Euskal Herri-tik joan,
gera zaitez, hemen gera,
hizketa maitezkoan...”

Olerki hibridoa
(1991-X-26)

Ay, mi amada bihotzean,
cuando te ví nere aldean
qué es lo que sentí, aih, ene,
qué es lo que ví, maite nere,
mi Esther, guztiz zinen eder,
del todo eras airos, lerden,
tus brazos, sabela ta izter
eran suaves fruta baizen,
ah, y tus pechos neregan
nadaban arrain bezelan,
con tu amor gau-jostari
bebí sabroso edari,
junto a mí uso bazendi
consentida zaitut senti,
ay, mi Esther, ay, nere Esther,
cuánto eres dulce ta ze eder!!!

Nik etzaituda...

Nik etzaituda ordainetan maite,
ezta zinelako noiz-noiz maitakor
(goizegi zitzaizun maitasuna agor),
maitatzen zaituda zuk maita gabe.

Zure ederrak erretzen nau buka arte,
urrun ala gertu barnean zagoz
nahizta ene joerekin ez ados,
bihotz hontan nolan zuk ez gozarte?

Dolutzen, mintzen nauzu, nik, ordea,
hutsune hain lazkarrien ordain
eskaintzen ene desiren betea.

Entzun, zure arbuio guztien gain
nahizta espero nuena ez gerta
zurea nauzu guztiz, lehen eta orain.

Ortze zuriko ilargi

Ortze zuriko ilargi,
bihotz gaitzak naragi
beregana, aiah, aih, aih, aih.

Eguzkiaren gori,
zergatik sugar hori?
beregana, aih, aih, aih, aih.

Maitaleak hitz nagiz
narakar leun, baldanki
beregana aih, aih, aih, aih.

Aih, maitearen zori,
aih, bihotzaren hordi,
beregana, aih, aih, aih, aih,

Josebak Mariari

Josebak Mariari
aih, aih, aih,
Mariak Josebari
bai, bai, bai,
amodioa elkarri
begirada argizko sari,
maitasun leun-zoragarri
bata-besteak opari,
Josebak Mariari
aih, aih, aih,
Mariak Josebari
bai, bai, bai...

Entzun, zure arazoak
nahizta espero nuena ez gerta
zurea nauzu guztiz, ihen eta orain.

Bi gazte

Ai Bi gazte maita-zoriz
bihotzaren su goriz
—“zure ondotik ihes
ez naiteke joan ez”,
zioen bero-garmin
nahiz ezin zela jakin
mutilak neskatxari,
neskatxak mutilari...

Nik ogoi jakin hon
(hobe litzake ez jakin)
jari goibel eta samin,
jartzen nazu oso eri,
bainintzen zure maitamain,
og txit ta tri oso.

Aih, aih, zindudan ikusi
hobe ez bazinen itzuli,
jari goibel eta samin,
(ah, ah, hobe nun ez jakin),
og txit ta tri oso,
dena baitzenidan esan,
ezetzaren berri eman,

Ah, ah, hobe nun ez jakin
(betinago batez isil nadin)
Aih, aih, zindudan ikusi
hobe ez bazinen itzuli,
jari goibel eta samin,

Ah, sekretuaren gordin
eta arbuioaren samin,
hobe nuen nik ez jakin
hain, hain zinadela hozmin,

Aih, aih, zindudan ikusi
hobe ez bazinen itzuli.

Arren, etzaite etorri

Gogor didazu eragin,
erraiak bihurtu irakin,
gogor didazu eragin,
arren, etzaite etorri.

Erraiak bihurtu irakin
bainintzen zure maitamin,
erraiak bihurtu irakin,
arren, etzaite etorri.

Bainintzen zure maitamin
jarri goibel eta samin,
bainintzen zure maitamin,
arren, etzaite etorri.

Jarri goibel eta samin
(ah, ah, hobe nun ez jakin),
jarri goibel eta samin,
arren, etzaite etorri.

Ah, ah, hobe nun ez jakin
(behingo batez isil nadin!),
ah, ah, hobe nun ez jakin...,
arren, etzaite etorri.

Aih, aih, zindudan ikusi.

*Aih, aih, zindudan ikusi,
hobe ez bazinen itzuli.*

Arboladian arbol bi,
arboladian bi itzal,
beti iheskor izan zinan,
nik ongi dakida hori.

*Aih, aih, zindudan ikusi
hobe ez bazinen itzuli.*

Nik ongi dakida hori
(hobe litzake ez baneki),
jartzen nauzu oso eri,
oso eri ta txit gori.

*Aih, aih, zindudan ikusi
hobe ez bazinen itzuli.*

Oso eri ta txit gori
dena baizenidan esan,
ezetzaren berri eman,
ah, sekretuaren gordin.

*Aih, aih, zindudan ikusi
hobe ez bazinen itzuli.*

Ah, sekretuaren gordin
eta arbuioaren samin,
hobe nuen nik ez jakin
hain, hain zinadela hozmin.

*Aih, aih, zindudan ikusi
hobe ez bazinen itzuli.*

Ezkon-egunean

(Puntuak etenetan bakarrik)

Elosu-n, 30-V-1990 (Gip.)

“Senargaia non, aih!” / eliz-kanpaia dilidan,
eliz-kanpaia alai, / Idoia amoretan da-ta
neskatxak ezkon nahi, / —“ama, jantzi zuria non da,
jantzi zuria, bai, bai”, / dorrean hamaika kolpe,
eguzkia garai, / Idoiaren ezpain biak
gerezi-anpolai, / bular leunen tontorra
araun-usainez blai, / ah, sabelaren zuria,
ah, izterren usain, / —“zapata zuriak, non, non,
bihotza dut ernai, / oraindik lore-koroia
buruan falta zait”. / Ah, lore-koroia falta
t’ezkontzeko garai, / —“ekardazu lepokoa,
eraztuna ere bai”, / eliz-kanpaia dilindan,
eliz-kanpaiek jai, / bular zurien alturan
lizar-begiak zai, / —“tori lore-sorta argia,
promes urdinen gai”, / eliz-kanpaia dangaka
—“nor da zure galai?”, / hamaika kolpe dorrean,
eguzkiak dirdai, / “ezkon nahi zenuke bainan
zuk ez *senargai!*”. / Eliz-kanpaia-dilindan...

Bazko-egunez
(31-III-1991)

(Puntuak etenetan eta lerro-amaieretan)

Udalehena da etorri, / loretan huntza, zitori, /
arrosak eta elorri / (indarra nork dio nori?), /
ederra ederrez gori, / alai enarak ta txori /
jauzika orritik-orri / bailuteen oreinaren zori. /
—“Hil egin zaituzte, Jesus, / igurtzi usain ta ukenduz, /
heriotzaren mendekuz / harri hotzean ostendu”. /
—“Hilobi hotzan, Maria, / esan, zer duzu ikusia?”, /
—“aingerua ta jantziak, / gorpurik gabeko hobia, /
mugitzean gain-harria / iluna ordez argia, /
bozkariozko ditzia, / biztu baita Jaun Handia!!”. /

Sufrimenduen ondoren

Basko-eguzia
(31-III-1991)

(Puntuak etenetan eta lerro amairetan)

Sufrimenduen ondoren / baretasuna dut gura,./
bake ederra —ez mindura—, / barren barrerendik datorren /
ezbai gabeko hats goren. /

Barne-gelatan sartzen naiz / oihartzun hobeen gose /
(kanpoan sufritu oste); sartzeak, bainan, dagit gaitz /
bihotzak dulako ekaitz... /

—“Hilobi horretan, ez da... /
—“ingurua... /
mugitzen gain... /
bur... /
“ezkontzeko garai, /—“ekardazu lepokoa,
eratzuna ere bai”, / eliz-kanpaita dilindan,
eliz-kanpaita jai, / bular zurien aluran
lizar-begiak zai, /—“tori lore-sortu argia,
promes urdinen gai”, / eliz-kanpaita dangaka
—“nor da zure galai?”, / hamaika kolpe dotorean,
eguzkiak dirudi, / “ezkon nahi zenuke bainan
zuk ez senargai!”, / Eliz-kanpaita dilindan...

Longida eta Artzibar-ko lurretan
(28-III-91)

(Puntuak etenetan eta lerro amaieretan)

Irati ibaian erromes / Nafarroa dut senti, /
maitasun ta bihotz onez / —aintzinean banendi— /
bihurtu naiz zaharregi, / samindura baino ez /
euskararen heriotzez / baidoakit barnetik. /

Hemen Itoitz, harago Orbaitz, / Artozki eskuinera, /
landa bilutsean Ezkai / t'eremuen galera; /
zeinek horrela itzaltzera / bultzatu zaituzte, aih, /
(lehen baizi nadeten garai) / haitzak maldan antzera... /

Eguberri
(1991-XII-2)

*Era, era, era astotxo,
goazen Belenera
haurraren ikustera,
era, era, era azkartxo*

Ulia mendi-maldatik
ni hondartza ikuskari,
uhinak joan, uhinak etorri
ura haitzetan zanpari,
behean Gros, Monpas, Donosti,
hurbilean Iradi,
urdin serio ta hotzak
itsasoak opari,
aih, aih, eguberri honen
poz eta zoragarri,
haruntzago Hondarribi,
Donibane, Getari,
uhinen marra aratz-xuria
hondarrean txit garbi,
Belen-en jaio da Jesus
umil, eskax, elbarri,
bonba eta lehergailuak

mazapanetan jarri
(bakea, noiz iritsiko
galdetzen nauzu ari),
Euskal Herri enea, gaur
itxiko zure zauri,
astoak batzutan pausu
baldar, pisutsu, nagi,
bestetan, ordea, aih, aih, aih,
urduri eta arin,
elurraren mantxa aratzez
Ernio ta Adarra handi
(ah, nik desideratua
gaur egia badadi),
Belendik ezkila hotsak
(bihotz, agokit adi!)
Euskal Herrian behingoaz
bake-mezulari...

*Era, era, era astotxo,
goazen Belenera
haurraren ikustera,
era, era, era azkartxo*

Eremuak, eremuak
ta eremuen sare,
Gares-tik haruntz Obanos,
Muruzabal, Eunate,
Uterga-n Beriain Jaunak
euskararen ondade,
Arnotegi-ko maldetan
garitegizko udate
(esan, zer azaldu nahiaz
neurtitzok zabilzate?),
soroen geometrian
urre eta ardo gazte,
euskal izenen itxuran
erdara gaitzak kalte
—ausaz, lotsa ote dauka
Beriain —go abatek?—,
landa luze-okretan
bazterrak mugagabe,
soroei esker begiok

margo ta libertate
(esan, ene Nafarroa,
oraindik lo al zaude?),
mahastien odol altuan
—nolan isil naiteke?—
suminduraz ta ezinaz
eginda barne labe,
Euskal Herria “etxean”
maizter da ta desjabe,
semeak etxea suntsitzen
puskaka ta alez-ale,
linea okreen antsian
hats ezinen hondamen,
susmoaren leher-beharrak
zutik kanpo ta barne,
egunak gau itzuli nahi,
goizak, berriz, atsalde,
nik bidean beti “lehen”
sentimenduen kate...!

Tirol
(26-VIII-91)

Aspaldiko irrika gaitzak
barnean zigorkari,
Austria txukun, lerdena
antsiz naiz bisitari,
Verarlberg, Brand, Lünersee,
belardi leunen argi,
Tirol Garaieko oihanak
berdearen mirari,
ortze urdina lakuetan
abstraktu, biluts, nagi,
elurra ta aintzira aratzak
ibarretan maitari
(esan, zeren susmoak nau
honetara ekarri?),
parajeak miretsiaz
Euskadi oroikarri,
haitzak, belarra, mendiak
margo bizitan nahasi,
etxeak jostailu gisa
hornituta loradiz,
balkoietan edergintzak,
izar, koska, orrazi,
lehen inon ez miretsia
ustekabero nik kausi,
ah, eder honetatik zerk
naiteke desitsasi?

Aia-ko Harriak
(Abenduak, 12, 1991)

Muganix, Txurumurru, Erroilbide,
arroka, zintzur t'erroitx artean
ezker-eskuin amildegizko bide,
atseden bat hartzen geldi naitean...

Gailurrean arranoen naiz kide,
arnas-estuka, noizpait, tontorrean
mendiarekin erraldoi baninde
alturen gainetatik dagit egan.

Aurrez Irun, Errenderi, Oiartzun,
harago Endaia eta Getari,
oro nik bake eta eder-ogasun.

Atzetik Domiku lakua garbi
sabelera ortzea hustua bailun
aintzin bateko lamien opari...

Luis Mari Mujika

"IPARRA"

Ignacio Irizar

ANTZERKIA

PARTEHARTZAILEA:

Joxe Mari Iparragirre, hirurogei urte zituela.

TOKIA:—

Golemniko Ixaso auzoan zegoen Zozoburro Txiki ostatua.

GARAIA:

1881.eko Martxoa.

LEHEN EKITALDIA:

jantokian, afañdoan.

BIGARREN EKITALDIA:

leku berberan, minutu batzuk berandoago.

ANTZERKIA

LEHEN EKITALDIA

“IPARRA”

PARTEHARTZAILEA:

Joxe Mari Iparragirre, hirurogei urte zituela.

TOKIA:

Goierriko Itxaso auzoan zegoen Zozobarro Txiki ostatua.

GARAIA:

1881.eko Martxoa.

LEHEN EKITALDIA:

jantokian, afalondoan.

BIGARREN EKITALDIA:

leku berberan, minutu batzuk beranduago.

LEHEN EKITALDIA

Eskenatokia Zozobarro Txiki ostatuko jantokia izango da. Berez baserri arrunta izan arren, hemeretzigarren mendean auzo gehienetan zeuden bezalatsu Goierri aldeko Itxason Zozobarro Txiki taberna zen bertakoentzat, eta ostatu hurbiltzen ziren ibiltari urrientzat.

Itxura batera dena nahiko txukun eta abegikor dago, ziur asko ugazabek urtero karez zurituko dutelako.

Ezkerreko paretan, barnebidetako atea dugu, eta ondoren, erabili behar ez denean ormara jasotzen den mahai tolesgarri txikia, azpian zizeilua duela. Hortik eta ertzeraino, supazter txokoan, enborrak eta abarrak.

Jarraian, parean, sugate ederra pizturik, ostean eta gelatzuaren goieraino ongi landutako burdinazko supina somatzen delarik. Han hemenka, trebera, suhatzak, hauspoa zintzilik, etab. Eta gainean tximinoa galanta, non sapolan buztinezko ontziak eta argimutil batzuk aurki daitezke. Eskuinera jarraituz, apal txiki batean txapela, gerriko pareta eta jaka. Eta gero leihoa, jangelaren erdian gutxi gora behera; hertsirik dago gaua delako. Jarraian, eta baserri giroa osatuz, auzoko inguruneak agertzen dituen koadro zaharkitua. Eta amaieran, ertzean, beste apaltxo bat lorontziarekin.

Hirugarren pareta honetan erloju sotila ikus daiteke, eta honantzago kanpoko atea.

Sugate ondoan hasi eta kanpoko aterainoko luzeera denean haritezko eserlekua dago, aurrean dauden mahai parearen osagarri, eta ikusle goarengandik gertuago, beste mahai berdintsu bat aurkitzen da, bere aulkiekin. Mahai gainetan pitxer eta edalontzi batzuk, otzara pareta bata sagarrez eta bestea intxaurrez beterik, baserriko ogia, mahai tresnak, etab.

Eserlekuan, kanpoko ate ondoan, Joxe Mariren neguko longaina dago eta erdian, leiho pean, bere kitarra preziatua zutik.

Sugatea denbora guztian piztuta egonga da, bera arduratuko delarik. Oihala altxatzerakoan aurreko mahaian jazarrita dago. Gelditu zaizkigun argazkietan dakussagun legez, ilea eta bizarra zuriak ditu,

edozeinek kanta dezake. Ez al da hola? Nik behintzat sarritan abesten dut eta ez dago halakorik afalostean giro alaia sortzeko *Edalontzia mahai gainean utzita berriz aurrera dator* Gaur bertan, izan dira hemen barreak eta algarak, elazahar eta esaera ederrak, amaigabeko kantu ekinaldiak. Bikainetakoa Zozobarro Txiki jator honetan eduki dugun afaria! *Ezkerreruntz bizpahiru pauso ematen ditu, argi-fokoa berarekin doala. Emanaldi guztian erabilera honetxek jarraituko du, jantokia maila apalago batetan mantenduz.* Eta zuek galdetuko duzue “zertan ari duk Joxe Mari zaharra hor goian, bera bakarrik?”... Badakizue zer gertatzen den? Ia hirurogeita bat urte eduki arren, bihotz gaztea eta kementsua daukadala oraindik, eta gorputzak dirauen bitartean, aupa mutilak! Gauerdiko kanpai hotsa entzuteke dago eta! *Eskuma bekokian jarrita paretako erlojuari so egiten dio. Ondo ikusten ez duenez, zerbait hurbiltzen da...* Hamaikak eta laurdenak! *Buelta eman eta jendeari begira berriz* Nik bai, hamaikak eta laurdenak besterik ez! Eta izugarrizko bizipoza!

Bost egon gara gaurkoan afaltzen, bi baserritar, mikelete pareta eta neu. Bihar lana zutela esanda nekazariok aspalditxo itzuli badira ere, beste hirurok lasaiago geunden eta puntuan joan dira ohera mikeleteak elkar oratuta, *Plantak eginaz* kantuan eta zarataka! *Barnebidetako atea seinalatuz* Entzun beharko ditugunak etxeoandrea iratzarri bada!... Odolberoa izan arren emakume jatorra da Zozobarroko Madalen, bai horixe, eta inguruetan ez duzue bera adinako sukaldari artetsurik aurkituko, ene ustez bederen *Iribarrez Tira*, ez pentsa gero beti berandu arte nabilenik... Bertsolaria eta abeslaria naizenez, noizbehinka lagunen bat agertzen da gonbidatzeko borondate onarekin, ondoren zortziko batzuk kantatzearen orden, eta, nola ukatu ba!

Ez daukat gaztetako ahotsik, normala denez, orduko eta oraingo bizipoza ere desberdina da; baina Joxe Mari zaharrak azkeneraino jarraitzen du gehientxuenetan *Mahaira doa, berriz txurrut egitera.* Zutik Dena dela, orain Urretxu inguruan ibiltzen naiz. Gaztetan berriz, oinak arinagoak nituelako edo, gelditu barik aritu nintzen auzorik auzo eta herririk herri *Alai* Nik ezagutu gabeko jai gutxi izango da Euskal-Herrian, hamaika adiskide egin dut han eta hemen, hainbat toki bisitatu... Beharbada egun goibeltsuak ere maiz suertatu zaizkit *Sorbaldak jasoz* Nola ez...

Ene gaztaroko kide gehienak, oster, jaioterritik irten gabe bizi izan dira, apalki eta baketsu. Herriko neska fin batekin ezkondu, seme alaba mardulak ekarri, eta zahartzaroan egunak lasai igarotzeko moduan daude. Osasunak lagunduz gero behintzat. Nolako alde bizimodu horren eta nik eramandakoaren artean! *Seinalatuz* Espainian, Frantzian, Italian, Alemanian, Portugalen, Britainia Handian, Argentinan eta Uruguayn egonda nago, eta aski dela deritzot ni bezalako euskaldun soil eta eskolagabearentzat *Pentsatuz, ikuslegoari* Suiza aipatu dut? Ba han ere ibili nintzen, eta baita... Beno, berdin dio. Arlote eta buhame deitu ohi didate erizpen estukoek, eta zer arraio! *Adoretsu* Pozik egoten dira gero Iparra arlotearen istorioak entzuten, belarriak erne, begiak zabal zabalik!

Aitzinera, ezkerreko aldera doa Egia esanda, iharduntsu xamarra naizelako edo, neuri ere laket zait ikusi ditudan gauzak eta atzerriko ohiturak kontatzea, gazteei bereziki... Joan den astean mutil koxkor batek ea zein zen gaztetako nire lehen oroipena galdetu zidan, eta ene ustez gauza txundigarriren bat entzutea espero zuen, eskolan bertsolaririk onena nintzela, etxetik kanpora ihesi nenbilela beti, edo horrelako zerbait. Segur asko ez nion gusturik egingo, beste adiskideen antzeko mutiko geldigorra bait nintzen. Orduko gauza arruntak, guztiz normalak etortzen zaizkit gehienetan gogora.

Eta galdetu zidanari zera erantzun nion, bederatzi-hamar urte nituen garaiko gertakizuntzua *Apal* Huskeria bat, ez gero pentsa... Etxean genuen txakurra bizkorra eta ausarta zen benetan, eta behin paseiatzera eraman nuen kalean behera. Urrun gabe errementeria zetorren berearekin, eta geu elkarren parera iritsi aurretik txakurrok burrukan hasi ziren, zaunkaka eta alauraka. Errementeriak ostikoka apartatu zituen, eta gurutzatzerakoan zera bota zidan erdi haserre "Jeginu gaiztoa, eh?" Eta nik berehala "Txakur biak ere..." *Esku biak zabalduz* Horrela bukatu zen dena. Aitari kontatu nionean zera itaundu zidan "Gizona haserre bazegoen, bere txakurraren jeginuarengatik ala gurearenagatik zegoen?" Eta ez nion ezer erantzun, ez nekien eta. Barrutik orde harro nengoan, errementeriari ihardetsi ez banion oso lelo-mutiko geldituko nintzela uste bait nuen, eta zerbait esaterakotan, kontuz ibili beharra zegoen"... Sarri gogoratu izan naiz gertaera horretaz eta eman nuen erantzunaz. Bota dut traketsagorik harrez gero!

Horrelaxe kontuak *Eskuin aldera doa, kantatzen hasten denean*

Glu glu glu glu,
glu glu glu glu,

Txit pozik nago. Ez dakit entzunda daukazuen... Badira hiru urte Ameriketatik etorri nintzela familia han utzita, denok batera itzultzeko dirurik ez genuelako, eta nahiko larri aritu naiz orain arte. Beraiek han, nerau hemen... Alabaina, Jaungoikoari eskerrak laster datozkit alaba biak lagun egitera, eta pitinka guztiok bilduko gara berriz Urretxun denbora gutxi barru *Patrikatik familiaren argazki zaharkitua atera eta ikuslegoari erakusten dio, Anjela eta alabak bereziki seinalatuz* Anjela maiteak eta biok zortzi seme-alaba ditugu, eta denak daude etortzeko desiratzen! Berriz elkarrekin!

Erdian, zutik Gaur egun Eukal-Herri guztian ezagutzen naute, askotan ihardun naizelako nere kitarrarekin "Gernikako arbola" eta beste hainbat abesti kantatzen, baina hogeita *Eskuma burura eramanda, pentsatuz*. Laster Bai, hogeitamairu urterarte ez nintzen horretan hasi. Eta arestian azaldu dizuedan legez, nire gaztaroa erabat arrunta izan zen. Beno, hainbeste ere ez, apika, eta erru guztia Lehen Gerra Karlis-tarena da, zorigaitzezko gerra harena. Anjelari makina bat aldiz esan diot Karlistada hura suertatu ez balitz eraman dudana bizitza... *Pentsatuz* Begira, hamairu urte betetzeke nituen gurasoek Urretxutik Madrilerara aldatzea erabaki zutenean. Aita gozogilea zen, eta herriko irabaziak urriak zirelako, urte batzuetarako hiri handi batetan lana egitea pentsatu zuen. Toki-aldaketa hark gogor eragin zidan, ezen Urretxutik irte-tzen ohitua egon arren, Zerainera osabarengana edo Gasteizera latin ikastera, hura izan bait zen sorterritik aldendu nintzen estraineko aldia *Eskubiruntz doa*. *Geldi* Madrilen ikasten urte bete inguru pasatu ondoren, aipatu dizuedan Gerra Karlista sortu zen eta harekin batera ene buruhaustek.

Ohizko euskal giroan bizi ginenez, etxean maiz mintzatzen ziren hemendik ailegatutako albiste ilunei buruz. Eta hasieran gehiegi kezkatzen ez banintzen ere, pixkanaka eskarmentu-ezak amets liluragarrietan murgildu ninduen, azkenik soldadurik onena izateko asmoz gerrara etortzea erabakitzen nuelarik. Horrela, goiz batean, amari esko-

lara nindoala esanda, ilusioz beterik hartu nuen honuntzako bidea eta azkar heldu nintzen berriro Urretxu maitera.

Apal Zergatik egin nuen hura? Zerk bultzatu ninduan?... Ez da erraza jakitea. Zirrara sakonen bat sentitu beharko nuen hain gazterik gurasoen etxetik aldentzeko. Sentimendu hori, dudarik gabe, gure Herriaren etorkizunarekin lotuta zegoen, adin horretako mutiko batek asma zezakeen moduan. Eta ondorioaz garbi ohartu naiz gerora. Horixe bihurtu zen ene bizitzako erabakirik garrantzitsuena, berak markatu bait zituen aurrerantzeko guztiak. Hamalau urtekin... Gauzak nola diren, eh? Une hartan gurasoekin hitzegin, edo beraiei nire asmoak aitortu izan banizkie, edo... beste zerbait, agian *Iribarrez* agian ez nintzatekeen gaur zuekin hemen egongo!

Eta hori ez da dena. Urretxun, osabak ezetz, ez nintzela inola ere soldadu joango. Ni berriz, nere teman. Eta badakizue bere ateraldia? *Isilunetxoa, ikuslegoaren erantzunaren zain egongo balitz bezala* Gurasoen etxetik ihes egitea izugarrizko bekatu handia zelako, Lazkaoko Karmeliten komentura bidali ninduen hurrengo egunean! Hura burutik eginda zegoen. Nor eta Joxe Mari komentura. Horregaitio!... Bide erdian buelta egin eta azkar hurbildu nintzairen Zumalakarregiren tropei, tente asko. Han berriz, *Eskumarekin adieraziz* mutil koskorra nintzela ikusita zalantzan jarri ziren, baina nire asmo sendoa azaldu nienean, onartu ninduten azkenean. Osabak, eginahalak egin arren, ez zuen ni etxeraterik lortu. Ene bihotza karlistekin zegoen eta beraien zorikide izatea gura nuen beste gauza oren gainetik.

Motel xamar dagoen sua indartzera doa, albotikoak sartuaz. Bertatik jarraitzen du, hauspoa eskuetan duela Gipuzkoako Batailoian, Iturritzarenean eta azkenik Don Karlosen Zaintzaile, bost urtetan aritu nintzen gudari... Adiskide zintzo ugari egin nituen bertan. *Ikuslegoari* Gertatu zaizue nehoiz? Une latzak konpartitu ezkerreko bizitza osorako halako lotura fidagarria sortzen da, leialtasun berezi bat. Hegoameriketara jarraitzen dute batzuk, Buenos Airesen, Asuncionen, herri ttikietan...

Gerrarakoan ezer gutxi nekien politikaz, eta apurka ikasi nituen zertzuk ziren Biltzarreak eta Lege Zaharrak, Eskubideak eta Foruak *Isilunetxoa* Gero, aski ezaguna da Espartero eta Maroto jeneral maltzur haiek nolako sasi-bakea ezarri ziguten Bergarako besarkadarekin *Apal*

Bera izan zen nere zorigaitzaren hasiera, eta akaso ene halabehar geldigor hau bideratu zuen gertakizuna.

Akordio kaxkar hura onartu ez genuenok Euskal-Heritik alde egiteko premian aurkitu ginen, eta penaz, bai gerra galtzeagatik eta bai gurasoak agurtzeko astirik ez nuelako, Pariserantz abiatu nintzen. Ez nekien zenbat denborarako nindoan erbestera, eta nahiko ilun nekusan etorkizuna... Pozgarririk bilatzekotan, osasuntxu jarraitzen nuela bi bider zaurituta egon arren, eta tira, zerbait ikasi nuela.

Zizeilu ertzen jezarriz Arestian aipatu dizuet hamalau urtekin etxetik aldegiteko erabakia hartu nuenean konturatzeke nengoela nolako eragina izango zuen, ezta? Hemen ondorioa. Dirudienez, nere patua batetik bestera ibiltzera omen da *Etsipenez* Hemeretzi urte eta mila kilometrotara...

Alaiago Orain ileak zurituta eta bekokia zimurrez beterik badaukat ere, garai hartan mutil mardul eta indartsua nintzen *Keinuak eginaz* Adats luze beltz ederra, begi sutuak eta ahots garbia, bizkar sendoak... Gainera, nortasun trinkoaren jabe banintzela uste nuen, ikasiak bait nituen nire Herriko eskubideak eta beharrak, ikusiak mendiak eta ibaiak; munduari aurpegia emateko prest nengoen!

Parisera ailegatu ala, zaldun liberal handiki baten jauregian, Rocrejakelin Markesarenean hain zuzen, igaro nituen zerbitzaritzan urte zorionsu batzuk, eta frantsesez trebatu ondoren, Lamartine, Chateaubriand eta Lamennis olerkarien liburuak irakurtzeari ekin nion, ene jakituria urria zabaltzeko asmoz. Bestalde, tokiak ezagutzeko zaletasunak bultzaturik Lyon, Alpes, Tyrol eta bertze hainbat lurraldeetara lagundu nion Markesari gogo onez. Ez nituzke nere Euskal-Herriarengatik aldatuko, baina zinez diotsuet, badira hemendik kanpora ere paraje dotoreak *Aurrera datorrela* Giro horretan iharduteak harreman berriak edukitzeko aukera aproposak aurkezten zizkidan, eta halaxe adiskidetu nintzen Caroline Duprez sopranoarekin... *Irribarretsu* nire lehen amodioarekin.

Gauzak nola diren bizitzan zehar. Oraintxe artzai, oraintxe Markesaren jauregian... Batzuk ez didate sinesten "Hi Pariseko teatroetan aristokraziarekin? Hoa piku bila, Iparra!" Eta egia da! Joxe Mari zaharrak akats ugari dauka, baina ez da sekula santan gezurtia izan...


Caroline abeslari ospetsua Pariseko artisten munduan estimazio handian zegoen, eta behin zortzikoak kantatzen entzun zidanean, borronteaz eskaini zitzaidan musika irakasteko. Handik hilabete batzutarra bere etxean nengoen, eta bapo iragan nituen bertan hiruzpalau urte. Emakume argia, azkarra zen, eta *Kapela kentzera doan moduan oso panpoxa!*

Iraultzararte pozik jarraitu arren, errepublikazale eta inperialisten arteko istiluetan kalean "Marsellesa" abesten nuelako, gizon arrisku-tsuegizat hartu ninduten eta atzerri latzagora jo behar izan nuen. Bigarren aldiz derrigorrean, Caroline maitea penaz agurtu ondoren... *Erdira doa, aurreko mahaira. Edalontzia hartuta Ederki moldatu ginen bestela Parisen. Topa bat han utzi nituen adiskide guztiengatik Edatera doa, baina edalontzia hutsik dagoenez, mahaira hurreratu eta berriz betetzen du pitxerretik. Xurruapatu eta gero, kantatzen hasten da*

Gure sabela bete behar da
ahal bada gauza onarekin,
dagoen lekutik eragin bapo
aupa mutilak gogoz ekin.
Glu glu glu glu,
glu glu glu glu,
Errepika osoa

Umorea da gauzik onena
nahigabeak ditu ahaztutzen,
uju ta aja hasi gaitezen
euskal doinuak kantatzen.
Glu glu glu glu,
glu glu glu glu,
Errepika osoa

Edalontzia mahaian lagata Dagoeneko mikelete biak lotan egongo dira, zurrungaka. Ni afari zalea naizela baina *Barnebidetako atea sei-*



nalatuz beraiek ere... Non nenbilen? Ah bai, Parisetik irtenda. Suizan eta Alemanian aritu nintzen denboraldi luzean, eta nahiko bizimodu gorria neraman, ene irabazpide bakarra kitarrarekin lagunduta kantatzea bait zen.

Eskuin aldera doala Ondoren Italiarantz hartu nuen. Fiorenzako abeslari talde batetan onartu ninduten, eta beraiekin ezagutu nituen ha-maika hiri eder eta hainbat artistaren lan baliotsu. Haiekin kantatzea interesgarria bilakatu zitzaidan, tankera berriak ikasi eta ikuslegoaren aurrean agertzeko erraztasuna hartu nuelako. Gogoan daukat oraindik *Zalantzan* Egon zarete nehoiz Italian?... Zoragarria da, Fiorenza bereziki. Hango elizak, hango gaztelu eta museo ederrak! Anjelari aginduta daukat itzultzerakoan eramango dudala dena bisitatzera, bidaiarako lain aurreratzen badugu bederen. Seme-alabak Urretxun utzita, biok bakarrik joango gara, bera eta ni. Hori baino gehiago zor diot ene emazte kuttunari.

Ohartuko zarete batzutan kontuen haria galtzen dudala, eta *Erdi lotsaz* barkatuko didazue. Adinagatik edo, konzentrazioa falta zait. Zer egingo dugu! Inglateran, eta jakinmina asetzeko asmoz, nere kasaz Londresen geratzea erabaki nuen. Buhameen pare nenbilen, pub-etan kantuan bizitzeko adina irabaziz, Mazarredo jeneral bizkaitarrarekin topo egin nuenean. Tirolesa bat euskaraz entzun zidanean, hunkiturik agurtzera etorri zitzaidan. Eta azaldu nionean zergatik nengoen atzerrian berehala eskaini zidan bere laguntasun guztia. Esan eta egin. Pasaporte berriarekin ene ametsak betetzeko bidean jarri ninduen...

Hogeitamaika urte nituen, eta hemeretziarekin laga nuen Euskal-Herria...

Erdira dator Ahalik eta azkarren abiatu nintzen etxerantz, ezen jakinaren gainean bait nengoen nire aita Joxe Austin bost urte lehenago hila zela, eta hargatik ondasun gehiegirik gabe bakarrik zegoela ama maitagarria *Oroituz, minberaturik* Bene benetan poztu ginen biok elkar besarkatzerakoan. "Hauek al dira eskolatik bueltatzeko orduak?" bota zidan irribarrez, hainbeste urtetan ikusi gabeko seme galdua goitik behera miatzen zuen bitartean.

Egunetan ihardun genuen gure barrenak elkarri hustutzen... Bere alboan jarraituko nuela agindu nion, eta denboraldi baterako Madrilén gelditu nintzen.

Aurreko mahaiko aulkian jezartzen da Ene bizitzako etapa berri bat hastera nindoala konturatuta, etorkizunari begira jartzea komeni zitzaidan. Jadanik era askotako bertsoak nekien, espainolez, italianoz, frantsesez eta ingelesez ikasiak abesti ugari, baina hala eta guztiz, edo horretxegatik, ez nengoen aseta. Barnean zerbaiten beharra somatzen nuen, neronek sortutako konposizioekin ihardutea zen ene xederik beroena, eta horrela hasi nintzen zortziko berezi batekin lanean. Neure buruari eta jendeari zenbaiterainoko trebetasuna neukan erakusteko.

Gogoz saiatu ondoren, gai bakarra iruditu zitzaidan egokia, Jaungoikoa eta Lege Zaharra. Zeren, erbestean egon arren, ez bait nituen ahaztu gure Herriaren azken urteotako estatusunak; gogoan nituen Karlstadarekin galdutako eskubideak, eta bihotzaren barrenak hori azaltzea eskatzen zidan...

Jaungoikoa eta Lege Zaharra gaitzat hartzerakoan, gure Herriaren jitea adierazi nahi nuen eta hortxe zegoen koska. Pariseko garaitik "Marsellesa" txit ondo nekien *Ikuslegoari* Ezagutzen duzue?... Ez dakit; zuzen ala oker, nik behintzat orduan gerlako himnoa neritzon, bertan heriotza, odola, armak eta antzeko hitzak dutelako esangura garrantzitsuena. Eta horrek ez zuen gure Herrirako balio. Euskaldunok lege eta ohitura zaharren gordetzailleak gara betidanik, bakean eta alaitasunean *Serio* kanpotik zapaltzailleak iritsi arte bederen. Gogamen hauek garbi neuzkan idazterakoan, jendeak ez zuelako beste zentzurik bereganatuko. Eta kantuaren oihartzuna herri guztietako zoko ezkutue-netaraino ailegatzeko, sarkorra eta ikasterraza behar zuen izan.

Dabilela Lege Zaharren ezaugarri egoki baten bila niharduela, plasta! Gernikako arbolaren irudia bururatu zitzaidan, eta huraxe hautatu nuen zortzikorako aproposena zelakoan *Alde batean* Hartarako musika zehatzik ez nuen, eta doinua bertsoekin batera mamituz joan zela esan daiteke.

Lehendik abeslaria banintzen ere, asko kostatu zitzaidan. Nortasun handiko zerbait moldatzeko, ahaleginez saiatu nintzen jira eta buelta harik eta hamabi ahapaldiok burutu arte. Errepikakoa dotore gelditzen, neronen uste apalean, eta bertan errimatzen duten lau hitzak dira ekinaldi guztiko ezaugarriak, bedeinkatua, maitatua, frutua eta santua. Jaungoikoa eta Lege Zaharra azpimarratzen dituzte. Bedeinkatua eta santua alde batetik, maitatua eta frutua bestetik.

Ene eritziz, alabaina, berba hauei halako lirikotasun alai bat darie, eta nahiko bertso samurra eta herritarra iruditu zitzaidan orduan. Urteek arrazoia eman didatelakotan nago. Gaur egun ezin dut jaialdirik edo erromeriarik amaitu "Gernikako arbola" ospetsua kantatu barik... Aski da nire izena aipatzea zortziko horrekin gogoratzeko, edo alde-rantziz. Eta hasieratik erdietsi zuen gainera izugarrizko arrakasta. *Ikuslegoari, apal* Norbaitek pentsatuko du ez dagokidala neure lanaren goraipamena egitea, edo harrokerietan nabilela ardoa franko edan ondoren, baina ezagutzen nautenek aitortuko dizuete ez naizela horietakoa.

Dabilela Madrilen bizi ziren euskaldun gehienek hiruzpalau tabernatan izaten zituzten beraien solasaldiak. Hauetako baten, "San Luis" kafetxean, biltzen zen gauero hainbat euskaldun jator, giro ederrean, Juan Mari Altuna durangoarrak pianoari doinu alaiak ateratzen zizkiolarik. Berari abestu nion aurrenengoz bertso-sail berria, eta "Neuk lagunduko diat pianoz" esanaz, hurrengo gauean aurkeztu genuen "Gernikako arbola" jendaurrean Altuna eta biok. *Sentiberatsu* Hogeitamabi urte nituen orduan, eta gaurregun baino ahots sendoagoa... Beldur antxean banintzen ere, segurtasunez beterik bukatu nuen *Alai Hura* zen zoramena! "Biba Foruak! Gora Euskal-Herria! Hi haiz mutila, hi!" Jendea oihuka eta txaloka! Behin eta berriro errepikatzeke eskatzen zidaten. Ugazabak hango apoteosisa ikusi zuenean, pozik kontratatu ninduen gauero kantatzeko. Bai, inoiz fin aritu banaiz, orduko hartan asmatu nuelakotan nago *Erdian, hunkituta, leun hasiko da.*

1 - Gernikako arbola

da bedeinkatua

euskaldunen artean

gutziz maitatua.

Eman ta zabal zazu (*b*)

munduan frutua

adoratzen zaitugu

arbola santua.

2 - Mila urte inguru da

esaten dutela

Jainkoak jarri zuela


Gernikako arbola.

Zaude bada zutikan (*b*)

orain da denbora

eroritzen bazara

arras galdu gara.



3 - Ez zara eroriko

arbola maitea
 baldin portatzen bada
 Bizkaiko Juntea.
 Laurok hartuko dugu (b)
 zurekin partea
 bakean bizi dadin
 euskaldun jendea.

4 - Betiko bizi dadin

Jaunari eskatzeko
 jarri gaitezen denok
 laster belauniko.
 Eta bihotzetikan (b)
 eskatu ezkerok
 arbola biziko da
 orain eta gero.

... Aitortuko dizuet politena? *Pentsatuz* Edo tristeena, nola hartzen den. Zortzi seme-alabok dakite "Gernikako arbola" kantatzen, nagusiak oso ondo gainera, eta badakizue zer gertatzen zaien? Hegoamerikar doinutxo hori ematen dietela hitzei, halako amaiera berezitxo bat... Entzun duzue nehoiz hegoamerikarrik berbetan? Gureak hainbeste agian ez, baina badute beraiek ere kutsu hori. Joxe Mari zaharraren seme-alabak. Ulertzen zergatik ekarri nahi ditudan Urretxura?

Eskuin aldera doa, isilik. Eserlekuaren ertzean jazarriko da Hilabete batzu egin nituen Madrilen kantari, eta Euskal-Herrian nire berri jakin zutenean, gonbiteak handik eta eskabideak hemendik, ilusioz beterik abiatu nintzen lur maitera, aurreratu ahal izandako txanponak amari utzi ondoren.

Kafetxeetara, auzoetara, hirietara joan behar nuela; zahar eta gazte, guztiek irrikatzen zeudela ene bertsoak ezagutzeko. Tximistaren pare hedatu zen azken bazterreraino. Denek entzun nahi zuten, denok ikasi zenuten...

Ia galduta zeuden Legeak aipatzerakoan, gori-gori jartzen ziren guztien bihotzak. Eta sekula baino sakonago sentitzen nuen sorterriranganganako maitasuna; argiago nekusan Herri honen nortasuna eta izatea *Zutituz* Ehundakak, milakak hurbiltzen ziren entzutera. Eta bat egiten zuten "Gernikako arbola"ren mezuarekin. Ongi etorria nintzen edonon... A zer nolako urteak. Ez zaizkit berehalakoan ahaztuko...

Erdira doa Nolanahi, arantze gabeko larrosarik ez dagoela diote, eta horrelako burukomin bat jasatzea tokatu zitzaidan *Irribarrez* neska polit bategaz. Ez dut esango emakume zale porrokatua nintzenik, baina ezta motel horietakoa ere *Oroituz* Bakardadetik iheska aritu nahiz beti,

eta lehenago Parisen nengoela abentura pare bat eduki nuen, bata ares-tian aipatu dizuedan Carolinerekin eta bertzea Sophie-Adèle amoltsua-rekin *Apal* Urte batzutara jakinarazi zidaten gainera Sophie-Adèle haurdun zegoela Inglaterrara joan nintzenean, eta mutikoa izan zuela... *Eskuak zabalduz* Azkenean, ezerezean gelditu ziren amodio biak... Bestalde, egon dira *Zalantzan dago* Beno, ni bezalako bertsolari buha-meak erromantiko samarrak garela egia da, eta ba *Irribarrez* zergatik ukatu.

Lehenagoari jarraituz, denboraldi horretan kausitu nuen neska hura, Manuela, bihotzeraino sartu zitzaidan eta txoraturik nenbilen bere atzetik. “Gernikako arbola”ren arrakasta ikusi eta gero, era desberdinetako zortzikoak egiten ausartu nintzen, eta Manuelatxori ere moldatu niz-kion. Oraindik itxaropentsu nengoela “Nere maitearentzat” izenekoa, eta bestea “Zugana Manuela”, etsipenez beterik.

Neska liraina, polita zen, eta bertsoak tankera horretakoak nahi ni-tuen burutu *Erromantikoki* Ongi gogoratzen naiz zein malenkoniatsu jartzen ninduen “Zugana”ren bigarren ahapaldiaren hasiera hark *Erre-zitatuz, goxo*.

Amorioz beterik
esperantza gabe,
zergatik egin zinen
bihotz honen jabe.

Dabilela Hamaika halako! Bertsolari eta ameslari *Ikuslegoari* Bada-kizue zer erantzun zidan azken finean? Ez zitzaizkiola bizardunak gusta-tzen! *Serio* Beste zerbait esan gura zuelakoan nago, berarentzako txori geldigorregia nintzela, nerekin ez zuela habia epelik izango, alegia.

Herriz herri jarraitu nuen abeslari, eta behin eta berriro deitzen zi-datelako toki gutxi egongo ziren Euskal-Herrian ezagutzen ez nindute-nak. Hala eta guztiz, ospe eta ohore gehien hartzen ari nintzenean, txalo eta goraipamen beroenak jasotzen nituenean, gutxien pentsatzen nuenean, zapla! Zigorra. Non? eta... Tolosan!

Hogeitalau ordu gartzelan eduki ondoren, fiskalaren aurrera era-man ninduten bere arrazoiak entzun nitzan. Jendea asaldatzen nenbile-la, mundu guztia berotu nahi nuela, agintarienganako gorrotoa eta

errespeto-eza zabaltzen niharduela *Haserre* Nik al dakit zenbat salaketa entzun behar izan nuen gizontxo haren ahotik? Madrilen ezezik, bertan, probintzian ere bazirela nere aurka zihardutenak, eta itzalean usteltzea ez baldin banuen gura, atzerrirako bidea har nezala...

Zeharo lur jota utzi ninduen albiste txar horrek. Saminduta, begiak lausoturik aldegin nuen hurrengo goizean *Barnebidetako ate ondoan, geldi* Ez nuen aditzen nola beste euskaldun batek egin zezakeen koldarkeria hori; ezin nion azalpenik aurkitu. Eta atzerri hitzaren adierazpen garratza ikasia eduki arren, asko sufritu nuen humilazioarekin *Isilunetxo*a Sendatu ezinezko zauri hura oroitzeko bertso batzuk asmatu nituen *Kantatzera doa. Zalantzan Baina... Atzera begiratu, ikuslegoari itxaiteko keinua eginda, kitarra hartzer*a *doa. Itzuliz* Abeslari aritzeko kitarra eder hau dut lagun, eta joaten naizen leku guztietara daramat neure izatearen zatia balitz bezala... *Serio hasiko da.*

1 - Zibilak esan naute

bizi

Tolosan behar dela

gauza hau erabaki,

giltzapean sartu naute (b)

poliki poliki

negar egingo luke

nere amak baleki.

2 - Jesus tribunalean

zutenean sartu

ez zion Pilatosek

kulparik bilatu,

nigan ere aurkitu ez arren (b)

ez dite barkatu

zergatik ez dituzte

eskuak garbitu.

3 - Gartzelatik atera

fiskalen etxera

abisatu zidaten


joateko berehala,

ez etortzeko gehiago (b)

probintzi honetara

orduan hartu nuen

Santander aldera.



Kitarra aulkian laga ondoren. Bi urte luze igaro nituen lekorean, Espainia eta Portugal aldean. Ez diot inori holako zoririk opa. Hemen jende xeheak zintzoki estimatzen ninduelako aspalditxoan polito nembilen, eta *Irribarrez* noski, poltsikoak igartzen zion. Baina nuen ogibide bakarra bertsolaritza zenez gero, atzerrian ez nuen zer eginik horrekin *Apal* Hamaika egun gorri pasatu nituen, edozein lekutan lo egiten, gose antzean sarri, bakardadean gehienetan...

Sagar bat hartuta mahai ertzean eseriko da, eskumako oina aulki gainean ipintzen duela Berriro itzultzerakoan duda- mudan nentorrenez, egin zidaten harrera onak eta eman zizkidaten zihurtasunek zeharo lasaitu ninduten. Eta jakina, atzera lehenetan hasi nintzen auzorik auzo, jendeari alaitasuna eta bizipoza eramanaz nere abestiek.

Horrela jarraitu nuen denboraldi luzean, patxadan eta ardura larregirik gabe, *Begiak pizten zaizkio* nere emazte den Anjela maitea ezagutu arte. Tolosako ostatu batetan neskame zebilen, eta berehala maitemindu nintzen Anjelaz. Jadanik aitortu dizuet ene bihotzak ez duela hartarako bultzakada handirik behar izaten... *Zutituz, sentibera-tsu* Anjela, ordea, bestelakoa zen, berezia eta zoragarria benetan... Itxura batera ez eman arren, hogeitamazortzi urte banituen ordurako, eta nere aldean gaztea zen Anjela *Pozkor* Baina nirearen pareko maitasuna sortu zitzaion bihotzean, eta ezkontzea erabaki genuen!

Kezkatan jarri ninduen konpromezu horrek, egia esanda, neronen berri banekielako, eta gogoeta ugari bururatzen zitzaidan... gehienetan erantzunik aurkitu gabe. *Beretzat* Izango al nintzen gauza ezkontza ostean etxea mantentzeko eta finkatzeko hainbeste urte nolabait ibili ondoren? Edo etorkizun duin bat eskaintzeko emazteari eta umei...?

Ez nekusan garbi. Zuhaitz hazitxoegia ez ote nintzen jokabide zaharrak aldatzeko. Eguna joan eta eguna etorri, asmatu ezinik nembilen *Alaiago* "Ta zergatik ez Ameriketara? Huraxe duk, antza denez, aukerarik egokiena! Hemen nere ipurloka hau asentatzerik ez badiat, agian gizarte ezezagun hartan bai. Ohitura berrietara moldatu beharrak hartaratu natxiok, eta familia hazteko bizibidea aurkitzea errazago egingo zaidak... Aspalditxoan makina bat euskaldun urte gutxiren buruan Ameriketara aberastu dela egunero entzuten diagu. Besterentzat horrenbesterainoko maukak badira, guretzat zeozer izango al duk! Ez gaituk betiko urrunduko; urte batzutan lana senper egin, eta zahartzaro lasaia pasatzeko adina diruz bueltatuko gaituk... Harreman onak dituzten


adiskideak badizkiat paraje haietan eta, hasteko behintzat, ez diagu laguntasun faltarik edukiko...”

Aulki ertzean sostengaturik Buruko lapikoan egosten nuten go-goeta hauek, eta ez behingoan baina halako batean *Goxo* “Etorriko al zinake nerekin Ameriketara?” bota nion Anjelari *Harriturik* “Ameriketara? Gizona, Ordiziko perira joatea dela uste duzu?”... Zalantzas josita utzi nuen koittadua. Gurasoen beldur ere bazen, eta arrazoi osoz, ezkontzeko baimen eske heldu zitzaientean, gazteegia zelako ukatu egin baitzioten.

Konponbidea? *Zutituz, adoresu* Dena bertan behera utzi eta Argentinan ezkondu! Hemen beste paper eta onespen beharrik ez genuen izango eta! Guztiz maitemindurik geundenez, ez zegoen munduan gu geldierazteko oztoporik! *Berriz kitarra hartzen du* Gainera, han bizi ziren euskaldunei “Gernikako arbola-ren mezua eramango nien. Ameriketara erein txerto berriak” *Gogoz Eman ta zabal zazu munduan frutua! Kantatzen hasiko da, baikor.*

Betiko bizi dadin
Jaunari eskatzeko
jarri gaitezen denok
laster belauniko.
Eta bihotzetikan (*b*)
eskatu ezker
arbola biziko da
orain eta gero.

Gernikako arbola
da bedekinatua
euskaldunen artean
guztiz maitatua.
Eman ta zabal zazu (*b*)
munduan frutua
adoratzen zaitugu
arbola santua.



Kitarra aulkian utzita edalontzia betetzera doa, baina pitxerra hutsik dagoenez Hau bukatu da Sorbaldak jasoz Bila joan beharko. Itxain pixka bat, mesedez, berehala itzuliko naiz eta... Pitxerra hartuta barnebidetako atetik kanporatzen da, emaro.

BIGARREN EKITALDIA

Agertokia lehenetan dago, batere aldatu gabe. Pitxerra kontuz dakarrela, barnebidetako atetik alai dator. Edalontzia bete eta txurrut egin ondoren... Sekulako ardoa! Ameriketara ez duzue halakorik aurkituko, ez horixe. Joxe Mari zaharraren hitza!

Non nindoan? *Pentsatuz* Ah bai, bertara abiatzeko asmotan genbiltzela. Urteak haiek *Aitzinera doa* Adiskideen eskutitzak jaso genituen eta ongi hartuak izango ginela jakin, aurreratutako diruarekin bidaia ordaindu eta han non untziratu ginen Baionan, *Irribarrez* kasualitate, Anjelita izeneko itsasuntzi batetan!

Bi hilabetetik gora kostatu arren iristea, ia oharkabean iragan ziren, eta Jaungoikoari eskerrak itsaso barean nabigatu genuen eskuarki *Erromantikoki* Egunsenti zohartsuak eta ilunabar baketsuak gozatzeko tenoreak aurkeztu zitzaigun... Untzia ez zen, egia esan, dotore horietakoa; badakizue, gu lakoentzat ez da apaindura gehiegi izaten. Dena den, tropikoetako haize epelak eta Anjelaren ondoan joateak bidaia erosoagotu egiten zuen.

Bizpahiru pauso alde batera. Geldi berriro, apal Banuen, horratxo, har bat nere barruan. Amari agur egiteak eta sorterritik aldentzeak atsekabez betetzen ninduten. Itzultzeko esperantzarik ez zitzaigun falta, jakina, baina ez zen aski tristura hura gozatzeko. Oraingoan neure borondatez nindoan, eta hala ere bihotza zauriturik sentitzen nuen *Isilunetxo* Barne barnetik irten zitzaizkidan bertso hauek *Goxo hasiko da, sentimenduz beterik.*

1 - Gazte gaztetandikan
herriatik kanpora
estranjeri aldean
pasa dut denbora.
Herrialde guztietan
toki onak badira
baina bihotzak dio
"Zoaz Euskal-Herria"


2 - Agur nere bihotzeko
amatxo maitea
laster etorriko naiz
kontsola zaitea.
Jaungoikoak nahi badu
ni urez joatea
ama zertarako da
negar egitea.

3 - Lur maitea hemen uztea
da negargarria
hemen gelditzen dira
ama ta Herria.
Urez noa ikustera
bai mundu berria
oraintxe bai naizela
errukigarria.

Suak ganoraz jarraitzen duela ziurtatuta, aurreko mahaian jezarriko da Buenos Airesek ez zuen porturik, eta itsasuntziak Rio de la Plata erdian ainguratu ondoren, txalupetan hurbildu ginen urertzera. Lehorrean ordea, ustegabeko ikuskizuna genuen. Eskuak jasota agurtzen jende mordoska bat zegoen bertan gure zain!

Adoretsu Hura bai harrera bikaina! Ah zer nolako ongi etorri be-roa! Elkar entzuteko moduan hurreratu ginenean, txalupan zutituta "Gernikako arbola" abestu nien alaitasunez. Hango besarkada, agur eta ohiuek ez zuten azkenik Gogor "Gora Iparragirre! Gora Euskal-Herria! Gora Gernikako arbola!"

Barnebidetako ateruntz abiatuz, ikuslegoari Zaratak dira goian?... Ziur ezetz?... Eskerrak. Etxekoandreairean pauso hotsak iruditu zaizkit Berrero erdira doala, oroitzuz Patxiku Mendiarekin, Karlistadan nire



kapitaina izandakoarekin gelditu ginen aste batzuk, eta imajinatzen duzue gure aurreneko betebeharra? Jakina! Xabier Lardizabal apaizak ezkondu gintuen, 1859.eko Otsailaren 26an, Patxiku eta bere emaztea lekuko zirelarik... Gero, jendeak eskatuta, tabernetan eta etxeetan kantatzen aritu nintzen *Maitekiro* Ene bizitzako egunik zoragarrienak izan ziren haiek, Anjela eta Joxe Mari, Joxe Mari eta Anjela...

Aitzinean Apika laster sentituko dut berriz orduko ilusio hura, emaztea eta seme-alabak honuntz datozenean, alegia. Kontatuko dizuet... Ameriketakoarekin jarraituz, Uruguayn nuen lehengusuak artzai lana agindua zidan, baina bertara heltzerakoan atzera egin zuen. Ez dakit nire itxura ez ote zitzaion gehiegi gustatu artzaintzarako edo zer pasatu zen, gaia da aitzaki piloa jarri zidala erabakia hartzeko orduan. Hau ikusita, lagun batzuei mila bat ardi erosteko lain diru eskatu nien, eta borondate onenarekin eskaini zidaten, neuk ahal nuenean bihurtzeko. Tratuan nengoela, lehengusuaren abixua ostera, arazoak konpondu zituela eta joateko ahalik eta azkarren, bere artaldea nire kargu utziko zuela eta. Zalantzan jarri ninduen, aukera aproposena zein ote zen asmatu ezinik, eta zuzen ala oker, lehengusuarengana jo nuen, aurrenengo senidea zela pentsatuz *Txurru* egin ondoren jarraitzen du Hiruzpalau urte eman genituen Uruguayn artzaintzan Anjelak eta biok *Iribarrez* Pariseko lagunek jakingo balute!... Ez nintzen artzai izateko jaioa, eta larri erabiltzen ninduten ardiok. Batean galdu, hurrengoan ihes, beti zerbait! Esaten zidan bai, Anjelak, ardura gehiago hartzeko, baina ardiak askatasuna maite bazuten, zer egingo nien nik? *Eskuak zabalduz* Atzetik ibili egun guztian? *Apal* Azkenean ez nuen atarramendu onik atera toki hartan; behin alboko artzaia eta neu gogor haserretu ginen ardiak nahasturik zeudelako, eta gutxien espero nezakeena gertatu zitzaidan *Harriturik* Lehengusua nire alde jarri beharrean bestea defendatzen hasi! “Hori diagu? Hago lasai, ez diat aurrerantzean buru-hausterik emango!” Dena bertan behera utzi eta Montebideora aldatzea erabaki genuen.

Dabilela Anjelak muturra apur bat zimurtu zuen “Atzeratutako soldatak eska ezaiok behintzat”, zioen. Eta finean zera, ni harroxko samarra izaki, ez nengoen doilor haren aurrean makurtzeko. Beste nonbaiten aurkituko nuen lana, eta horrela iragango ez balitz ere berdin zitzaidan. Txoriek ez zuten deusere eta alaiki bizi ziren. Zergatik ez

geu...? Usu pozik sentitzen nintzen ardiekin, patxadan, nere gisa kantari edo bertso gintan. Alabaina, alderdi haietan hainbeste urte igarotzeak sobera aspertu ninduen *Burua mugituz* Ez nengoen hartara ohitua.

Montevideon ostera *Alai* Ah! Seme bat ekarri genuen, Benigno. Eta lehendik ongi konpontzen baginen Anjela eta biok, haurrak pozez bete gintuen, arras zoriontsu... Asko gustatzen zaizkit gaztetxoak *Jaka seinalatuz* eta sakelean beti daramatzat goxoak beraiei emateko. Nire adinekoek barre egiten didate horrelakoa naizelako *Sorbaldak jasoz* Hor konpon. Gaur bertan, irribarrez oheratu da Zozobarroko neskatila eskukada gozoki eman diodanean.

Aulkian jezartzen dela Montevideora txiro heldu arren, Martin napar borondatetsuak etxe bat alokatzeko adina diru laga zigun, eta taberna bikaina zabaldu genuen bertan... Imajinatzen duzue jarri nion izena? Norbaitek asmatuko zuen honez gero. Bai, "Gernikako arbola kafetxea".

Lasai, oinak gurutzatuz Aurreneko zeregina, noski, orma guztietan arbola santua pintatzea. Laster egin zen ezaguna, eta egun osoa jendez beterik zegoen *Iribarrez* Egun erdi eta gau erdi esatea egokiago litzateke, ezagun anitz bait nituen eta berandu arte jarraitzen genuelako zortzikoak abesten eta berriketa bizian. Emaztea haserretu egiten zitzaidan, hori ez zela taberna aurrera ateratzeko ganorea eta "Zer nahi duzu, emakumea? Bezeroekin ongi moldatzea komeni zaigu"... Anjelak ez zidan hori sekula ulertu. Eta bai, orain eta hemendik begiratur gero, arrazoia bere aldetik zegoelakotan nago. Ez nintzen bizimodu hartarako aproposa, zerbitzea adina edatea laket zitzaidalako, kantatzen lanean baino aisago iharduten nuelako... Kobratzeko ere, zelako komeriak. Ez dut eduki inoiz dirua eskatzeko aurpegirik, eta gutxiago adiskideei, eta ondorena *Eskuak zabalduz* gura zuenak bakarrik ordaintzen zuela. Azkenean, zorrez beterik agertu ginen, eta derrigorrean utzi genuen kafetxe eder hura. Neregatik izan balitz beste urte pare bat jarraituko nuen... Amore eman behar, ordea.

Zutituz, intxaurrak eta ogia jaten hasiko da, tarteka Argentinan bizimodu erosoagoa eramateko bidea zegoela eta batzuk hara joateko gomendatzen zidaten. Halere, lurralde atsegingarriagoa eta menditsuagoa delako, nahiago nuen Uruguayn bizitzea. Tontorren artean ibiliz gero, Euskal-Herria hurbilago geneukan bihotzetan *Apal* Kafetxea itxi

ondoren, ez genuen ezertxo, eta ataka larri hartan Santi Arizabalo pasaitar jatorrak lagundu zigun mila ardi utziaz...

Nere aita gozogilea zen *Zalantzan* Aipatu dizuedala? Barkatu, batzutan korapilatu egiten naiz. Gizon fina eta leiala, zinez "Gogor saiatu eskolan, Joxe Mari. Ez haut lanean jarriko ikasteko grina erakusten baduk. Bazeudek belar motzetan hazitako gizon handiak" zioen sarritan... Ziur asko, berak izan ez zuen aukera eskaini nahi zidan...

Urte dexente eman genituen artzantzan, eta hasieran ederki moldatu ginen umeekin baso bakarti haietan. Zaldi bikain bat erosi genuen ardiak zaintzeko, eta honez gero esperientzia banuela zirudien, edo us-te nuen, baina nik lehengo lepotik burua *Mahai ertzean jezarririk* Belar gainean lasai etzanda bertsoak egitea atsegin nuen, eta jakina, ardiak galtzeko ez dago bide hoberik. Txit ondo gogoratzen naiz nolako artaldetzarra zen Arizabalorena, eta denborarekin zer gauza bitxia gertatu zitzaidan *Ikuslegoari* Intxaurrak gustatzen zaizue? Neri izugarri! *Jaten* Zazpi ardi bakarrik nituen beltzak, eta besteak bezain dotoreak ez zirelako, edo zuriek apur bat baztertzen zituztelako, beraiek neuzkan gogozkoen *Sentikor* Kopla batzuk ere eskaini nizkien. Gero, ni artzai gibelhandia izatea aski ez balitz, bertako eta "matrero"en arteko izkanbila piztu zen, eta etengabeko eskabideak egiten zizkiguten tropak mantentzeko. Batean hogeit hamar ardi eta hurrengoan berrogei, gaur alde batekoek eta etzi bestekeok, ia artalde barik gelditu ginen *Txurru* egin ondoren Ez nintzen gerratean inorekin konprometitu, eta behartsu nekuskielako, ardiak kentzerakoan ez nien aurpegi txarrik jartzen; baina azkenerako, zazpi beltzokina laga zizkidaten.

Goian zerua eta behean lurra ostera. Osasun aldetik ere orduantxe eduki nuen ikaragarritzko larrialdia. Ia hiltzeko zorian erabili ninduten ur lohiak edateagatik sortutako sukarreak. Gure Anjelak Mercedes hirira eraman ninduen, eta Durañona sendagileari esker-rrak garaitu nuen gaitz hura *Ezkerdun* Gizon zintzoa, Durañona jautsua *Isilunetxo* Harrez gero elkarrenganako estimazio handia gorde genuen. Bene benetan gustatzen zitzaizkion nire zortzikoak, euskaltzale suttsua bait zen. Gainera, bere abereak eta eremuak zaintzea eskaini zidan, eta ahantzezinezko bost urte eder iragan nituen bertan *Zizeilu ertzean jezartzen da* Nerau lanean moldakaitz xamarra izan arren, eta berak bazekien hori, arduradunen mailakoo soldataz or-

daintzen zidan... Azkenean aldendu egin nintzen bere ondotik. Nahiago nuen neure gisa ibili, onerako edo txarrerako, Durañona borondatetsu hari kalte gehiago jasanera zeta baino.

Eta artzai berriz, oraingoan Ubalde Zuberotarrak utzitako artaldearekin *Irribarretsu* Gertaera hauek adiskideei kontatzen dizkiedanean, adarra jotzen hasten zaizkit, gozogile baten semea ez dela inoiz artzailanetan ezagutu eta. Baliteke hori egia izatea, lau aldiz aritu bait nintzen artzaintzan eta lauretan porrot egin nuelako *Isilunetxo* Ez dakit, beste anitz gauzetan antzera suertatu zait. Ene patua izango da... Agian neu naiz beti aldrebes jokatzeko duena, eta ehun gudutan arituz gero denak galduko nituzkeena.

Zoritzarreko urte batzuk pasatu nituen ardi zaintzen, ezen Durañonarekin egondako garaia baketsu xamarra izan bazen, atzera hasi bait ziren matxinadak, bata bestearen jarraian, zazpi-zortzizarte bai behintzat. Eta neu inorekin nahastu ez arren, batean gorriak zirela eta hurrengoan zuriak, ardi gehienak okelatarako hik zizkidaten.

*Zutituz Zer egin?... Motelduta, abailduta nengoen. Zortzi ume ekarri, sei mutil eta bi neska, eta pobre jarraitzen nuen. Sasoi txarrean helduko ginen Ameriketara? Edo beste nazioaren baten Uruguayn baino errazago ote zen? Erdira doala Honelako galderak egiterakoan ohartu nintzen Hegoameriketara joandako ia euskaldun guztiak bertan gelditzen zirela etsipenez, lana gogor egin beharrean bizi ahal izateko, eta jaioterrira banaka batzuk itzultzen zirela. Alabaina, handik datozenak aberastutakoak ohi dira, indianoak, besteek ez direlako ausartzen dirurik gabe etortzen... Eta neronek? Ez ginela aberastuko garbi zegoen, eta bestalde, jadanik itzultzeko gogoa genuen, gero eta handiagoa. Nire Amerikak eginda zeuden, eta hobeto biziko nintzen neure sorterri matxetan *Adoretzu Ze* arrai! Txiro jarraituko nuen, baina euskaldunek harrera ona egingo zidaten. Hainbeste aldiz kantatu diot Euskal-Herriari, hainbat bertso eskaini diot, ezin nituen hezurak Ameriketara utzi! Hango etorkizuna ikusita zegoelako Anjelak ere etortzea gura zuen. Gainera, seme-alabek kezka betetzen gintuzten; nahiz eta etxean oraindik euskaraz mintzatu, bertarakotzen hasiak ziren, eta urte gutxiren buruan euskal arrastoak oro galduko zituztela pentsatzen genuen.*

Aurreratuz Gazteak izanik iragandako matxinadez asko arduratu ez arren, auskalo zer gertatuko zitzaien hurrengoekin. Eta Joxe Mari

zaharrak karlistadan burukatu duenean, semeak Uruguayko matxindan sartzea, ba, ez dakit... ulerkaitz samarra iruditzen zitzaidan, zitzai-gun *Seinalatuz* Hau da asaben lurra, ez hura, eta gure ondorengoen sorterrria era berau izan dadila.

Garai hartako bertso batekin gogoratzen naiz *Errezitatzen hasiko da, sentiberatsu*

Itsaso aldera beti begira
zabal zabalik begiak,
oh Jaun maitea, ze urrin dauden
Euskal-Herriko mendiak.

*Sugatera hurbilduta, albotikuak sartu alaz hauspoarekin arituko da. Bertatik Gero eta minduago nengoen, eta heltzen zitzaizkigun albisteak ez ziren batere atseginak. Beste gerra bat, Foruak erabat kenduta, euskaldun askoren egonezin eta amorrazioa... Hango eta hemengo egoerak zeharo astindu ninduten *Aurreneko mahairaino datorrela, apal* Familia osoa batera bueltatzeko, ordea, diru asko behar zen, eta lehenengo neu bakarrik etortzea erabaki genuen. Horrela, hemen zintzo jokatuta aurreratuko nuen beraiek ekartzeko lain, eta denbora gutxi barru denok elkartzeko ginen Urretxun, bizi berri bat hasteko *Mahai ertzean eserita* Uruguayn eta Argentinan nituen adiskideei laguntza eskatu nienean, gogo onez eman zidaten ahal zutenek. Diru gehiago ateratzeko Buenoak Airesen jaialdi bat antolatu zen, eta hantxe abestu nien azken aldiz nere "Gernikako arbola" *Minberaturik* Negarrari eutsi ezinik agurtu genuen elkar...*

Euskaldunen arteko giro anaior hura egokiena zelakoan, "Ameriketatik Urretxuko semea" eskaini nizkien. Neronek Urretxu aipatzen nuen tokian norberak bere jaioterriaren izena jar zezala, eta horrela guztiok sorterrria hurbiltxeago sentituko genuela... *Kitarra hartuta, mahai ertzean jarraitzen du*


1 - Bilarreal de Urretxu
 nere herri maitea,
 seme bat hemen duzu
 amodioz betea.
 Nahi baina nola ikusi
 hau da lan tristea,
 zuretzat nahi dut bizi
 Urretxu nerean.

2 - Bi mila te seirehun
 legua badira,
 Montevideotikan
 Euskal-Herrira.
 Nahiz esperantzetan
 etorri bagara,
 aurreratasun gabe
 urteak joan dira.

3 - Agur adiskideak
 ikusi artean,
 zuenganatuko naiz
 egunen batean.
 Esperantzakin bizi
 nahi dut bitartean,
 gero hezurak utzi
 nere lur maitean.

Kitarra mahai gainean utzita, dabilela Bi mila pesotik gora batu nituen, eta bidaia ordaindu ondoren, Anjelari laga nion beste dena. Hala ere, azken orduan ez zuen umeekin bakarrik gelditu nahi, beldurra ematen bait zion gu biok elkarrengandik bereizteak "Bildutako diru honekin artalde berria eros dezagun! Euskal-Herritik datozkigun berriak ilun samarrak dira eta hobe dugu berriz artzaintzan hastea" zioen ene Anjela zuhurrak... Argazki polita atera genuen seme-alabekin *Ikusle-goari erakusten dio berriz, kontent. Patrikan sartzerakoan* Eta beti bihotzetik gertu eramango nuela agindu nionean, zertxobait alaitu zen "Lasai zaitetz, emakumea, ez da luzarorako izango eta. Hemendik hila-bete batzuetara Urretxun ikusiko nauzue, eta ez gaitu inork eta ezerk bananduko"... Elkar animatzen saiatu ginen, zeren, halako une larritan, nork aska dezake gure eztarriaz jabetzen den korapilo nahasia?

Kanpoko ate aldera doa, burumakur. Bertatik Duela hiru urte t'erdiko kontuak dira eta ez ditut harrez gero Anjela eta umeak besarkatu.




Baina arestian aipatu dizuedan legez, laster etorriko direlakotan nago. Horrelaxe ba, hango ibilerak.

Buenos Airesen itsasoratu nintzen, eta ez zait ahaztuko adiskide min batek esan zidana "Iparra, duela hemeretzi urte ailegatu zinetenean, bertan nintzuan zuei ongi etorria emateko. Eta berehala antzemanian ez hintzela gu bezalakoa, bizi-beharrak eraginda etorri ginen horietakoa. Bizar luzeekin eta kitarrarekin heldu hintzen, bertsolari, eta ez gure moduan, langile. Orduan poztu baninduan ere, gaur gehiago alegeratzen nauk bueltatzen haizelako. Han behar duk, Iparra. Euskal-Herrian zegok hire lekua".

Alaituz Eta lehendanik zoriontsu banengoen, konfidantzaz bete ninduten lagun zahar haren hitzek. Hemeretzi urte lagatzen nituen atzean, eta batere dirurik lortu ez arren, familia bikaina nuen nire deia-
ren zain sorterrira itzultzeko *Isilunetxoa*. *Longaina mahaira jasoten du*. *Ukalondoak belaunetan ipinita, bertatik* Haranzkotan baino luzeagoa egin zitzaidan itsas bidaia, hainbestearainokotxe desiratzen bait nuen etxeratzea, eta Urriaren 20an lehorreratu ginenean, berehalaxe hartu nuen Goierriako bidea *Tente* Hemengo mendiak, ibaiak, baserriak *Hunkituz* begizatzean, barnean sentitzen nuen kabitu ezinezko poz hura azaltzearren, kantatzeari ekin nion... *Zutituta, goxo hasiko da, gero eta adoretuago jarraitzeko. Kitarra barik.*

Hara nun diran mendi maiteak,
hara nun diran zelaiak,
baserri eder zuri zuriak
iturri eta ibaiak.
Hendaian nago zoraturikan,
zabal zabalik begiak,
hara Euskal-Herri, lur hoberikan
ez da Europa guztian.



Oh Euskal-Herri eder maitea,
hara hemen zure semea,
bere lurrari mun egitera
beste gabe etorria.
Zuregatikan emango nuke,
pozik bai nere bizia,
beti zuretzat, hil arteraino
gorputz ta arima guztia.

*Txurru*t egin ondoren, *erdira doa* Lehen egunetako harrera beroa izan zen, noski. Adiskide eta ezagun zaharrak nonahitik agertu zitzaizkidan. Ez nuela kejarako arrazoirik esan behar *Pozik* Berriz nere sorterrian zehar kantatzeko aukera neukan! *Paretako erlojuari begiratzen dio*. Bertatik Horrela jarraitu nuen gabonak alderarte, baina neguan festa gehiegi ez daudelako, diruz larri antzean nenbilen eta zerbait asmatzeko premian nengoen. Bestalde, eta neronek hori pentsatuta eduki arren, irabazten nuenarekin ez zegoen aurreraterik andra semeak Ameriketatik ekartzeko *Apal* Hura bai zela egoera larria!... Anjela maiteaz gupiturik, gauero begiratzen nuen, ohean nentzala, arestian erakutsi dizuedan argazkia *Burumakur* Zerbait egin nahi eta, ezin! *Ikuslegoari* Apika zuei ere tokatu zaizue nehoiz horrelakorik...

Bizpahiru pauso eskuin aldera Aholku bila hasi nintzen, eta zera zioten, erakunde publikoei eskatzea izango zela egokiena. Nire zortzikoek Euskal-Herria goratzen bazuten, laguntza maila horretatik heldu beharko zitzaidala. Eta Probintzietako Aldundietara izkiriatu genuen eskaera hau eginaz, hots, nik urtean zehar hainbeste jaialditan abestuko nuela, sorospide jakin baten truke. Halaber, ordurarteko bertsoak eta egingo nituen berriak beraiei emango nizkiela, arlo horretako euskal kulturaren onurarako *Erdira dator berriz* Amore eman nuen, ideia aproposena zelakoan. Adiskideek ziur zeuden bide horretatik laguntasunen bat jasoko nuela, eta esperantzatxoarekin poztuta, Madrilera ezagunak bisitatzera nindoan negu partean. Udaberrian, ordea, jaiak eta erromeriak ugaltzen hasi zirenean, hemen nintzen berriro nere kanten bidez sos batzuk eskuratzeko asmotan.

Isilunea. Mahai ertzean sostengatuta, etsiturik Ilusioak eta usteak bai, baina "usteak erdial ustel" sarritan. Gure zorioneko Herri hau ez

zen lehengoa. Anitz gauza berriztuta zeuden. Neroni aldatuta nengoen bezalaxe *Eskumarekin seinalatuz* Ileak urdinduta, ahotsa kraskatzen jadanik... zahartzaroa *Motel jarraituko du* Egia aitortzeko, uda horretan ez zidaten espero nuen beste herritatik deitu, eta horietako batzuetan gainera, ez zegoen garai bateko arrakasta lortzerik. Jaiak berberak baziren ere, orain onenak emandako agurea aspaldiko abesti ezagunak kantatzen besterik ez zekusaten. Gauza polita izango zen agian, baina aintzinakoa, zaharkitua *Zutitu egiten da, eskuak patriketan sartuta* Aguro ohartu nintzen hortik ateratakoarekin neu doi doi bizitzeko lain zegoela. Diputazioetatik, berriz, ez nuen erantzunik jasotzen, eta kezka nintzen nengoen. Ia urte bete sorterriratua, eta oraindik inolako burubiderik atera gabe jarraitzen nuen. Betiko antzera diru faltan, bakardadean, Anjela eta umeak urruti...

Bere kasaz "Berrero Ameriketara joan behar ote diat? Familia ekartzeko adina diru aurreratzerik ez bazegok, bukatu dituk hemengo kontuok *Seinalakatuz* Itzuli egingo nauk"... Burutazio hauek adiskideei agertu nizkienean, ezetz eta ezetz, Aldundietako erabakia iritsi arte itxoiteko behinik behin, bien bitartean beraiek lagunduko zidatela eta. *Patxadan* Horrela iragan zen hurrengo negua *Atzera doa. Kontraleihoak zabaldu eta begiratu ondoren* Orduantxe mudatu nintzen amaren baserrira, Txapartegira. Behelainoagatik gaur bistan ez egon arren, aparteko leku ederrean kokatuta dago *Itzuliz* Bertan bizi naiz pozik asko, noizbehinka Zozobarrora etorritz.

Uda parterarte betiko antzera segitu nuen, herri jaietan kantatuz, eta uztailean Elizondoko literatura lehiaketara aurkeztea otu zitzaidan, ea ezer lortzeko biderik zegoen edo. Nire lanaren gaia "Jaungoikoa eta Sorterria" zen, *Iribarrez* noski, eta dotore egiten saiatu banintzen ere, Arrese-Beitiak jaso zuen saria, neu bigarren geldituz... Ohi bezala pobre, nola ez. Baina hango giro paregabea ikusita, gogozko ahapaldi batzuk idatzi nituen *Aitzinean, urduri xamar* Jaialdietan bertso ezagunenak kantatzen ditudalako, bapatean ateratzen zaizkit; Elizondoko hauek ostera errezitatuak dira, eta guarko moduko abagadunetatik salbu... *Iribarrez* Beno, lagun artean gaudenez, punturen bat gaizki badao barkatuko didazue... *Errezitatzen hasten da.*

1 - Elizondoko uri
eder politean
euskaldun ugari
bildu da bakean,
esanaz batu gara
bai zori onean
gorrotorik gaur ez da
gure batzarrean.

2 - Naparren elkargoa
buruzai dugula
zer zorionekoak
maitatzen bagara,
euskaldun on guztiak
zerura begira
esan Euskal-Herria
salbatu dadila

3 - Mundu berrian ere
gaur euskaldun onak
nahigabetuak daude
bihotza dutenak,
galtzen gure euskara
ondra ta ohiturak
arren ez galdu doiak
Jainkoak emanak.

*Adoretsu, dabilela Saririk eman ez bazidaten ere, pozik atera nintzen Elizondotik. Zubiria abeslari naparrarekin, gaztetako adiskidearekin egin nuen bertan topo eta ea herriz herri kantatzen lagunduko zidan eskatu nion "Bai aixkide, moteltzen ari nauk, ahotsak ez zidak behiala adina erantzuten, eta hirekin ihardutea hobe diat"... Harrez gero gutxitan aritu gara aparte *Burua mugituz* Zima bikaineko gizona, Zubiria *Alde batean, geldi* Hala igaro zitzaigun urtea. Hobetoxeago, bakarrik ez nenbilelako, baina Anjela eta umeak Hegoameriketara jarraitzen zuten... *Betilun* Aldundiak ordea, lehenetan.*

Negua Txapartegin eman ondoren, uda partera berotuta nengoan familiarengana bueltatzeko asmotan, eta zaldun batzuegatik izan ez balitz, jadanik joanda egongo nintzatekeen *Apal* Arazoak konponduko zirela esanda, zerbait gehiago itxoiteko erregutu zidaten, eta bigarren bider honetan ere baietz erantzun nien *Zalantzan* Zentzunak itzultzeko, barneak gelditzeko *Isilunetxoa* Azkenean bihotzari kasu eginaz, beste urte betean geratzea erabaki nuen *Eskuman hiru behatz seinalatuz* Hirugarrenetik ez nintzela pasatuko zin eginda!

Minberaturik Anjelak berriz "Noiz arte, Joxe Mari, noiz arte egon behar dugu elkartu gabe? Pentsa dezakezu nolako egoeratan aurkitzen

garen hemen. Nagusienak, etxeko gosea arintzearren, morrontzan ari dira ia tripa-trukean. Txikiak aldiz, nerekin nolabait. Aitaz galdetzen didatenean, eta maizegi da, zer ihardetsi ez dakidala jartzen naute...”

Kitarra hartzera doa Artista handia naizela diote batzuek; bertso-lari ajolagabea besteez; arlotea gehienek... Nortzuk ote daude zuzen? *Pentsatuz* Artista baldin banaiz, apartekoa ez behintzat, zahartzaroan hain pobre aurkitzeko. Zortzi umeren aita ajolagabetzat hartzea berri... Eta arlote? Euskal-Herri guztian milakek eta milakek arretaz entzun didatenean? *Etsipenez* Apika, denetatik apur bat izango naiz... Edo ameslaria besterik ez *Kitarra jotzeko eran jarriz* Gaztetako bertso bat datorkit gogora... Gure artean, gaur baino ilusio gehiago nuen moldata nuenean... *Leun hasten da.*

Kitarra zahartxo bat da

neretzat laguna

honela ibiltzen da

artista euskalduna,

egun batean pobre

beste batez jauna

kantari pasatzen dut

nik beti eguna.

... Orain arte ikusi dudanarekin “Egun batean pobre, beste batez jauna” kantatu ordez “Gehientxoenetan pobre, lantzean behin jauna” hobeto datorkiolakotan nago...

Kitarra zahartxo bat da

neretzat laguna

honela ibiltzen da


artista euskalduna,

gehientxoenetan pobre

lantzean behin jauna

kantari pasatzen dut

nik beti eguna.



Kitarra zizeiluan lagatzen du Hamaika halako Erdira dator, alaiago Ohizko antzera jarraitu genuen iragan neguan, eta txit ondo jiratzen nintzen Zubiriarekin; jaialdietan elkarren aldamenean, zokoguneak eta pozaldiak konpartitu... Bertsolari batzuek ez zuten onartzen gure jokara, diruagatik edonon kantatzen genuelako Ganoraz Baina ze arraio! Honela bizi izan gara beti, eta ikusleagoak erantzuten duen bitartean, guregatik segi!

Iazkoa zen gainera arestian aipatu dizuedan hirugarren urtea, aurrea edo atzera egitekoa, eta udaberriari kezkatu nengoena ostera, familiarengana abiatzeko irrikan. Pentsamendu hauekin nembilela Aldundien albiste prometagarria heldu zitzaidan, errekeritutako soropidea heriotzeraino jasoko nuela, hainbesteko bat hilero, neure mantenturako *Esku biak zabalduz* Mutilak, azkenean! Bizitza osoan hartutako berririk hoberentsuenetakoa! Adio nire larritasun eta kezkei!

Bestaldera doala, aidoso Zazpi hilabetetan eskuratu dut jadanik zorioneko soldata. Eta uda partean bildu nuenari Ameriketatik adiskide batzuek igorri zidatena erantsi ondoren, lehengo "gautxo" arropak baztertu eta *Gerrontzea ferekatuz, tente* berriak erosi nituen, edozeinen aitzinean agertzeko modukoak. Eta atseginez esan dezaket egun ez daukadala inongo zorrik, guztiei ordaindu diedalako. Gaurdanik seme-alabentzat aurreratzen hasiko naiz, beraiek merezi bait dute gehien.

Anjela kuttunari kontatu nionean "Berandu samar bada ere, norbait gogoratu da horregatik gutaz! Ah zer nolako poza eman diguzun! Denok batera itsasoratzerik ez badugu, txandaka joango gatzazkizu" *Dabilela* Eta agindu bezala, ontsalaz udaberriari datoz neska biak aitarengana, arbasoen sorterrira ezagutzera *Alaitasunez beterik* Egund goibelak laster amaituko dira niretzat. Eta familiakoekin bakarrik bizitzeko ahalgo dut etxea erosi...

Baretuago Jaungoikoari eskerrak, Anjela eta umeen ondoan zehar hartzaro lasaia edukiko dut, hainbeste ibilaldi neketsuen atsedena hartzeko *Geldi* Ez naiz lehen adina arituko hortik zehar; Urretxu inguruan moldatuko gara aitzinean, adiskideekin. Kontuak kontatu, parrandatxoren batera joan, zortziko berriak atera... Bapo gaude, baina *Paretako erlojuari bertatik begiratuz, harriturik* Arraioa! *Zutituz* Ia ordu bata eta ni hemen, ihardunean trankil! *Apaletik hartuta, jaka jazten* hasiko da Bihar ere egunak zabalduko du eta oheratu egin beharko. Beno, urte

askotarako denoi eta ezagutzen garenez, aurrerantzean elkar agurtuko dugu. Gabon eta bihar arte *Neguko longaina ipinita kanpoko atea irekitzera doa. Zalantzan... Itzuliz* Hain gau ederra pasatu ondoren, bukaera bikainagoa merezi duela deritzot. Eta benetako bertsolaria banaiz, ezingo dut alde egin azken agurra bota gabe... *Longaina aukian utzita, kitarra hartzen du* Lehentxoago esan dizuedanez, nire ize-na aipatuz gero berehala elkartzen da "Gernikako arbola"rekin, eta alderantziz *Erdian* Horrela izan dadila... *Apal hasi arren, adoretzu amaituko du, errepikapena bereziki.*

Gernikako arbola
da bedeinkatua
euskaldunen artean
guztiz maitatua.
Eman ta zabal zazu (b)
munduan frutua
adoratzen zaitugu
arbola santua.


... *Zortzikoa bukatzerakoan, jendea agurtuz patxadan aldentzen da. Hala ere, argiak ez dira itzaltzen.*

Oof ahotsa

... *Afari honetatik bi astera hil zen Joxe Mari Iparragirre biriketako neumoniaren ondorioz, Zozobarro Tixiki ostatuan bertan eta eliza-koak hartuta. Baserritar pare bat eta Zozobarrokoak izan ziren lekukoak azken arnasa bota zuenean, Zubiria izanik gorpuari Urretxuraino lagundu zion adiskide bakarra. Hiletan eliza beterik zegoen, eta Urretxuko herritarrez gain kanpotar ugari heldu zen azken agurrera.*

Aldean zeraman ondasun apurrak Anjelari utzi zizkion. Kitarra zaharra, oster, Zubiriari.

Emaztea eta seme-alabak behartsu jarraitu zuten Ameriketara... (Musika hasten den eran argiak moteltzen doaz, itzali arte).





**EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN
ELKARTEA**